

IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA

2020 Ikasturtea

Master Amaierako Lana

BOLLERA IDENTITATETIK SUBJEKTU POLITIKOAREN EGITURAKETARA:

Hego Euskal Herriko bollera taldeen diskurtso eta praktiketara bidia

Egilea:

Eva Perez-Pons Andrade

Tutorea:

Marta Luxan Serrano

2020ko Iraila

Dudarik gabe beldurtu egiten nau nire sentiberatasunik ezak eta baliabide komunen bidez kanpoko munduari ezin atxikitzeak. Horregatik, maitasuna ere idatziz egin nahi nuke, hori posible balitz, hori posible balitz.

Alejandra Pizarnik, Diarios, 1962

ESKER ONAK

Ikerketa aurkeztu aurretik, eskerrak eman nahi dizkiet prozesu honetan bidaide izan zaituztedan guztiei: tutore izan dudan Martari, helarazi didazun gertutasunagatik, nigan jarritako konfiantzagatik eta eman dizkidazun aholkuengatik; elkarriketatu ditudan hiru taldeei, ikerketa hau burutzeko behar nuen informazioa emateko prest agertu izanagatik, baina batez ere, zuen etxeetan beso zabal hartzeagatik; ikasturtean zehar klabeak izan ditudan piezak lotzeko inspirazio izan zareten irakasleei; distopia honetan klaseak ahalik eta modu beroenean antolatu dituzuen koordinazio-taldeari; era berean, ezin aipatu gabe utzi Master honen bidez ezagutu eta orain lagun zaituztedan gelakideei: Ángela, Flor, Garazi, Jone, Leo, Maria, Neus eta Rebecca, eskerrik asko arnas gune, barre iturri eta elkarrekin konspiratzeko tarte izateagatik; Núriari, izan nezakeen koarentena xamurrena emateagatik, manta azpiko solasaldiengatik eta Herri honi eskaini diozun elkartasunagatik; Sare Lesbianistako kideei, ikerketa honetan motibatzeagatik, bestelako harreman-ereduak posibleak direla erakusteagatik, taberna zuloetako hausnarketengandik eta barre algarengatik eta bollerismoa lau haizetara zabaltzeagatik; Annari eta Patriri, eragiten didazuen ilusioagatik; Pepe eta Mònicari, ezkortasunari sarkasmitik heltzeagatik; eta azkenik, urte guzti hauetan identitatea garatzen lagundu didazuen bollera eta feminista guztiei.

Urte gogorak pasa eta gero, nire buruarekin bakean egoten laguntzeagatik.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	6
2.	GORPUTZ POLITIKOA: ZAURGARRITASUNA ERRESISTENTZIARAKO TRESNA GISA	8
2.1.	Gorputz performatiboa	9
2.2.	Hizkuntzak errealitatea sortzeko duen ahalmena	15
2.3.	Agentzia duen gorputza	18
3.	GORPUTZ LESBIKOA: EMAKUMEAREN MITOTIK AGENTZIA SEXUALERA.....	23
3.1.	Emakumearen mitoa.....	24
3.2.	Desiraren (des)eraikuntza	28
3.3.	Perspektibak eta aliantzak	31
4.	PARTE HARTZE POLITIKOAREN IZAERA.....	37
4.1.	Parte-hartze politiko tradizionalari kritika feminista	37
4.2.	Biolentzia teknika performatibo gisa	39
5.	IKERKETAREN HELBURUAK	43
5.1.	Helburu orokorra.....	43
5.2.	Helburu espezifikoak.....	43
6.	METODOLOGIA	44
6.1.	Erabilitako estrategia eta informazioaren bilkura: baliabideak eta mugak	44
6.2.	Talde elkarrizketatuak: Bollera talde lokala 1, Bollera talde lokala 2 eta Talde transfeminista lokala.....	47
7.	HEGO EUSKAL HERRIKO BOLLERA TALDEEN NOLAKOTASUNAK EGUNGO TESTUINGURUAN	49
7.1.	Bollera identitatea.....	49
7.1.1.	Generoa eta identitatea: performance haragituak.....	51
7.1.2.	Egungo bollera, garai bateko lesbiana feminista: aldaera terminologikoa.....	56
7.2.	Feminismoarekiko posizionamendua eta harremana.....	59
7.2.1.	Bollerak haien kabuz antolatzearen garrantzia.....	61
7.2.2.	Sistema heterosexuala: formula bitarra betiketzen	64
7.3.	Aliantzak	71
7.4.	Talde barneko zaintza: gorputza jarri, zaurgarritasuna azaleratu. eremu publiko-privatuaren arteko tartea lausotzen	78
7.4.1.	Zaurgarritasuna: subjektu politikoaren eraketa eta zaintzarekiko kodeak.....	81
7.5.	Militantzia esparrua: neoliberalismoaren kontrako praktikak, mugak eta erronkak	85

8.	ONDORIOAK.....	94
8.1.	Ikerketaren emaitzak.....	95
8.2.	Prozesuak sortu dizkidan gogoetak, ikerketaren mugak eta aurrera begirako ildo posibleak	98
9.	BIBLIOGRAFIA.....	100
10.	ERANSKINAK.....	105
10.1.	ERANSKINA I: Elkarrizketetarako gidoia	105

1. SARRERA

Kolonizazioaren hedapenarekin taxonomia arraziala sortu zen era berean, 1868an sortu zituen diskurtso medikoak heterosexual eta homosexual kategoriak, XVIII. mendetik hona gorputzen hierarkizazioa helburu duen sistema binario bat ezarriz. Lanean zehar azalduko denez, sistema normatibo horrek biolentziaren eta etxekotzearen beharra du bizirauteko, alde batetik, ideal baten iruditegia sortuz, eta bestetik, ideal horren kontrakoa den guztia alboratuz. Bazterketa horretan baina, kokatuko dira erresistentziarako gorputzak, praktika indibidual zein kolektiboen bitartez egituratuko direnak. Gorputzak disidentzietan kokatzen dituen bazterketa horrek hainbat adar dituen arren (arrazia, klasea, aniztasun funtzionala, sexua, adina...), arreta jarriko dut sexualitatean, zehazki, lesbianismo politikoan eta lesbianismoa ikuspegi feminista batetik bizitzeak subjektu lesbikoari ematen dion agentzian.

Bestetik, azken urte hauetan zaugarritasunaren¹ ulerkerari buelta bat eman dioten hainbat hausnarketa feminista egin dira, hala nola, Judith Butler (2016b, 2010b, 2014) filosofoaren gogoetak non *bestearen* irudia ezinbesteko pieza den komunitatea osatzeko. Horrek subjektua zer den ulertzeko eta parte-hartze politikorako planteamendu berrietara eraman gaitu, publikoaren eta pribatuaren arteko zatiketa hori hausteko beharra areagotuz.

Bi ideia horiek abiapuntu izanik, ikerketa honekin antolaketa lesbofeministak Euskal Herriko Mugimendu Feministari egin diezaiokeen ekarpen politikoa analizatu nahi dut, zehazki, eremu publiko-pribatuaren hausketa horretan. Aktiboki izan dudana ibilbidean, hainbat izan dira militantzia eremuak, bai geografikoki, bai lan lerroari dagokionez: Bilboko Ikasle Mugimenduko ardatz feministan eta Arratiko Mugimendu Feministan. Talde horien arteko ezaugarri komuna sexu-genero sistemaren auzia ikuspuntu heterosexualetik pentsatu eta landu dela izan da. Nahiz eta teorikoki 70. hamarkadan garatu ziren proposamen lesbofeministak irakurri, barneratu eta neure burua *bollera* gisa identifikatu dudana bizitza heterosexuala nahi ez nuela erabaki nuenetik, ez da izan

¹ Zaugarritasunaren eta prekarietatearen artean bereizketa egingo dut, zaugarritasuna erabiliko dut gizakiak duen berezko baldintza gisa, eta prekarietatea zaugarritasun hori desparekotasun harremanetan murgiltzen denean bihurtzen den egoera gisa.

2019ra arte lesbiana feminista talde batean eragiteko beharra izan dudala, talde heterosexualen bollera gisa identifikatu ditudan aldarrikapenen falta batek jota.

Ibilbide motz horretan, talde feminista heterosexualen eta lesbianisten artean, talde barruko zaintzari dagokionez, dinamika ezberdinak ematen direla igarri ahal izan dut. Horrek hainbat galdera planteatzera eraman nau: zer geratzen da eremu pribatuan? Zertan inziditzen da politikoki? Eta, zergatik bereizketa hori? Galdera horiei erantzuna emateko, beharrezkoa izango litzateke bai talde mistoen, bai lesbianisten diskurtsoei eta dinamikei ikusgarritasuna maila berean ematea. Baina, Master Amaierako Lan batek dituen denbora eta espazio mugak direla eta, ezinezkoa izan zait biei heltzea, eta nola uste dudan eduki teoriko gutxiago dagoela egungo talde lesbofeministen potentzialitatea ikusteko, bigarren hauei heltzea erabaki dut.

2. GORPUTZ POLITIKOA: ZAURGARRITASUNA ERRESISTENTZIARAKO TRESNA GISA

Gorputza hainbat modutara interpretatu izan da; maila indibidualean, sozialean eta politikoan. Gorputz indibidualak norbanakoaren esperientzia pertsonalari egiten dio erreferentzia, gorputz bakoitza, haren atalak eta horien arteko harremanak haien artean desberdinak izanik. Gorputz sozialak gorputzaren erabileraren sinbologia adierazten du jendartean. Azkenik, gorputz politikoa gorputz indibidual zein kolektibo disidenteen kontrola erregulatzeko gorputza litzateke (Scheper-Hughes; Lock, 1987). Atal honetan, Judith Butlerren gogoetei jarraituz, gorputz politikoan jarriko dugu arreta; gorputzen zaurgarritasunean eta agentzian, ikusteko zein eragin duen aspektu honek taldea antolatzerako eta haren dinamikak planteatzeko orduan. Butlerren (2014) aburuz, zaurgarritasuna ezaugarri prekontraktuala izango da, gizaki guztiok jaiotzen garenetik hiltzen garen momentura arte zeharkatzen gaituen ezaugarria. Beraz, gorputz politikoa zer den ulertzeko, gorputza non edo zertan eusten den kontsideratu behar da, bai eta eusten duen horrekin zein harreman duen. Era horretan, gorputz politikoaren birdefinizioaren beharra azpimarratzen du, abiapuntua izanik gorputza erlazio multzo bat dela, interdependentea baldintza materialekiko eta besteeikiko, alegia. Gorputza interdependentea dela ulertuz, agerian uzten da gorputzak duen berezko zaurgarritasuna eusten duen horren falta duenean. Era horretan, garrantzia ematen dio gorputzaren esanahi erlazional horri, alde batetik, subjektua zaugarria dela onartuz, interdependentziaren adiera aldatzen delako eta ondorioz, subjektua ulertzeko era ere bai. Bestetik, gorputza ulertzen den moduaren arabera eraikitzen direlako proiektu politikoak eta horiek burutzeko eszenarioak. Zentzu horretan, politika kolektiboak artikulatzeko beharra azpimarratzen da, norbere burua zaintzeko beharrezkoa delako bestea (pertsonak, animaliak, baliabideak, natura...) ere zaintzea. Azken urteetan, Euskal Herriko Mugimendu Feministaren jardun zentrala *bizitzak erdigunean* jartzeko aldarrikapena izan da, zaintzari eta lan-erreproduktiboari² zor

²Lan-erreproduktiboaren (edo zaintza-lanen) eta zaintzaren arteko bereizketa terminologikoa egingo dut afektibitateari dagokionez, bi esanahi diferente dituztela uste dudalako. Horrela, "zaintza" terminoa sostengu afektiboari erreferentzia egiteko erabiliko dut, zeinak ez duen baztertzen zaintza lanik edo lan-erreproduktiborik egongo denik. Bestalde, zaintza-lanak edo lan-erreproduktiboak ondo egiteko sentimenduak ez dutela zertan presente egon behar uste dudanez, "lan" eta "produktzio" hitzei garrantzia eman nahi diet produktio katean duten ezinbestekotasuna agerian uzteko.

zaion garrantzia emanaz (M8ko dossierra, 2019). Baina, nola ulertu dugu interdependentzia? Nola egin diegu aurre beharriaz? Zein estrategia artikulatu ditugu? Zein momentuan eta non? Nondik? Zeinen bizitza jarri dugu erdigunean? Zein gorputzi utzi diegu tokia? Zein neurritan? Mugimendua gara ala mugimenduak? Galdera horiek planteatzera naramate Euskal Herriko agenda feministaren erritmoak eta lan egiteko estrategiak oso markatuta daudela feminismo zuri eta heterosexualetik, eta ondorioz, ez datozela bat hainbatetan aipatu den feminismoaren subjektu poliedrikoaren filosofiarekin.

Feminismoaren subjektua zein den luzerako emango duen eztabaida izaten jarraituko du feminismoan; feminismoa aldaketa sozialaren aldeko borroka bezala uler daiteke, emakumeen eskubideen aldekoa bezala, berdintasuna helburu duen mugimendu edota pentsaera bezala.... Hainbat modutara uler daiteke feminismoa, eta adieraren arabera, halakoa izango da haren subjektua; halakoa ere korrante ezberdinen arteko adostasun ezak, tentsioak, sor daitezkeen ez-ulertuak eta gatazkak. Aniztasunaren gatazkari heltzea eta emakumearen identitate homogeenaren iruditegia (lan-merkatuan dagoen emakume, zuria eta heterosexuala) gainditzea ezinbesteko ariketak dira mugimenduen arteko aliantzak eta zubiak eraiki ahal izateko; errealitatean gauzatzen ez den idealizazio horretatik jaitzi, heteroarauak egunero zapaltzen gaituenon arteko diferentziak onartu eta gure artean sor daitezkeen botere-harremanei aurre egiteko bitartekakoak sortzea, horiek ahalik eta gutxien birproduzitu daitezkeen (Hill Collins, 2000 eta Edward, 1990). Aniztasuna gure egunerokoan errealitatea delako, gatazkatsua, eta ez inklusioaren izenean lortu beharreko *ezberdinen arteko gehiketa armoniosu bat (EHko Bilgune Feminista, 2019)*.

2.1. Gorputz performatiboa

Butlerrek (2007) generoaren performatibitatearen teoria aurkeztu zuenean, identitatea errepikapenaren eta bazterketaren bitartez nola eraikitzen eta deseraikitzen den ulertzeko giltzak eman zizkigun. Haren ustez, subjektuak generorolak errepikatzen dituen heinean, beste batzuk baztertzen ditu, generoa izanik praktika horren produktua. Hau da, generoa ez da zurruna izango Butlerrentzat; aitzitik, etengabeko aldaketan egongo da. Ildo horretan, Mari Luz Esteban (2009)

antropologoak generoa etengabe aldatzen doan “egoteko” modu bezala aurkezten du, etengabeko aldaketa hori gorputz-praktiken bidez era kontzientean edo inkontzientean ematen:

“(…) generoa ez ikustea hainbeste “garen” horren bezala – kulturalki zurrunk diren identitateak, maskulinoak edo femeninoak –, baizik eta “egiten dugun horren” bezala (Stolke, 2003), praktika sozial eta indibidualak non korporaltasuna funtsezko dimentsioa den (Connell, 1995; Esteban, 2004). Generoa, hortaz, munduan “Egoteko” modu bat litzateke, eta ez “Izateko” modu bat, eta ikuspegi horrek esperientzia desesentzializatzen laguntzen digu. Generoa kontzeptualizatzeko modu hori sexualitateari ere aplika dakioke, adibidez, sexu-lehentasuna (batzuetan sexu-orientazioa esaten zaiona) ez litzateke ezta identitate zurrunk eta egonkor gisa hartu behar, ezta aukera bat bezala ere, baizik eta “egoteko” modu bat bezala. Ikuspuntu horretatik abiatuta, gizon, emakume edo generoa bizi den edozein dela modua, izatea eta sentitzea, eta harreman heterosexualak, lesbianoak edo edozein motakoak izatea (...) prozesu erabat dinamikoak lirateke, kontzienteki edo inkontzienteki eraikitzen eta aldatzen doazen praktikak, askotariko testuinguru-esparruen baitan, baina baita posible egiten dituzten koordinatu historikoekin eta sozialekin eztabaidan dauden sententzio fisiko eta emozionalei jarraituz. Gainera, genero edo sexu identitateen eraikuntza prozesu bat izango litzateke, non narratibitateak eta korporalitateak elkarrekintzan jardungo luketen gorputz ekintzen bitartez: sentitzeko, ibiltzeko, adierazteko, mugitzeko, apaintzeko, ikut-zeko, emozio-natzeko, erakartzeko edo erakarria izateko, gozatzeko, sufritzeko...³ moduak, besteekin etengabeko harremanean, denboran eta espazioan aldatuz doazen ekintzak. Hasiera batean garrantzirik izan gabe ekintza horiek kontzienteki edo ez egiten ari diren, baina bai hausnarkortasuna kontzideratuz, hausnarkortasun maila desberdinak, giza ekintza guztiek duten ezaugarri bezala (Ferreira, 2004; Esteban, 2008)” (Esteban, 2009, 34).

Generoa “egoteko” dugun modu bezala eta ez “garen” hori bezala aurkeztuz, momentu oro “egiten” dugunak identitatea eratzen digula esaten ari gara. Horrek gakoak ematen dizkigu “garen” horren atzean dagoen esentzialismoa

³ Gaztelaniazko bertsioan hitz-jokoa: tocar-se, emocionarse...

desnaturalizatzeko. Izan ere, “izan” horrek aldaketarako aukerak eragozten ditu, alde aurretiko *egi* baten existentzia ezkututzen baitu bere erroan; horren arabera, sexua eta sexualitatea finkoak lirateke, biologikoak, norberak aldatu ezinezko “izateko” formak. Simon de Beauvoirren (1949) teoriari jarraitzen dion feminismo klasikoarentzat generoa sexuari jarraitzen dion rol multzoa litzateke. Horren arabera, generoa, deseraiki artean, egonkorra den eraikuntza kulturala litzateke, sexua naturala eta finkoa dela baieztatzen duelako. Sexu/genero binomioak biologikoaren eta kulturalaren arteko bereizketa egiten du hortaz, zeinak adimenaren eta gorputzaren arteko zatiketa indartzen duen. Queer teoriak ideia horrekin apurtzen du bere oinarria delako generoa aldagarria dela, eta ondorioz, sexua desbiologizatzen da; generoak sortzen du sexua, hau da, biologia ere kulturala da. Bestalde, generoa performatzeko posibilitateen artean aldaketa horiek era kontzientean egitea badago, sexualitatea aukera daitekeen praktika estrategiko bat izan daiteke, ez soilik sexu-praktikei dagokienez, baizik eta sexu-praktika batzuei kontrol soziala bermatzeko egokitutako bizitzeko moduak iraultzeko tresna gisa: desioaren deseraikuntza aukeratzea posiblea da sena eraikia delako.

Egiten dugunak baina baita ere egiteari uzten diogunak eratzen dute gure identitatea; errepikapenaren eta bazterketaren bitartez genero-arauetara hoberen egokitzen diren generoa, sexua eta sexualitatea eraikitzen dira, helburua subjektu egonkorrak eta koherenteak sortzea izanik. Era horretan, Butlerrek “matrize heterosexuala” deritzon esanahi kulturez osatutako sistema bermatuko da, zeinak, aldi berean, generoaren eraikuntza askea ekidingo duen:

Matrize heterosexual esamoldea erabiltzen dut (...) genero adigarritasun eredu diskurtsibo/epistemiko hegemoniko bat deskribatzeko, ezartzen duenak gorputzak koherenteak eta zentzudunak izateko genero zurrun baten bitartez adierazitako sexu zurrun bat egon behar duela (maskulinoak gizona adierazten du, femeninoak emakumea adierazten du) historikoki eta aurkakotasunean definitzen dena heterosexualitatearen derrigorrezko praktikaren bitartez (Butler, 2007: 292, 6. oharra).

Matrize horrek determinatuko du zein den adigarria eta zein ez, zer den onartuta dagoena eta zer ez: *identitate adigarria gobernatzen duten arauak, hau da, «ni» baten baieztapen adigarria posible egiten eta mugatzen dutenak, partzialki artikulaturik daude genero matrize hierarkikoen eta derrigorrezko heterosexualitatearen gain, eta errepikapenaren bitartez jarduten dute* (Butler, 2007: 282). Sexua eta sexualitatea kontrolatuta egotea ezinbesteko baldintza da sistema sozio-ekonomiko modernoaren oinarriak sendo bermatzeko, eta hori heterosexualitatearen instituzioaren bidez eta haren erregulaziorako mekanismoa den ezkontzaren bitartez lortzen da. Aitzitik, sexualitatea kontrolik gabe egotea ekonomikoki ez litzateke errentagarria izango, sozialki desordena bultzatuko luke eta politikoki subertsiboa izango litzateke. Hori dela eta, sexualitateari eta plazerari sistematikoki uko egitera eta gorputza ahaztera kondenatuta gaude (ESAM, 1979). Era horretan eratuko dira Michel Fuocaultek (1998) izendatzen dituen “gorputz otzanak”, zeinak otzanak diren heinean, erabilgarriak izango diren, eta erabilgarriak direlako adigarriak. *Anatopolitikaren* bitartez heziko da gorputz otzan hori maila indibidualean, eta gorputz otzan izateko beharrezkoak diren biolentzia guztiak normalizatzea izango du helburu. Bestetik, *biopolitikaren* bitartez kudeatuko da bizitza soziala.

Hala ere, errepikapena ez da mekanikoa, eta hortaz, ez ditu beti subjektibitate egonkorak eta koherenteak sortuko. Aitzitik, singularitateak daude, eta nahiz eta testuinguruak gure gain jokatzen duen hasieran, badago puntu bat non guk testuinguruaren gain joka dezakegun, hau da, ez gara ez aktiboak ez pasiboak gure osotasunean; barrutik kanpora eta kanpotik barrura joka dezakegu, eta hori da hain zuzen ere, performatuibilitateak proposatzen duena: bi egoera horien arteko intererlazioa.

Performatibitatea, hortaz, boluntarismo/determinismo dikotomiak zapartzeko praktika litzateke (Butler, 2010a: 38); *performatibitatea ekintzarako gaitasunaren (edo agentziaren) teoria da, bere aukeren barruan boterea baldintza gisa ukatu ezin duen teoria* (Butler, 2007: 29) *agentzia edo «ekintzarako gaitasuna» errepikapena aldatzeko aukera izanik* (Butler, 2007: 282). Izan ere, dena aldatzea ez dago gure esku, hori azpiegitura ukatzea litzateke, baina botere horren baitan nolabait eragin dezakegu;

desira lesbianoa erreprimituta dago bazterketaren bitartez ezkututzen delako, baina egon, badago.

Bazterketaren bitartez matrize heterosexualaren barruan lekurik ez duten subjektibitate anitz geratzen dira *bestearn* baitan bazterretan. Adigarriak ez diren subjektibitate horiek gorputz zitalak izendatuko ditu Julia Kristevak, eta horiek izango dira subjektibitatearen muga markatuko dutenak: *beste horren baitan marratzen da zitala eta subjektua bereiziko dituen espazioa* (Kristeva, 1988: 19). Baina subjektibitatearen muga markatzen duten subjektu horiek errepikapenak huts egiten duenean gertzen diren erresistentzia-eremu posible horien bitartez hauts dezakete normaltasunaren paradigma. Izan ere, Butlerren aburuz, mounstrositatearekin⁴ lotzen diren gorputzak ez daude kulturatik kanpo, aitzitik, kulturaren parte dira, horiei esker ezartzen baita zer den txarto dagoena, baztertu beharrekoa. Horrela egituratzen eta hartzen dute zentzua bazterketa eta bazterketa horri loturiko kontrola egiteko mekanismoek, hala nola, sexismoak, arrazakeriak, homofobiak, transfobiak, besteak beste.

Elvira Burgosek (2019) Butlerren performatibitateari jarraituz, identitatea zurruna izatetik urrun, etengabeko aldaketan dagoen praktika-multzoa dela ulertzen du ere; identitatearen desoreka amaigabe horrek subjektua zaugarritasun egoeran jarriko du. Performatibitatean dagoen gorputza ez da bere osotasunean norberarena izango, erlazioan sortzen eta mantentzen baita. Hori dela eta, *gorputza bizitza eta pentsamendu kolektiborako leku gisa aurkezten digu* (Burgos, 2019: 42). Ideia horrek gatazkak sortzen ditu, zeren subjektuaren independentziaren idealak zaugarritasuna ahuldade gisa aurkezten duten ordena maskulinista bati jarraitzen dio. Ordena horrek zaugarritasuna feminitatearekin lotzen du, zaugarritasun eza maskulinitatearekin lotzen duen bitartean. Neoliberalismoak ideia horri heltzen dio gure bizitzarako beharrezkoak diren lotura sozial eta komunitarioekin hausteko, subjektuaren autogestioaren eta ahalduntze indibidualaren izenean, indibidualismoa muturrera eramanez (San Pedro, 2018). Burgosek defendatzen du feminismoaren erronketako bat dela interdependentziaren ideari zaugarritasun kolektibotik heltzea, oraindik ere

⁴ Wittigen izendapena.

dependentzia ez baitago ondo ikusia korrante askotan zaugarritasunaren antolaketak generoaren produkzioa erregulatzen duelako, eta horrek emakumearen zaintza gizonen baitakoa izan behar duela agintzen duelako nolabait. Ideia horri kontra egin nahian, emakumearen autonomia erabatekoa aldarrikatu izan da lotura komunitarioek duten berezko garrantzia ukatuz. Ez baita berdina emakumeak emakume izateagatik gizon bat behar ez duela aldarrikatzea eta aldi berean interdependentziaren beharra defendatzea denok zaugarriak garelako, edo emakumea zaugarria ez dela eta bere autonomia aldarrikatzea. Hori izan daiteke erresistentziarako mekanismo kolektiboak agenda feministan bere osotasunean integratu ez izanaren arrazoietakoa bat. Ideia horri jarraiki, Butlerrek zaintzaren erromantizazioari kritika egingo dio baieztatzen duenean “ez dela politika nahikoa zaugarritasuna besarkatzea horrek balio moral berriak ekarriko balitu bezala, edo ustekabeko “zaintza” kontzeptuaren pizgarri bat” (Butler, 2014). Ideia horrekin esan nahi duena da joera egon dela feminismoetan bertan ere, gorputza dimentsio bitan zatitzeko, teorikoki izan ez bada, praktikoan, eta eremu pribatuan geratu den hori bizitzako beharrian materialak asetzeko erabili dela. Horrek ekarpena egin du bizitza sexuala eremu pribatuan mantentzeko, nahiz eta askotan kontrakoa aldarrikatu den. Butlerrek azaltzen du ezin dela zaintzaren etika eremu publikotik atera, horrek indartu egiten baitu subjektibitate maskulinoek eta femeninoek historikoki jasan duten bereizketa sistematikoa. Horregatik, beharrezkoa ikusten du zaugarritasunaren etikari buruz hitz egitea; zaugarritasunak agerian uzten duelako gizakiak bestearekiko duen behar aurrekontaktuala gizadia eraikitzeko, hau da, zaintzaren beharra eremu publikoan kokatzen du zuzenean (Butler, 2014).

Denak zaugarriak garela onartzean soilik berdinduko gara bata bestearekin, guztiok dugulako guztion beharra, eta hori da hain zuzen ere, benetako kolektibo gisa bizitzera eramango gaituena. Baina, zaintza kolektiborako tresna horiek urrun ditugu antolaketarako estrategia integrazioan dugulako, eta ez denontzako lekuak sortzean. Izan ere, askotan besteen zaugarritasunak izendatzen edota ikusten abilak bagara ere, gureak ukatu egiten ditugu, eta ukapen horrek besteekiko dugun berezko lotura edo beharra ukatzea dakar, hau da, besteekin berdindu ahal gaituen ezaugarri hori ukatzea. Era horretan, ezinezkoa da harreman erabat horizontalak sortzea; zaugarria ez dela uste duenak sortuko ditu espazioak, eta besteak hari egokituko zaizkio.

2.2. Hizkuntzak errealitatea sortzeko duen ahalmena

Hizkuntzaren inguruko teoriaren posizionamenduak askotarikoak izan arren, horietako bi baino ez ditut aipatuko: preskriptiboa (lan honetan aztertzea interesatzen zaiguna) eta deskriptiboa (kontrako ideia defendatzen duena). Batzuek, Althusserrek (1997) kasu, hizkuntza subjektuaren aurretik dagoela defendatuko dute, hizkuntza izanik subjektua eratuko duena. Beste batzuek, Austinek (1998) esaterako, subjektua hizkuntza baino lehen dagoela defendatuko dute. Atal honetan, Althusserren teoriari jarraituz, hizkuntzak errealitateak sortzeko duen gaitasunean sakonduko dut.

Butlerrek (2009) Althusserren teoriari helduz, baieztatzen du interpelazioak ez duela helburu deskriptiborik; existitzen den errealitate bat izendatu ordez, hizkuntzak errealitatea sortzen duela, jada existitzen den hitz bat baliatuz: *Hizkuntzak gorputza babesten du baina ez literalki bizitzara ekarriz edo hura elikatuz, gorputzaren existentzia soziala posiblea da interpelazioari esker (...) deiak edo interpelazioak ez du gorputza "aurkitzen", funtsean eratzen du gorputza* (Butler, 2009:21). Esaterako, "emakume" hitza da emakume egiten duena pertsona bat, eta ez emakume izateagatik izendatzen dela pertsona bat "emakume". "Emakume" izendapen hori espero denean naturalizatzen da identitatea; nolabait, espektatiba sozialak egingo du norbanakoa "emakume". Identitatea eraikuntza sinbolikoa (kulturala) izango da. Butlerrek interpelazioaren izaera performatiboa azpimarratzen du adierazten duenean identitatea interpelazioa den dei horrek eratzen duela; hizkuntzaren bitartez eratzen da sozialki gorputza, identitatea ematen dio.

Monique Wittigek (2017) eskubide antiarrazisten kontrako borrokan oinarritzen da bere lesbianismoa pentsatzeko. Horrela, arrazarekin gertatzen den bezala, sexuaren eraikuntza hizkuntzaren bitartez ematen dela adierazten du, hizkuntzaren izaera performatiboa agerian utziz, nahiz eta berak "performatibitate" hitza aipatzen ez duen bere idatzietan: *haiek beltz gisa ikusiak dira, eta, ondorioz, beltz dira; haiek emakume gisa ikusiak dira, eta, ondorioz, emakume dira. Dena dela, hala ikusiak izan baino lehen, hala eginak izan behar izan zuten* (Wittig, 2017: 30). Esaldi hori jartzen du adibide erakusteko "arraza" kontzeptua sortu egin zela beltzen morrontza sozio-ekonomikoa gertatu eta gero, —aurretik ez baitzen terminoa existitzea— eta horrekin,

azaltzeko “arraza” kontzeptua asmatu eta gero kontzeptualki jende arrazializatua sortu zela era berean, arrazoi sistematiko bat dagoela “emakume” hitza existitu dadin, arrazoa emakumea menderatua izateko, sexu banaketa baten beharra izanik.

Hala ere, borroka-guneetara ekarrita, disidentzien izendapen hutsarekin errealitateak sortzetik urrun, gorputzen instrumentalizazioa soilik lortzen dela adierazi zuten *Salda Badago* lelopean Durangon burutu ziren Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan⁵ talde arrazializatuek eta disidentzia sexualek: *izendatu ditugu lehenago geurean ez dauden gorputzak, gorputz horiei espazio hauek bizigarri eta militagarri egin baino* (Medeak, 2019).

Lehenago aipaturiko “matrize heterosexuala” izendatuko du Wittigek (2017) “kontratu heterosexuala”. Wittigen iritziz, hizkuntza da gizakien artean egiten den lehenengo hitzarmena, gizaki eta izaki sozial bilakatuko dituen norbanakoa. Hizkuntza kontratu heterosexualak baldintzatuko du, eta horren arabera, *hizkuntzak errealitate-sortak proiektatuko ditu gorputz sozialean, eta, hala, hura bortizki markatzen eta taxutuko du* (Wittig, 2017: 75). Ondorioz, hizkuntzaz hitz egitean, botereaz ari da Wittig, *errealitate sozialean etengabeko efektu bat sortzen duen botereaz*. Izan ere, diskurtso horiek sozialki eraikia dena natural bezala agertzen dute, naturalizazio horren gainean bertsio zientifiko ofizialak garatuz. Naturalizazio hori da menpekotasun egoeraz kontzientzia hartzen utziko ez diena subjektu subalternizatuei. Botere horri aurre egiteko, Wittigek proposatzen du iraultza linguistikoa, harekin iraultza soziala ekarriko duena. Horretarako, beharrezkoa ikusten du kontratu heterosexualarekin amaituko duten terminoak erabiltzea; kategoria berriak sortzea, gorputzaren adiera zabalago bat lortzeko, gaur egun ere, kontratu heterosexualaren barnean lekuri ez duena. Izan ere, *egin beharreko lankeza ez da dauden marko kulturaletan baztertuak dauden gorputz eta bizitzak barneratu eta horiei aitortza ematea; marko kulturalak aldatu gabe, bazterketa saihestezina da* (Burgos, 2019: 45). Hori dela eta, dikotomia sexualarekin amaitzeko emakume eta gizon kategorien erabilerarekin amaitzea proposatzen du, horiek baitira sistema heterosexualaren funtsa. Hori egiteko, *lesbianaren* irudia hartuko du, emakume kategoria horretatik askatu den subjektuaren irudia, *nagusirik*

⁵ Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak (2019). Hemendik hartuta: <https://www.saldabadagojardunaldiak.eus/salda-badago/>

gabe esklaborik ez dagoen modu berean, gizonik gabe ere ez dagoelako emakumerik (Wittig, 2017: 42).

Lehenago aipatu dugunez, identitatearen eraikuntzarekin lotuta egongo da, teoria honen arabera, hizkuntza. Hori dela eta, hizkuntzaren inguruan ari garenean, identitatearekin gertatzen den bezala, ezin da barnekoaren eta kanpokoaren arteko bereizketarik egin. Era horretan, hizkuntza emana etorriko zaigu eta hasiera batean, ez dugu haren gaineko inolako kontrolik izango; ezin izango dugu hizkuntzak markatzen duen ordena aldatu:

Ez dago dei horrek dakarren zaugarritasun primarioaren eta existentziarako aitortza ematen duen suszeptibilitatearen kontra babesteko modurik. Ez dago haren egile ez garen hizkuntza batek dakarren dependentzia primarioaren kontra babesteko modurik, helburua behin-behineko estatus ontologikoa lortzea izanik. Era honetan, batzuetan min egiten diguten terminoei heltzen diegu, behintzat sozialki eta diskurtsiboki existitzeko modua ahalbidetzen digute (Butler, 2009: 52).

Gorputz zitalak menpekotasun egoera batean jartzen dituzten izen iraingarrien bidez izendatzen dira, onartuaren eta onartua ez dagoen horren arteko diferentzia markatzeko. Eta, mingarriak badira ere, izen horiek ematen diote existentziarako eskubidea gorputz zitalari. Hala, gorputz zitalak errealitate sortzaileka dira ere.

Identitatearekin geratzen den era berean, interpelazioak ere huts egin dezake, gorputz bat ez dutelako soilik hizkuntza-ekintzek eratzen (Butler, 2007: 250). Gerta daiteke dei hori jasotzean identifikatua ez sentitzea, hau da, izen horrek duen esanahi kulturala barneratu ez izana, edo gerta daiteke estigma duen izendapena bereganatu izana eta hari beste definizio bat eman izana, eta birdefinizio horren gain identitatea eratu izana; izaera politikoa aitortzea bertatik borrokatu ahal izateko (Velasco eta Díaz de Rada, 1997: 198). Aurreiritzi negatiboak dituen izendapen hori birdefinitzean, duintzean, eta horiek geureganatzean soilik artikulatu daitezke borroka; identitatea beharrezkoa da

paradigma aldatu nahi bada. Horren adibide dira, esaterako, *marika*, *bollera* edo *zoro* hitzak.

2.3. Agentzia duen gorputza

Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan Medeak⁶ talde transfeministak aipatu zuenez, Euskal Herriko Mugimendu Feministan gorputza ez dago erdigunean. Nahiz eta gorputzaren inguruan aski teorizatu izan den, ez da eguneroko praktikara eraman, eta instrumentalizazioan erori da. Oro har, jardunaldietako *Gorputzak eta sexualitateak* mahaia osatzen zuten talde gehienek⁷ bat egin zuten adieraztean *Euskal Herriko Mugimendu Feministak ez duela oraindik sexualitateak duen potentzialitate politikoa barneratu*, edo bestera esanda, *sexuak duen agentzia ez duela bereganatu* (Medeak, 2019). Euskal Herrian eta espainiar estatuan, oro har, kontu horrek berria dirudien arren, XX. mendeko 70. hamarkadako mendebaldeko mugimendu lesbofeministetan du jatorria. Garai horretan, hainbat teorialari lesbianista feministek aldarrikatzen baitzuten giza sexualitatea komunikaziorako eta harremanak eratzeko mugikorra dela, eta plazeraren dialektika dakarrela berarekin (ESAM, 1979). Hau da, giza harremanak aldatzeko beharrezkoa dela sexualki harremantzeko forma aldatzea.

Errepresio sexuala beharrezkoa da sistema neoliberalak biziraun dezan, eta errepresio hori heterosexualitatearen instituzioaren bidez ematen da. Heterosexualitatea zapalkuntzaren ideologia da, eta “beste” diferente baten beharra du menderakuntza gauzatu ahal izateko (Wittig, 2017). Horrela sortzen dira “gizon” eta “emakume” klaseak. Estrategia argia da: subjektua sexura murriztean, subjektua kontrolatzea errazagoa da, emakumeak esparru pribatuan mantenduko baititu eta gizonak publikoan, bakoitzari jarduera diferenteak egokituz; subjektuaren adiera konplexuagoek kontrol hori zailago egiten dute. Beraz, kontua ez da soilik emakume ez garela jaiotzen (Beauvoir, 1969), baizik eta ez garela emakume izatera heldu behar, hau da, derrigorrezko heterosexualitetik eta haren kontrolerako instituzioetatik ihes egiteko erabakia hartzea estrategikoa dela.

⁶ Medeak (2020). Hemendik hartua: <https://medeak.wordpress.com/>

⁷ Medeak, B.A.L.A. eta Sare Lesbianista

Mendebaldeko pentsaeraren ezaugarri izan da elkarren aurkakoak diren kontzeptuen bitartez soilik uler zitekeela mundua. Dualismo horrek ordena hierarkikoak ezartzea izan du helburu; subalternitateen existentzia botere hegemonikoen mesedetan aritzeko, hain zuzen ere. Globalizazioak bazterketa molde horiek muturretara eraman ditu, dualismoek dituzten esanahiak testuinguru desberdinetan esanahi desberdinak dituztela ez kontsideratzera arte.

Feminismoetatik dualismoen ideia horrekin apurtzeko beharraren aldeko hainbat teorizazio egin badira ere, ez da bere osotasunean horien apurketa lortu. Nagore García Fernandezek (2017) bere tesian, feminismoetatik dikotomien erabileraren arrazoi posibleei erreparatu die, galdera zabalduz ea erabilgarritasuna ote den formula hauek erabiltzeko tendentziaren arrazoa:

Arazo honek, gainera, eragiten die bai pentsamendu modernoaren dikotomia klasikoei, hala nola, arrazoa-emozioa, subjektua-jendartea, barrualdea-kanpoaldea edota gizona-emakumea. Baina baita ere teoria kritikotik sortu diren hainbat irudiei – horiek ere pentsamendu modernoaren ondorengo baitira – hegemonia-kontrahegemonia, subjektioa-agentzia, boterea-erresistentzia edota diskurtsoa-praktika horren adibide dira. Era berean, kontzeptualizazio hauek konpromiso politikoa izan behar dute, eta botere-harremanen berri eman behar dute. Arazo hau galdera bezala formulatu daiteke: Botere mekanismoen berri eman dezakegu pentsamendu dikotomiko hauengana jo gabe? Nola egingo dugu? Kontzeptualki dikotomia hauek erabiltzen ditugu erlazio hierarkikoak azaltzeko erabilgarriak direlako? (García, 2017:45)

Lan honen helburua ez da dikotomien erabileraren eztabaidari inolako erantzunik ematea. Bai ordea, argitu nahi da pribilegio eta zapalkuntza kategoria dikotomiko horiek problematizatzea beharrezkoa dela, horien gaineko analisiak modu absolutuan egin beharrean, era intersekzional batean eginez. Ulertuz *kategoria horiek aldakorrek direla geografian, denboran eta orokorrean, testuinguruaren arabera*, analisi horrek gure gorputzen gaineko kontzientzia hartzea ekarriko du, izan ere, *gure gorputzek*

adierazten dutenaren eta beraz, irakurtzen denaren gaineko ardura hartu behar dugu (Medeak, 2019). Hau da, momentu bakoitzean gure gorputzak duen posizioari erreparatu behar diogu, testuinguru batean zapaldu egoteak ez duelako esan nahi beste batean halabeharrez zapaldua egongo denik; ez zaio kategoria bakarrari heldu behar, zapaldu garen era berean pribilegiatuak izan gaitzkeelako eta botere-harremanak birproduzitzen egon.

Foucaulten (1976) arabera, boterea testuinguru guztietan ematen den subjektuen arteko harreman multzoa da. Botere-harremanek subjektu guztiak zeharkatzen dituzte, eta horrek errepresioaz gain, benetako efektuak eragiten ditu gorputz sozialean. Boterea egituratzeko moduetako bat gorputz otzanak sortzea da; norbanakotik hasiz – ulertuz norbanakoa ezin dela era oso batean singularrean aditu beste gorputz batzuekin elkarrekintza etengabe dagoenez gero –, gorputz sozialean eragina izateraino. Kontrol soziala ezartzeko mekanismo hori izango da Butlerrentzat “matrize heterosexuala”, Wittigentzat “kontratu heterosexuala” eta Richentzat “derrigorrezko heterosexualitatea”.

Menderakuntza-mekanismo horretan ez da zapaltzaile-biktima binomioa soilik egituratuko. Izan ere, zapaldua egoteak ez du biktima identitatea zertan ekarri, eta ez du ezta baztertzen agente izatea. Zapaldua egotea zaurgarritasun egoera batean egotea esan nahi du, eta ondorioz, biolentziak jasotzeko probabilitate altuak izatea. Zaurgarritasun horren gaineko kontzientziak ahalbidetuko du gorputz zapalduak erresistentziarako zein gaitasun dituen aztertzea eta egituratzea, edo gauza bera dena, immobilismora bideratuta dagoen “biktima” kategoria horretatik ihes egitea. Beraz, zaurgarritasunaren mobilizazioak egingo du gorputz zapaldua agente (Butler, 2014), baina erresistentzia hori ez dute gorputz guztiek era berean bizi.

Gorputz guztiak zaurgarriak dira baina ez maila berean, sistema heterokapitalista, kapatizista eta arrazista den heinean, biolentzia gehien pairatzen duten gorputzak izango dira prekarioenak edo zaurgarrituenak⁸. Gainera, subjektu batzuek erraztasun handiagoak dituzte beste batzuek baino botereari aurre egiteko haien borrokek

⁸ Generoarekin gertatzen den bezala, zaurgarritasunaren antolaketa edo banaketa desberdinak boterea ezberdin banatzeko balio baitu klaseari, arrazari, kapatizismoari eta beste abar luze bateri dagokionez.

zilegitasun soziala dutelako. Bestetik, askotan *guk ez dugu aukeratzen gure gorputzekin egiten dugun militantzia (...) ezin diegu gorputz zaurgarrienei gure borroken izenean inmolatzeko eskatu, batez ere, ez bagaude prest bestelako gorputz pribilegiatu bezala ere inmolatzeko* (Medeak, 2019). Adibidez, gorputz beltz batek ez du aukerarik izango erresistentzian bizitzeari ezetz esateko, ezin duelako bere menderakuntzaren arrazoi azalaren kolorea ezkutatu. Aukera hori badute ordea, luarik gabeko emakume homosexual zuriek edo heterosexual zuriek. Zentzu horretan, beharrezkoa ikusten da tolerantziak dakarren ageriko onarpen horri aurre egin eta gorputza jartzea John Bergerren⁹ hesiaren beste alde horretan. Horren adibide lirateke ditugun pribilegio legalak atzerritarren legeak egunero zapaltzen dituztenen mesedetan erabiltzea zubiak eraikitze aldera, edo desheterosexualizazio prozesuak klabe feministetan.

Desheterosexualizazio prozesu kontzienteak heteropatriarkatuari aurre egiteko estrategia dira. Richek (1996) lesbianismoa patriarkatuari aurre egiteko erresistentziarako ekintza bezala aurkeztu zuen. Ordura arteko emakumeen arteko harreman erotikoak ukatu izana, bizitza soziala kontrolatzeko mekanismoetako bat izan da. Wittigek ezinbestekoa ikusten du menderakuntza patriarkalaren kontzientzia hartzean eta kontzeptuen berrebaluazio bat egitea, zeren, normatik at geratzen diren gorputzek ezin baitituzte bitza bizigarriak izan heteroarauak markatzen dituen kontzeptu zurrun horietan; erresistentzia berarentzako zapalduen ikuspuntutik bizitza-molde berriak sortzea litzateke:

Zapalkuntzaren kontzientzia ez da zapalkuntzaren inguruko erreakzio bat (zapalkuntzaren kontrako borroka bat) bakarrik. Mundu sozialaren berrebaluazio

⁹ John Bergerrek (1995) *Páginas de la herida* poesia liburuan adierazi bezala, hesiak ez dira eraikitzen kanpoan dagoen horretatik babesteko, kontrara, norma indartzeko eraikitzen dira; ez ahazteko zer den ondo dagoena eta zer ez, eta gogorarazteko ona ez bazara, hesiaren beste aldera botako zaituztela.

kontzeptual erabatekoa ere bada: mundu soziala guztiz berrantolatzea kontzeptu berri batzuekin, zapalkuntzaren ikuspegitik (Wittig, 2017: 37).

Izan ere, heterosexualitateak inposatzen duen bizitza pribatuari onura atera dioten bizitza homosexuali soilik ematen baldin bazaie ikusgarritasuna, normara egokitzen jarraituko dugu eta ez dugu inolako aldaketarik egiten bultzatuko, erosotasuna ez baita iraultzailea. Alde emozionalak eta sexualak espazio publikoa hartzea beharrezkoa da pribatu-publiko binomioarekin hausteko; sexualaren eta sozialaren artean dagoen apurketa gainditzea beharrezkoa da.

Erresistentzia kolektiborako modu honek erresistentziak sortzen ditu korrante feminista askoren artean, Sare Lesbianista taldeak Jardunaldi Feministetan botatako *heterosexuala izanik, feminista izatea posible ote?* galderak sortutako zurrunbiloa eta mugimendu feministako agendetan lesbianismo politikoak duen presentzia ezak agerian uzten dute errealitate hori. Horren adierazle da geroz eta presentzia handiagoa duen feminismoak, zuria eta heterosexuala den heinean, eroso ere badela, eta molde zurrun horrekiko eskakizun posibleek ez dutela lekurik, oraindik ez baitako barneratuta sexuak duen agentzia, gorputzak duen agentzia. Ez al da ba, sexualitatea eraikuntza kultura, sexua eta generoa diren bezala, konfiguratu eta birkonfiguratu daitekeena? Zergatik bestela ez zaio feminismoari erresistentziarik jartzen baina bai ordea lesbianismoari? Zergatik ez du feminismoak sexualitatea desnaturalizatzeko lanketa hori bere gain hartu?

3. GORPUTZ LESBIKOA: EMAKUMEAREN MITOTIK AGENTZIA SEXUALERA

Behin gorputz politikoa aztertuta eta zaugarritasunean oinarritutako lotura kolektiboak sortzeko beharrezkoa zaigun adieran sakondu dudala, lesbianismo politikoak lotura horiek artikulatzeko duen proposamenean zentratuko naiz. Horretarako, lehenik eta behin, Wittigek definitutako “emakumearen” mitoaren inguruan labur mintzatuko naiz, eta nola “emakumeak” klase gisa hartu ez izana, emakumeen*¹⁰ askapen prozesua eragotzi duen. Bestalde, atal honen helburua harreman sozialak (sexuen artekoak barne) aldatzeko sexualitatea bizitzeko forma aldatu beharra dagoela azpimarratzea litzateke, 70. hamarkadan egin ziren teoriari jarraituz. Hots, sexualki zer zaigun desiragarri eta zergatik, baina baita ere “bizi proiektuari” dagokionez, zer bilatzen dugun zalantzan jartzea.

COVID-19ak agerian utzi du Mugimendu Feministek duela hamarkada dezente salatzen ibili diren zaintzen krisia. Krisi horren erroak lotura zuzena du derrigorrezko heterosexualitatearekin, hori baita eremu pribatua eta publikoa banatzeaz arduratzen den egitura. Heteropatriarkatuaz hitz egiten dudanean, jendarte modernoan heterosexualitateak duen rola nabarmendu nahi dut, bereizitako eremu bietako bakoitzean arduradunak ezartzen baititu; emakumezkoak pribatuan eta gizonezkoak publikoan. Hau da, subjektu politiko izatetik pribatuak daudenak eta politika egiten dutenak. Bestearen zapalkuntzan oinarrituta dagoen ideologia eta praktika horrekin amaitu nahi bada, kasu honetan proposamen lesbofeminista batekin, hurrengo galderei buelta bat ematea interesgarria litzateke: zeri deitzen diogu kolektiboki bizitzea eta zelan egin nahi dugu? Zelan nahi dugu bizitza amankomun hori mantendu? Nola egin muturreko indibidualismotik kolektibitaterako bidea bizitza guztiek balio bera izan dezaten? Argi dago lehen pausua bizitza sostengatzeko ardura etxeetatik ateratzea dela, hurrengo ataletan azalduko dudan moduan.

¹⁰ *Bestea*

3.1. Emakumearen mitoa

Jatorrizko kontratuaren inguruan hitz egiten denean, kontratu sozialean (Rousseau, 1762) jartzen da arreta bereziki. Baina, bada beste kontratu bat, kontratu sexuala¹¹, kontratu sozialak aldarrikatzen duen askatasunaz, berdintasunaz eta elkartasunaz ez, eta menderakuntzaren inguruan mintzo dena. Emakumearen menderakuntzaz, hain zuzen ere. Carole Patemanek (2018) azaldu zuen kontratu sozialak gizadiaren erdia, alegia, emakumeak, uzten zituela kanpoan, eta horren arabera sortu zirela gaur egunera arte ditugun estatu demokratikoak. Kontratu soziala askatasunaz mintzo denean, gizon bakoitzak bere mendean emakume bat izatearen askatasunaren inguruan ari da. Izan ere, *aitaren* irudia politikoki garaitu zenean sortu zen *anaitasunezko patriarkatua*, gaur egun patriarkatu¹² bezala ezaguna dena; aitari boterea kendu zioten anaiek (gizon guztiek) boterea haien artean era bertsuan banatzeko. Patemanek, sozialismo marxistak kontratuei buruzko teoriari helduz, azpimarratzen du ez dela berdinen arteko kontraturik existitzen, kontratuen helburua zapalduak eta zapaltzaileak sortzea eta betiketzea dela. Horri jarraiki, gizon bakoitzak emakume bat bereganatzeko eskubideaz ari denean Pateman, ezkontzaren kontratuaren bidez gizon bakoitzak emakume bat menderatzeko duen eskubideaz ari da.

Kontratu sexualaren bitartez azaltzen da gizarte zibila bi alderditan zatituta dagoela. Batetik, eremu publikoa dago, politikoki aitortza duena eta askatasun zibilen espazioa dena; berdinentzako espazioa, legearen eta eskubideen tokia, gizonena. Bestetik, eremu pribatua dugu, ezkontzaren kontratuaren bidez aitoren politikorik ez duena, legerik eta eskubiderik ez duen espazioa, biolentziaren espazioa, eta jendarte zibilaren

¹¹ Carole Patemanek (2018) gizonen emakumeengan egiten duten menderakuntza kontraktuala izendatzeko erabilitako kontzeptua

¹² Bi joera daude patriarkatuaren esanahia ulertzeko orduan. Badaude pentsalari batzuk, Gayle Rubin kasu, esanahia emateko hitzaren etimologiari heltzen diotela. Adiera horren arabera, patriarkatua aitaren botere-sistema izango litzateke. Kontzeptuaren esanahi horri Carole Pateman *pentsamendu patriarkal tradizionala* deitzen dio. Beste batzuek, Adrienne Richen edo Monique Wittigek kasu, patriarkatu deitzen diote gizonen emakumearen gain ezartzen duten botere estrukturalari, gizon horiek aita izan behar izatearen espezifikotasunik gabe. Adiera horri dagokio *patriarkatu moderno* kontzeptua.

erregulazioa betetzeko ardura duena, emakumeen espazioa, non babesaren obedientziaren truk ematen den (Goikoetxea, 2015).

Gizarte zibilaren desoreka hori mahai gainean jarri nahian, jendarte patriarkaletan normaltasuna eta bakea zalantzan jartzeko beharraz hausnartu dute hainbat eragilek azken urte hauetan. Foro Sozialeko¹³ lan ildoetako batek bake prozesuari emakumeek egindako ekarpenak biltzen ditu, non eztabaidagai izan den justizia feministak izan behar duen izaera eta ikusgarritasuna eman zaion emakumeek pairatu dituzten biolentzia matxista desberdinei. Bestalde, 2016an, Iruñeko eta Bilboko Eskola Feministak antolatu zituen Bilgune Feministak¹⁴, hausnartzeko Euskal Herrian gatazka politikoaz hitz egiten denean, zertan jartzen dugun arreta, ordura arte egindako irakurketa gehienak androzentrikoak izan baitziren. Eskola Feministen parte hartzaileetako bat Jule Goikoetxea izan zen. Haren aburuz, bakea eta normaltasuna patriarkatutik pentsatuak izan dira; bakea deitzen zaio gizonak haien artean gudan ez daudenean, baina ez zaio erreparatzen emakumearen egoerari, patriarkatuan norma emakumearen kontrako biolentzia delako, jatorrizko kontratuaren bitartez bermatzen dena. Normaltasun horretatik ateratzen dena izango da gatazka, hau da, emakumeak otzanak ez izatea. Emakumeak eremu publikotik kanporatuak izan dira, hori dela eta, haien kontrako biolentzia gatazka publikotik kanporatua izan da, are gehiago, bakea deitzen dioten hori emakumearen bazterketa sistematikoari esker da posible, bakea emakumearen kontrako biolentzian oinarritzen delako patriarkatuan.

1978an bota zuen Wittigek ordura arteko teoria feminista eraldatuko zuen *lesbianak ez dira emakumeak* esaldia, New Yorkeko Modern Language Association konferentzian. Haren teoriaren arabera, heterosexualitatea diferentzia sexualaren naturalizazioan oinarritzen den erregimen politikoa da, zeinean emakumeak, klase gisa, gizonen menpe dauden. Aipatu nahi nuke hemen, Leonor Silvestri pentsalariak egindako hausnarketa. Silvestrik apuntatzen, Wittigek ez duela sekula heteroarauaren inguruan

¹³ Foro soziala: emakumeen ekarpena bake-prozesuari. Hemendik hartua: <http://forosoziala.eus/eu/atala/emakumeen-ekarpena-bake-prozesuari>

¹⁴ Euskal Herriko Bilgune Feminista (2015). Hau ez da gure bakea. Euskal Herriko gataska eta emakume preso politikoaren inguruko irakurketa feministak. Hemendik hartua: http://bilgunefeminista.eus/uploads/erab_1/2017/06/1497602190-DOSIER-ilovepdf-compressed.pdf

hitz egiten; norma sozialaren inguruan mintzo da une oro, eta gero *norma sozial heterosexuala* aipatzen duela. Bere esanetan, Wittigen asmoa *iraingarria eta deserosoa izatea zela. Izan ere, heteroarau hitzak bide ematen du pentsatzera heterosexual onak eta heterosexual ez-normatiboak daudela pentsatzera* (Silvestri, 2019). Wittigen pentsamenduarekin jarraituz, sexuaren kategoria beraz, jendarte heterosexualak sortuko du, sexua gizonak emakumeen kontra daramaten esplotazio-harremanaren ondorio izanik; naturaren produktu izatetik urrun, klase sozialak sortzeko mekanismoa izango da sexua, eraikia den modu bertsuan deseraiki daitekeena. Emakumeen kontra gauzatzen den esplotazio ekonomikoa eta soziala espeziearen erreprodukzioan oinarrituko da, hori baita ekonomia heterosexualaren funtsa. Silvia Federici teorialari eta feministari jarraiki, erditzea ez ezik, adingabeak eta adinekoak zaintzea eta esparru pribatura mugatzen den produkzioa mantentzeko beharrezkoak diren zereginak garatzea ere, erreprodukzio sozialaren parte izango lirateke (Federici, 2013). Ordena sozial hori ezkontzaren instituzioaren bitartez gauzatuko da, zeinean desberdinen arteko kontratu baten bidez, emakumeen gaineko boterea estatutik senarren esku egotera pasatuko den. Sexualitatea hortaz, emakumearentzako instituzio biolentoa izango da, eta ez plazerarekin soilik zerikusia duen kontu indibiduala; emakumeak bere bizitza pribatuan dituen gatazkak, klase gatazkak dira (Wittig, 2017). Era berean,

...lesbiana da sexu-kategorietatik harago (emakume eta gizon) dagoen kontzeptu bakarra, subjektu izendatua (lesbiana) ez baita emakumea, ez ekonomikoki, ez politikoki, ez ideologikoki. Honatx zerk egiten duen emakume bat: gizon batekiko harreman sozial espezifiko batek, joputza deitu dugun harreman batek; eginbehar pertsonal eta fisikoak ez ezik eginbehar ekonomikoak ere ekartzen dituen harreman batek (“bizileku behartua”, etxeko lanak, ezkontzako eginbeharrak, haurrak mugarik gabe izatea, eta abar). Lesbianek, heterosexual bihurtzeari edo irauteari uko eginez, ihes egiten diote harreman horri (Wittig, 2017: 38-39).

Lesbianak ez dira emakumeak esaldiak klasearen ideia horri heltzen dio: emakume egiten gaituena gizon batekin dugun harremana baldin bada, hau da, menderakuntza

harreman horren baitan eraikitzen bada sexua, lesbiana emakume klasetik ihes egin duen subjektu politikoa litzateke. Bestalde, Wittigek ezberdindu egiten ditu *emakumeak* eta *emakumea* terminoak. “*Emakumeak* klase gisa ulertzen ditu, hau da, gizonekin ematen den harreman sozial baten ondoriozko produktu gisa. *Emakumea*, aldiz, jendarte modernoak zientziaz eta naturaz baliatuz sortu duen mitoari egiten dio erreferentzia; “*emakumea*” ez da gutako bakoitza, baizik eta “*emakumeak*” ukatzen dituen eraikuntza politikoa eta ideologikoa (Wittig, 2017: 34). Alde horretatik, feminismoaren barruan dauden bi tendentzia bereizten ditu. Batetik, emakumearen eta bere defentsaren alde borrokatzen den korrontea, eta ondorioz, emakumearen mitoa, eta ondorioz, zapalkuntza, iraunarazten duena. Eta bestetik, emakume klasearen kontra borrokatzen dena; emakume klasearekin amaitzeko, gizonak klase bezala suntsitu behar dira, zapaltzailerik gabe ez baitago zapaldurik¹⁵. Horrekin ez du gizonen kontrako genozidio bat proposatzen, sexua zer den jabetzeko kontzientzia hartzea baizik: hierarkiak eta zapalkuntzak estaltzeko asmakuntza. Lesbianaren figura, horrela, dimorfismo sexualarekin eta sexu-mendekotasunarekin hausteko estrategia bihurtzen da.

Emakumearen zapalkuntza klase gisa onartzeko erresistentziak baldin badaude, batik bat, marxismo ortodoxotik jaso den herentziaren ondorioz izan da, borroka feministak langile klasearen banaketa ekarriko duela apuntatzen duelako. Emakumea bere zapalkuntzara murriztua izan da, bere subjektu politikoa izaera ukatuaz eta ondorioz, zapalkuntza horretan bizitzera kondenatuta. Wittigek aldarrikatu zuen zapalkuntzaren kontzientzia hartzen denean, ezinbestekoa dela subjektu gisa eratzea eta identitatea sortzea zapalkuntza horren kontra borrokatzeko, *identitateaz gabeturiko batentzat, ezinezkoa delako borrokatzea* (Wittig, 2017: 35).

Emakumea klase gisa irakurtzeko erresistentziak feminismo marxistaren zenbait korrontetan presente daude ere, adibidez Evelyn Reeden (1987) teorian, zeinean emakumeen askapena klase gizartearekin amaitzerakoan etorriko dela azaltzen duen. Feminismo marxistaren beste korrontetako bat emakumea subjektu politiko independente gisa ulertzen duena da, eta Shulamith Firestone (1976) kokatuko genuke

¹⁵ *Nagusirik gabe ez baitago esklaborik* (Wittig, 2017:34).

korrante honetan. Dialektika marxistaren eskemari jarraituz, emakumearen zapalkuntza propioa azaltzen da klase sozialarena ukatu gabe; produkzio eredu kapitalista izateaz gain, patriarkala izango da, langile-klasea existitzeaz gain, gizon/emakume kategoriak klase izaera izango dute, produkzio sistema bermatzeko (erre)produkzio-kontratua ezkontza izango da, eta ez soilik komertziala, eta emakumeak haien menderakuntzatik askatzeko aurrera eraman beharreko iraultza, klasekoa izateaz gain, feminista izango da. Azken puntu horretan kokatuko da Richen eta Wittigen lesbiana materialisten ekarpena; haien iritziz, iraultza feminista baino, lesbofeminista izango da.

3.2. Desiraren (des)eraikuntza

Lehenago aipatu dudan bezala, sexualitatea kontrol soziala bermatzeko tresna gisa aurkeztu nahi dut (Foucault, 1976, 1981); interes ekonomiko zehatz batzuk bermatzeko eraikia den tresna gisa, hain zuzen ere, gorputzaren bitartez ikasten baitugu interes horiek betetzeko modu batera edo bestera desiratzera.

Sistema heterosexualaren eskema patriarkalean, ezinezkoa da imajinatzea erreproduktiborik gabeko sexualitatea, hori baita ekonomia heterosexualaren motorra. Homosexualitateak plazera eta desioa dituen oinarri eta helburu, ez da errentagarria neoliberalismoak eskatzen duen aktibitate ekonomikoarentzat; sistemak biziraun dezan, erregulazio sexuala beharrezkoa da, horren bitartez soilik lor daiteke etekina eta oreka sistema soziala eta hari lotutako ekonomia mantentzeko. Desiraren errepresioak gorputza ahanzturara bideratzen du, eta behin gorputza ahaztuta, gorputzaren kontra gauzatzen diren biolentzia sistematikoei —prekarietatea eta sexismoa, batik bat— aurre egiteko motibazioa eta beharra desagertzen dira (ESAM, 1979). Desira patriarkatutik pentsatu izan dela esan daiteke, helburu erreproduktiboak bermatzeko genitalitatean zentratu delako.

Lesbianek, bere aldetik, ez dute sozialki ezarri zaien emakumearen rola betetzen eta harreman lesbikoak menderakuntza maskulinoari eta sexualitatearen kontzepzio maskulinoari mehatxu egiten die. Horrek demostratzen du gizonen boterea kulturala dela eta norma sozialei erantzuten diela. Wittigek (1970) *El cuerpo lesbiano* liburuan, emakumeen gorputza eta sexualitatea bizitzeko forma berriak deskribatzen ditu,

gorputzeko atal guztiei arreta emanez, bereziki, *nazkagarri* etiketa duten horiek erotiko bezala aurkeztuz, biskozitate anitzeko jariakinak baitira gorputza bizirik dagoela erakusten dutenak. Gorputzeko atal guztiak protagonista aktibo direnez, eta gorputzaren plazera sentitzeko gaitasuna, eta ez maitasun erromantikoa, dagoenez erdigunean, emakumearen gorputza birkonfiguratu du testu osoan zehar gorputz lesbiano gisa, eta maitasunaren adiera heterosexistarekin akabatzen du horrekin (Suárez Briones, 2013).

Plazerari dagokionez, Laura Muelas (2015) azpimarratzen du jendartean bizi garen heinean, eredu kulturek definitzen dutela zer den plazera eta zer ez, eta horiek baldintzatzen dituztela emozioak eta plazera bizitzeko erak. Era berean, gonbidatzen gaitu plazerak zalantzan jartzera, ez soilik sexualak, eta horiek deseraikitzea baldin eta gure plazeretatik errentagarritasuna jasotzen duena sistema baldin bada (Muelas, 2020).

Deseraikitze prozesurako bide horretan, Sare Lesbianista taldeak sexualitatearen eta desioaren izaerak desnaturalizatzeko galdera sorta ekarri zuen: *zergatik kostatzen da hainbeste lesbiana bihurtzea? Zergatik emakumeek igarotzen dute eguna gizonak kritikatzeko, alda daitezela itxaroten? Ez litzateke errazagoa izango desioa aldatzea? Ustezko ahizpatasunak ez al du desioa zeharkatzen? Ez du sexualitatea zeharkatzen?* (Sare Lesbianista, 2019)

Emakumeen arteko erotismoa erresistentziarako gune izan daiteke sistema heteropatriarkalak emakumeei ukatu dizkion konplizitate eta elkar-egoterako guneak zabaltzeko aukera ematen duelako. Deleuze eta Guattari (1975) ekarri, desira hutsune bat baino, indar bezala irudikatzen da; normarekin dago gatazkan desira, eta limiteak urratzeko gaitasuna du, horregatik trasgresiorako formula izan daiteke. Franco Berardiren¹⁶ pentsaerari helduz, Estebanek nabarmentzen du *politika ulertzeko ordeko adierazpen "fisiko, erotiko eta afektibo" horrek, derrigorrean, subjektu politikoa birformulatzea eramaten gaituela* (Esteban, 2017: 105). Ez da soilik desira sexuala deseraikitzea, desira sexual horri dagokion desira soziala deseraikitzea da

¹⁶ https://www.eldiario.es/interferencias/bifo-sublevacion-afectos_6_319578060.html

erronka, espektatibak eta jomugak barne. Baina baita ere gorputza etekina lortzeko makineria bezala ez ikustea, eragiteko eta eragindua izateko moduan baizik.

Dagoeneko aipatu dudanez, gizarte zibila harreman kontraktualen bidez egituratuta dago, ezkontza izanik emakumearen menderakuntza legala ahalbidetzen duena. Ezkontza, gainera, estatuak zilegi egiten duen harremantzeko moduetako bat da (Butler, 2006a). Butlerrek azpimarratu du legitimazio hori beste errealitate batzuen bazterketaren bidez gauzatzen dela, ezkontzatik kanpo geratzen diren sexu-praktikak eta harremanak ulergaitzak eta sostengaezinak bihurtuz. Estatuak zilegi izendatzen duena izango da normala eta harremanen hierarkizazioa ekarriko du, heterosexualak ez diren bitzita batzuk beste batzuk baino onartuagoak izaten lagunduz (Rubin, 1985). Butlerrek *krisi normatibo* izena jarri dio horri; izan ere, ezkontzatik kanpo geratzen diren aukera guztiak pentsaezinak dira, edo osatu gabeko bezala geratzen dira. Pertsona homosexualen arteko ezkontzaren kasua hori litzateke, non eztabaidak ezkontza mota horren alde edo kontra geure buruak kokatzean zentratzen diren. Butlerrek beste pauso bat ematen du, eta ezkontza homosexualaren debatea *zergatik* eta *nola* bihurtu den eztabaida zentrala zalantzan jartzera gonbidatzen gaitu. Zentzu horretan, hiru jarrera mota ikusten ditu: (1) ezkontza homosexualaren kontra daudenak uste dutelako ezkontza gizon eta emakume baten arteko lotura soilik izan daitekeela, (2) ezkontza homosexualaren alde daudenak uste dutelako hura izan behar dela etorkizun bat eraikitze bidea, eta (3) modu orokor batean, ezkontzaren kontra daudenak *adiskidetasunaren, sexu-harremanen eta komunitatearen antolaketa soziala berregitea eta berrikustea, estatuan zentratzen ez diren laguntza-moduak eta aliantzak sortzeko* (Butler, 2006a: 159). Desira sexual batetik eratorritako bizi-planaren desiraren deserakuntzaz ari naizenean, azken puntu horretan ari naiz; finean, jendartea osatzen duen eskema zurrun hori ez desiratzeko ariketa kontzientea egiteaz eta bitzita kolektibo erreal bat egituratzeko praktikak gauzatzeaz.

Izan ere, Butlerrek dioenez, sexualitatea oso modu kontserbadorean ulertzen da oraindik, ezkontza terminoetan pentsatzen baita, ezkontza zilegitasunaren horren erosketa izanik. Esan bezala, zilegitasun publiko hori ez da doakoa ematen. Batetik, bikotean edo familia nuklearrean zentratzen ez diren harremanen eta bizitzen bazterketa are eta nabarmenagoa dakar, sinbolikoki eta literalki – eskubide zibil

batzuk ezkontzaren bitartez lortzen dira, gizartearen parte bati ezkontzea ukatzen bazaio, eskubide zibilak ukatzen ari zaizkio – eta bestetik, disidentzia sexualak heterosexulizatzeko eta normaltasunaren aterkipean sartzeko, gorputzen merkantilizazioa dakar – besteak beste, haurdunaldi subrogatua, *pride* jaialdiak saltzen dituen gorputzak eta bizi-eredua –. Jendarte heterosexualean emakumeen kontrako biolentzia baldin bada norma, ezkontzaren instituzioa ere izango da norma, hori dela eta zabaltzen dute legalki estatu batzuek norma “eskubide” gisa (Butler, 2006a: 153).

Iruditegi heterosexual hori desiratzeari eta onartua izateko edo zilegitasun soziala izateko identitate eta jarrera normatiboen ezarpenari homonormatibitatea deritzo. Iruditegi hori hainbat LGTB* taldek onartu eta txalotu badute ere, beste gutxiengo kritiko batek gaitzetsi egin du mendebaldeko balioak eta ondorengotzan oinarritzen den familia eredu nuklearra sustatzen duelako. Lege horiek profil oso heteronormatiboei zuzenduta daude, baztertzailerak izaten jarraitzen dute hortaz, eta LGTB* komunitateen despolitizazioa eta sexualitatea eremu pribatura mugatzea dakartzate (Azpiazu, 2017; Latorre, 2017). Gorputz normala, batik bat, familiaren instituzioaren barruan eraikitzen da, eta ondorioz, erregimen heterosexuala alboratzea erabakitzen denean, kategoria binarioak alboratzeko estrategia politikoetako bat martxan jartzen da. Beraz, disidentzia praktikara eramateko zalantza jarri behar dira heteroaraua bermatzen duten instituzioak, homosexualitatearen izaera esentzialista alboratuz eta identitatea zentzu kolektiboan, eta ez indibidualean, ulertuz. Sozialki inongo errepresentazio sexualik ez duten subjektibitate eta harremantze-moduak erresistenziarako tokiak izan daitezke. Bizitza bizigarriak lortzeko ahaleginek gorputz bat zer den eta zer izan beharko lukeen berrasmatzeko bidea hartu behar dute, desirak eta plazera, eremu erotikoa, fisikoa eta afektiboa erdigunean jarri (Burgos, 2010).

3.3. Perspektibak eta aliantzak

Mugimendu sozialek posizio politiko anitzak izan ditzakete, menderakuntza lerroak berdinak izan arren. Gerard Coll-Planasek (2008) politika homosexualen hiru eredu bereizten ditu: eredu dekadentista, homofilikoa eta landa-eredua.

Eredu dekadentistan dauden disidentzia sexuak sistema normatiboan integratzearen kontra egiten dute bazterrak aldarrikatuz. Eredu honetan bereizi egiten dira

homosexual eta gay eta lesbiana posizioak; lehena subjektu gisa, eta bigarrena jendarte-harremanak aldatzeko aukera zabaltzen duen subjektu politiko gisa:

Gay ez izatea zera da: "nola mugatu ahal izango ditut nire hautu sexualaren ondorioak, nire bizitzan ezer alda ez dadin?". Nik esango nuke: sexualitatea erabili behar da deskubritzeko, harreman berriak asmatzeko. Gay izatea bilakaeran egotea da, eta (...) gehituko dut ez dela homosexuala izan behar, gay izate horretan ernegatu behar da (Foucault Eriboni, 1999: 449).

Coll-Planasek galdera zabaltzen du ea borrokatzeko modu hori egiaz aukera bat den edo kontrara, zapalkuntza homo-transfoboaren ondoriozko inposizioa den. Sheila Jeffreyren (1996) iritziz, homofobia barneratuaren produktu da posizio dekadentista, eta menderakuntzara egokitzeko modu gisa aurkezten du, ahultasun indibiduala eta kolektiboa agerian uzten dituelako. Jean Genetek (1999) aukera/inposaketa eztabaidari heltzen dio, eta baztertu egiten du homofobia barneratuaren argudioa, sistema normatiboak baztertzen duen guztia aldarrikatzen delako eredu horretan, beraz, lotsa baino, harrotasuna litzateke eragiten duena, eta Foucaultekin bat eginez, *bazterrak askatasunean bizitzeko aukera bezala ikusten du, non erresistentzia haien kontra egiten duen boteretik elikatzen den* (Coll-Planas, 2008: 46). Era horretan, leku izango lituzkete autoerrepresentaziorako tokiek bai eta prozesu kolektibo propioen martxan jartzea.

Eredu homofilikoan normaltasuna aldarrikatzen da, integrazioa. Hala ere, posizio hau ez da eraldaketa sozialaren kontrako posizioa Alberto Mirarentzat (2004), ezta kontserbadorea, nahiz eta ez dagoen jarrera akritikorik ordena sozialari dagokionez. Eredu honi dagokionez, bi kritika nabarmendu ditu Coll-Planasek. Alde batetik, "normalitatea" eskatzea menpeko egoera batean jartzen duela normaltasuna aldarrikatzen duen subjektua, onarpena eskatzeko modu bat bezala ikusten baitu (Salas, 2004). Bestetik, integrazio horrek gainontzeko disidentzia sexualen bazterketa ekar dezakeela, normaren oinarritzko legea delako bazterketak eragitea (Butler, 2001 el genero en disputa). Beraz, eredu horretan eredu hegemonikoan leku egitea edo

eskatzea litzateke borrokatzeko forma, eta ez normalitatea zer den eta zer eragiten duen hausnartzea.

Azkenik, landa-ereduan erresistentzia-estrategia ironiaren bitartez ordena soziala zalantzan jartzea da, adibidez genero ezaugarriak esajeratuz eta lumaren erabilera eginez. Genero-rolen trukea da modua sexuaren eta generoaren esentzialismoarekin apurtzeko, aukera berri horiei esanahi berriak emateko eta horietatik borrokatu ahal izateko.

Bai eredu dekadentista, bai landa-eredua queer aktibismoan eta transfeminismoan kokatzen dira. Transfeminismoa feminismoaren hirugarren olatuan eratutako feminismoaren korranteetako bat da. Haren garapenean ezinbestekoak izan dira LGTB* komunitateen eta queer teoriaren ekarpenak. *Trans* aurrizkiak sexu eta genero zapalkuntzen jatorri amankomunak modu transbertsal batean lantzeari egiten dio erreferentzia. Hori dela eta, bere subjektua sistema patriarkalak zapaltzen duen gorputz oro izango da, eta ez soilik emakumea. Horrez gain, begirada interseksionala du ekintzaile antiarrazistek eta teoria poskolonialek egin dituzten lanketak kontuan hartzen dituelako, abiapuntua kritika antikapitalista izanik (Fernández-Garrido, Araneta, 2017). Emi Koyamak (2001) *The Transfeminist Manifesto* idatzi zuenean, trans identitateez gain, manifestu horren parte egin zituen araua urratzen zuten gainontzeko genero transgresioak, “behar bezalakoak” ez ziren gizon eta emakumeak barne. Alde horretatik, ondoren definituko dudana lesbianismo politikoa transfeminismoaren barruan kokatuko litzateke¹⁷.

Lesbianismo politikoa lesbianismoa emakumea derrigorrezko heterosexualitatetik askatzeko aukera bezala aurkezten duen feminismoaren korrantea da, edo Richek (1996) planteatu zuen gisan, sistema heteropatriarkalari aurre egiteko erresistentzia-forma aktiboa. Nagore Garcíak (2017) bere tesian hausnartu du nola Richen erresistentziarako forma hori inflexio puntua izan zen kritika feministarentzat emakumearen irakurketa ez-biktimista ekarri zuelako maitasunari eta heterosexualitateari dagokienez (García, 2017: 30). Lesbianismo politikoak beraz, bi

¹⁷ Eztabaida ugari daude feminismoaren, lesbofeminismoaren eta queer mugimenduaren arteko aliantzen inguruan. Hausnarketa horietako asko *Feminismos lesbianos y queer* (2014) liburuan bildu dira.

abiapuntu ditu: 1) heterosexualitatea erregimen politikoa dela eta 2) sexualitatea eta hari lotutako maitasun ereduak aukeratu daitezkeela. Hala ere, lan honetan bi ezaugarri horiei helduko badiet ere, sexualitatea aukera edo orientazioa den LGTB* eta teoria feministetan oraindik pil-pilean dauden teoriak dira. Azken urteetako sexualitatearen eta desioaren despolitizazio prozesu baten emaitza izan daiteke “aukera sexualaz” ez, eta “orientazio sexualaz” hitz egiten dela.

70. hamarkadan, teoria feminista asko aberastu zuten hainbat testu lesbofeminista idatzi ziren Europan eta Estatu Batuetan zehar, ondorengo belaunaldi feministak elikatzeko balio izan zutenak. Horietako bi jada mintzagai izan ditugun Richen eta Wittigen teoriak dira. Esango nuke, teoria horiek “teoria puruaz” gain, bizitza kolektiborako bidea egiteko proposamen praktikoak ere zabaltzen dituztela. Horren adibideetako bat Charlotte Bunchen (1972) “Lesbians In Revolt” manifestua litzateke. Manifestuan zehar dauden ideien artean, hiru nabarmenduko nituzke: 1) lesbianismoa ez dela orientazio sexual gisa hartzen, baizik eta aukera politiko bezala, 2) lesbianismoaren oinarrian indibidualismoaren eta kapitalismoaren apurketarako konpromisoa dagoela, emakumeen arteko zaintza kolektiboa eta elkar babesa izanik helburua, eta 3) lesbianismoa soilik izan daitekeela iraultzailea marko feminista baten barruan. Lehenengoari dagokionez, abiapuntua da heterosexualitatea erregimen politikoa dela, gizonen eta emakumeen arteko harremanen oinarrian boterea eta menderakuntza dagoelako. Horregatik inziditzen du horrenbeste lesbianismoa eremu pribatura ez mugatzean, horrek emakumeen arteko estrategia eta politiken garapena eragozten duelako. Lesbianismoa hortaz, jendarte patriarkalak emakumeei ezartzen dien rola kontrako matxinada litzateke. Bigarren ideiar helduz, azpimarratzen du lesbianak konpromisoa duela bere buruarekiko eta beste emakumeekiko, eta konpromiso horrek eremu politikoa, emozionala, fisikoa eta ekonomikoa hartzen dituela bere gain. Horrez gain, eremu ez-mistoen beharraz ari da; heterosexualitatearen helburuetako bat emakumeak elkarrengandik aldentzea izan da zapaltzen dituen botere horri aurre egin ahal ez izateko; banaketa historiko hori ahultzeko estrategia da eremu ez-mistoen sorrera. Izan ere, kontzientzia kolektiboa lantzeko espazioak izateaz gain, menderakuntza komuneko gaien inguruan hausnartzeko eta eztabaidatzeko segurtasun-tokiak dira. Hortaz, espazio ez-mistoei

tresnak ematen dituzte identitate politikoak eratzeko eta subjektu politiko bezala identifikatzeko. Hirugarrenik, lesbianek kontzientzia feminista hartzeko beharraz ari da, bai eta feminismoen barruan desheterosexualizazio prozesu kontziente bat hartzeko beharraz.

Azken puntu hori gurera¹⁸ ekarrita, izendapenari dagokionez, “lesbianaren” eta “bolleraren” arteko bereizketa legoke: “emakume homosexual” kontzeptuak – gogoratu dezagun jatorri biomedikoa duen kontzeptua dela– bere sexualitatea politizatu ez duen subjektuari egiten dio erreferentzia, eta “bollera” edo “lesbiana” kontzeptuek¹⁹ sistema heterosexualaren kontra egiten duen subjektuari. Izan ere, harreman lesbikoak izateak ez dio zertan mehatxu egin sistema sozio-ekonomikoari, homosexualitatearen bitartez sistema modu bertsuan erreproduzitzeko aukera (nahiz eta heterosexualekin alderatuz, oraindik bidea korapilatsuagoa izan) dagoelako gure testuinguruan; ezkontzeko aukera badago, eta seme-alabak izatekoa ere bai. Bi eskubide kontserbadore horiekin, estatuak pertsona homosexualen eskubideak bermatuta daudela aldarrikatzen dute, gainontzeko eskaerak (aldarrikapen egunak eta sexualitateak ez merkantilizatzekoa, guraso edo tutoreak etxetik bota dituzten seme-alaba ez-normatiboei harrera etxeak bermatzekoa, ginekologia zerbitzu duina...) bigarren plano batean utziz. Bollerek, aldiz, sistemarentzako emakume ez-funtzional gisa aurkezten dugu geure burua, eta ez-funtzionaltasun horretatik eraikitzen dugu geure identitatea; bollera identitate espezifikoa da, Wittigek esan bezala, ez gara emakumeak, beste subjektibitate politiko bat baizik.

Emakume kategorian ez kokatze horrek edo beste zapalkuntza espezifiko bat pairatzeak, lesbiana kategorian bizitzea den bezala, feminismoen barruan zein kanpoan, haien buruak subjektu politiko horrekin bat egiten duten lesbianen eragin gune politikoa zein izan behar duen hausnartzera darama. Batzuek ez dute beharra ikusten feminismoaren adar espezifiko izan daitekeen feminismo lesbianistan jarduteko, eta mistoetan lanean ari dira. Beste batzuek, LGTB* mugimenduan eragin gehiago izan dezaketela uste dute, eta beste batzuek, ez batean ez bestean,

¹⁸ Euskal Herriko markora, azken hamarkada.

¹⁹ Belaunaldiaren arabera erabiltzen da kontzeptu bate do beste.

errepresentazio zuzenik ez dutela uste dutelako, lesbiana taldeetan antolatzea erabakitzen dute. Euskal Herrian hiru jarrera horiek topa daitezke, eta esan daiteke hiruren artean komunikazioan eta elkarlanean ari direla; *LGTB* plataforma* antikapitalismoa ardatz duten Euskal Herriko LGTB* taldeak biltzen dituen plataforma dugu, 2018tik antolatzen diren Jardunaldi Bizarroetan²⁰ sexu disidentzientzat zuzendutako hausnarketa eta aisialdi eredu feminista zabaltzen da, eta agenda feministak markatzen dituen egunak antolatzeko, talde feminista misto eta lesbianisten arteko komunikazioa bultzatzen da.

²⁰ Jardunaldi bizarroak. Hemendik hartua: <https://jardunaldibizarroak.wordpress.com/>

4. PARTE HARTZE POLITIKOAREN IZAERA

Parte-hartze politikoaz ari garenean, hainbat galdera ikur sortu ahal zaizkigu. Zeri deitzen diogun parte hartze politiko, zeri militantzia, zein eredu den nagusi, zein ekintzek duten balio sozial handiagoa, zelan banatzen diren lanak, zelan hierarkizatzen ditugun lanak garrantzizkoenetan eta zein ikusgarritasun-maila ematen diogun bakoitzari, zein gaitasun baloratzen den gehiago eta zein gutxiago, zein den inplikazio politikoaren helburua, bizitza pribatua militantziaz banatu/ ez banatu eztabaida...

Atal honetan militantzia-eredu tradizionalari feminismoek egin dizkioten kritiketako batzuk mahai-gainean jarriko ditut, ikusteko nola eredu tradizional hori pertsona-profil batentzat soilik eginda dagoen eta ez dion interdependentziaren ideari heltzen eremu pribatua eta publikoa bereizten jarraitzen duelako, eta hortaz, sistema heterosexuala betikotzen. Geroago, “biolentzia sexistaren kontzeptua birpentsatzea II” (Medeak, 2019) ponentzian oinarrituko naiz azaltzeko nola biolentziak hiru ardatzetan eragiten duen eta zer nolako pisua hartzen duen bereizketa sexualak biolentziaren ezarpen horretan. Azkenik, horri aurre egiteko aliantzen eta zubien garrantzia eta erresistentziarako formetan paratuko naiz.

4.1. Parte-hartze politiko tradizionalari kritika feminista

Parte-hartze politikoaren irakurketa androzentrikoak itzaletan utzi ditu instituzionalak edo formalak ez diren parte-hartze moduak. “Propuesta de selección y construcción de un sistema de indicadores de igualdad y no androcéntrico para el municipio de Bilbao” (2009) txostenean azaltzen den bezala, parte-hartze eredu maskulino hori denbora duen subjektuari zuzendua dago, subjektu publikoari. Eredu horrek baztertu egiten ditu egoera prekarioetan dauden subjektibitateak (gazteak, emakumeak, gorputz arrazializatuak, genero eta sexu disidentziak, aniztasun funtzionala dituztenak...), bai eta zaintza lanen zama bere gain hartu dituztenak²¹; hau da, egoera ez-prekarioan eta egoera egonkorrean dauden gizon helduei zuzenduta dago militantzia-eredu

²¹ 2019ko hirugarren lauhilekoan, lan-merkatuan zeuden emakumeen % 74ak lan partziala zuen, gizonen % 26aren aurrean. Emakumeen gehiengoa lan-partzialetan egotearen arrazoi nagusia jardunaldi bikoitza da; hau da, etxetik kanpo lan egiteaz gain, etxeko lan erreproduktiboaz arduratzen den figura izaten jarraitzen du. Hemendik hartua: <https://www.ine.es/>

tradizionala. Hala, eredu horretan integratzeko, denbora horretan egiten ez dena egingo duen *beste* baten beharra sortuko da, *beste* hori historikoki emaztea, ama edo alaba izanik. Beraz, militantzia eredu androzentrikoa bazterketan oinarritzen da eta sistema heterosexuala betikotzen du, bigarren mailako herritarrak sortuz. Hortaz, termino feministetan ez du errotiko aldaketarik eragiten jendartean.

Hala ere, horrek ez du esan nahi *beste* horiek jendartean inolako inplikazio politikorik ez dutenik. Aitzitik, bizitza sostengatzeko politiken inguruan ari garenean, eta batez ere esparru informaletan, emakumeak dira borroka horiek burutzen dituztenak²². Ekarpak feministak bizitzaren sostengarritasuna du helburu politiko eta soziala. Horrek esan nahi du bizitza publikoaren eta pribatuaren artean ezin dela bereizketarik eman biak konektatuta daudelako; batean egiten diren ekintzek bestean eragina dute (Zabala et al, 2009: 43).

Aurreko guztia kontuan hartuz, parte-hartze politikoa tradizionalki ulertu dena (asanblada batean parte-hartzea, manifestuak egitea, mobilizazioetan parte-hartzea...) baino zerbait gehiago ere badela eztabaidatu du Joxemi Zumalabe Fundazioak (2014); kanpora begira egiten diren eginkizunek taldekideen ahalduzko pertsonal eta kolektiboa ekarri beharko luketela esaterako, egiten denaren eta egiteko moduaren artean nolabaiteko koherentzia egon dadin. Zentzu horretan, garrantzia hartzen dute afektibitateak eta emozioek, hau da, prozesuek, eta ulertzea elkarren artean ezberdinak garela eta ditugun baldintza eta baliabideak ezberdinak direla. Horrek ezinbestean askotariko parte-hartze ereduak dakartza, eta horrenbestez ez da hainbeste bizitza pribatutik bereizitako 24 orduko militantzia izango eredu nagusia, baizik eta bizi-eredu eraldaketa dakarren militantzia, gure bizitzetan integratutako borroka forma. Azken bi ikuskera horien arteko ezberdintasuna bereiztea garrantzitsua

²² 2019ko martxoaren 26an, mahai-ingurua antolatu zen Ekozinemaldia jaialdiaren baitan Euskal Herriko eta El Salvadorko emakumeen borroken esperientziak partekatzeko. Bertan, ikusi zen nola naturaren zaintzari dagokionez, emakumeak diren haien gorputzak lehen lerroan jartzen lehenak, eguneroko jardunak zaintza lanetan naturarekiko interdependentziaren kontzientzia ematen baitie. Mahai-ingurua Vidalina Moralesek, Silvia Federicik, Rosa Lagok, Sara Ibañezek eta Estitxu Villamorrek osatu zuten moderatzailea Maite Asensio zela eta Tantaka telebistak jaso zuen: <https://www.tantaka.tv/eu/v/154>

da, disposiziozkoak askotan ez duelako eremu pribatua eremu politiko kontsideratzen eta aldaketak kanpora begirakoak izatera mugatzen dira. Euskal Herriko Mugimendu Feministak azken hiru urteetan antolatu dituen greba masiboak ezbaian utzi dute ordura arte grebak antolatzeko modua: eremu guztietara heldu ez arren, esfortzua egin baita espazioak sortzeko eta era kolektiboan grebak antolatzeko, hala nola, zaintza erdigunean jarriz prozesuan zehar bai eta greba egunetan bertan.

4.2. Biolentzia teknika performatibo gisa

Biolentziaren inguruko eztabaidari heltzeko, dimorfismo politikoa gainditzea beharrezkoa dela izan zen abiapuntua “biolentzia sexistaren kontzeptua birpentsatzea II” (Medeak, 2019) ponentzian, mota horretako eztabaidak antzuak direlako eta ez gaituztelako inolako aliantzetara eramaten, elkarren kontrakoak diren ideietan egituratzen baitira. Biolentziari buruz hitz egiteko emakumeak pairatzen duen biolentziaz gain, beste gorputz batzuek pairatzen duten biolentziari buruz hitz egitea beharrezkoa dela azaldu zen, hala nola, arrazakeriaz, transfobiaz, lesbofobiaz, kapatizismoaz, espezismoaz... eta abiapuntua ez dela biolentzia bai/ biolentzia ez eztabaida, errealtatea hori baino konplexuagoa baita. Goikoetxearen teoriarekin bat eginez, ponentzian berretsi zen jendartean sistema heteropatriarkala bermatzea dela biolentziaren eginkizuna, beldurraren bitartez gorputz soziala banatu egiten delako eta horrela sortzen direlako fikzio somatopolitikoak diren “gizon” eta “emakume” eredu hegemonikoak²³.

Hori gerta dadin, hiru ardatzetan eragiten du biolentziak: sinbolikoan, estrukturalen eta zuzenean (Galtung, 1969). Ideia horiekin, “emakumea” ez duela gorputz baten genitalitateak osatzen adierazi zen, baizik eta gorputz batek beldurrarekin bizitzeko duen patuak, izan ere, emakumea biolentzia eragiteko gaitasunetik desjabetua izan da, eta naturaz ahula dela sinetsarazi. Emakumearen desjabetze hori derrigorrezko heterosexualitatean, maitasun erromantikoan eta edertasun kanonetan gauzatzen eta

²³ Gayle Rubinek (1986) "Emakumeen trafikoa" artikuluan dioenez, gizonak biolentzia pairatzen dute gizon izateko, hau da, indarkeria erabiltzeko; aldiz, emakumearen aurka erabiltzen den indarkeria bikoitza da: alde batetik, emakume izateko biolentzia pairatzen dute (indarkeriaz desjabetzen dituzte), eta, bestetik, subjektuak, gizonak, kontrolatzen duen trafiko-objektu izateko.

naturalizatzen dela azaldu zen, indartsua eta biolentzia izateko aukerra bakarra gizonari emanaz (Esteban, 2011). Biolentziaren eraikuntza kultural horrek biolentziaren errepresentazio bakarra eragin du, gizonek eta estatuek *besteak* menpean izateko erabiltzen dutena hain zuzen. Sistematikoki biolentzia jasaten dutenak *beste* horiek direnez gero, aldarrikatu zen Mugimendu Feministei dagokiela biolentziaren inguruko diskurtsoak artikulatzea biolentziaren teknika performatibo²⁴ birjabetzearen bitartez; biolentziaren gaineko kudeaketa geureganatzen. Birjabetze hori gauzatu nahi bada, biolentziarik gabeko jendarteak helburu dituen etika feminista batean oinarrituta izan beharko litzatekeela argi utzi zen, autozaintza ardatz sinbolikora, estrukturalera eta zuzenera eramanez, modu inteligente batean: aliantzak eta zubiak eratuz.

Biolentziak eragiten duten hiru ardatz horiek Johan Galtung-ek (1969) izendatutako biolentziaren triangelua osatzen dute. Biolentzia zuzena agerikoa den eraso litzateke, biolentzia estrukturala bazterketa, menpekotasuna eta injustizia soziala sortzen duten egoerak dira eta biolentzia sinbolikoa sistema ideologikoen eragiten duten biolentziak dira, biolentzia estrukturala justifikatzen eta zilegi egiten dituztenak, alegia. Luc Reyckle-ren (2001) arabera, biolentzia egoera bat emateko baldintzak honako hauek dira: bi aldeen artean interdependentzia egotea, interdependentzia hori negatiboa izatea, biolentzia erabiltzeko aukera egotea eta aldeek uste izatea biolentzia erabiltzea aukera onena dela kostu-onura terminoetan.

Biolentziarik gabeko bizitzak helburu dituen jendarteaz aritzean, ez da soilik biolentzia zuzenarekin amaitu nahi duen jendarte bati buruz hitz egiten (bake negatiboa), baizik eta biolentzia zuzenaz gain, biolentzia sinbolikoa eta estrukturala ezabatu nahi duen bakeari buruz (bake positiboa). Hortaz, bakearen inguruan hitz egiten denean termino feministetan, biolentziarik gabeko egoera baten inguruan hitz egiten da, eta ez gatazkarik gabeko egoera baten inguruan. Gatazka beharrezkoa da bake positiboa lortzeko, eta hori erresistentzia forma anitzen bitartez lortzen da.

²⁴ Performatibo hitza erabiltzen du biolentziaren errepresentazio bat dagoela adierazteko, hau da, naturala ez dela agerian uzteko.

Erresistentzia formak sistemak ezartzen duen boterearen arabera direla demostratu du historiak; herritarren kontrako bortizkeria zenbat eta handiagoa izan, erresistentzia formak erradikalagoak izango dira. Horren adibide izan dira AEBko politika arrazisten ondorioz, poliziak erail duen George Floyden heriotza gaitzesteko matxinadak, Mexikoko komisaldegi batean bi emakumek jasandako bortxaketak salatzeke iskanbilak edota XX. mendean El Salvadorko herri xeheak sufritu zuen pobrezia eta lurren espropiazioen ondoriozko gerrillen sorrera.

Erresistentzia egiteko formak zelan erabiltzen diren, zatitu egiten dituen taldeak eta, oro har, jendartea, eraso agerikoa denean batez ere. Erresistentziaren eta biolentziaren arteko muga zein den, eraso nondik nora egiten den definitzen du; goitik beherakoa bada, hau da, jendartea prekarizatzeko boterea duen egitura egonkor batetik abiatzen baldin bada, nahiz eta biolentzia zuzenik ez erabili, biolentziaren erabilpena egiten ari da. Aitzitik, eraso behetik gorakoa bada, prekarizazio egoera baten aurrean erantzuteko baldin bada eraso, ez da biolentzia izango, erresistentzia edo defentsa baino, ez dagoelako egiturazko boterea erabiltzeko gaitasunik. Hala ere, erresistentzia modu guztiak ez dute biolentzia zuzenaren erabilpena eskatzen; erresistentzia praktikatzeko modu anitz daude, manifestatzeko modu aktiboak, pasiboak eta sinbolikoak.

Etikak erresistentzia praktikatzeko formak zehazten ditu, erresistentzia biolentzia esplizitutik bereiziz. *Indarkeriarik gabeko erresistentzia asko ez dago pasibotasunarekin lotuta, baizik eta eraso taktika politiko gisa lantzeko moduarekin; beraz, lantzen den erasoak funts etikoa du, eta ez biolentzia* (Butler, 2017: 111). Erresistentzia, askotan desobedientzia zibilarekin lotuta doa, baina zeri deitzen diogu desobedientzia zibila? Desobedientzia zibila jendartearen eraldaketa du helburu, hortaz, elkartasunaren sinonimo bilakatzen da (Hernandez, 2017). Joxemi Zumalabe Fundazioak Bilgune Feministarekin eta beste kolektibo batzuekin elkarlanean, desobedientziaren esanahia zabaltzeko beharraz hausnartu du²⁵. Izan ere, kontzeptu

²⁵Joxemi Zumalabe Fundazioa (2013). Ez obedientziaren alde. Desobeditzen ikasten: esperientzia desobedienteak eta horien ezaugarriak Euskal Herrian azken hamarkadetan

horren inguruan ari garenean legearekin lotzeko tendentzia izaten dugu, legerik gabeko arau sozialak egongo ez balira bezala. Desobedientzia zer den kulturak determinatzen du, subjektuak sortzeko prozesua arau sozialen eta legalen bitartez egiten baita, hau da, domestikazio prozesu baten ondorioz ezartzen da, biolentzia-prozesu baten ondorioz (Foucault, 1981). Hortaz, egunerokotasunean topa daitezkeen arau sozialak urratzea desobedientzia egiteko forma litzateke baita ere, eta horrek zigorrak ekar ditzake.

5. IKERKETAREN HELBURUAK

5.1. Helburu orokorra

Hego Euskal Herriko bollera taldeen testuingurura hurbilpen bat egitea lesbianismo militantzia-ardatz nagusia izateak antolatzeke eta politika egiteko moduetan duen eraginari bereziki erreparatuz eta, era berean, talde hauek beste talde feminista batzuekin dituzten harremanen nolakotasuna aztertzea.

5.2. Helburu espezifikoak

1. Hego Euskal Herriko bollera taldeek mugimendu feministan duten posizioa haien ikuspuntutik aztertzea.
2. Talde feminista batean taldekideen sexualitate lesbikoa publiko egiteak feminismoari egiten dion ekarpena ikusaraztea, eta horrek zein inplikazio eta ondorio dituen analizatzea.
3. Hego Euskal Herrian dauden bollera taldeek sistema neoliberalari aurre egiteko zein erresistentzia estrategia garatzen dituzten jasotzea eta teoria lesbofeministaren eta praktikaren artean sortzen diren tentsioak identifikatzea.
4. Gorputzen berezko zaugarritasunaren gaineko kontzientzia izateak militantziaren eta bizitza pribatuaren arteko bereizketa lausotzen duenez ikertzea.

6. METODOLOGIA

6.1. Erabilitako estrategia eta informazioaren bilkura: baliabideak eta mugak

Ikerketarekin aurrera egiteko, metodologia kualitatiboa aukeratu dugu, bide ematen duelako beste metodologiekin heltzea posible ez den informaziora iristera. Horrela, taldekideek haien ibilbidean izan dituzten bizipenetara, sentrazioetara eta diskurtsoetara hurbilpen bat egin ahal izan dut. Hiru ardatz horiek jasotzeko, bi talde elkarrizketa eta elkarrizketa bat egin ditut.

Asmoa talde-elkarrizketak egitea izan bada ere, kasu denetan ez da posible izan. Posible egitea izan ez den horietan taldeko partaide bati egin diot elkarrizketa. Bestetik, elkarrizketak aurrez aurrekoak izatea lehenetsi dut pantaila bitartez hauteman ezin daitezkeen detaileak kontsideratu nahi izan ditudalako, hala nola, biltzeko tokia, elkarrizketan zehar eman diren eztabaidetan sortu den giroa, edota elkarrizketak baino lehenagoko eta ondorengoko solasaldiak.

Hiru taldetako partaideak elkarrizketatu ditut guztira. Duela aste batzuk atera zuen elkarrizketatu nahi nuen laugarren taldeak haien ibilbideari amaiera emango zion komunikatua, pena handiz baina aurrera jarraitzeko indarrez hartu genuena gutako gehienok. Horregatik eta elkartzeko zailtasunak zirela medio, azken talde horri elkarrizketa egitea ezinezkoa izan zait. Bestalde, talde horiek aukeratu baditut, MALarekin hastean burura etorri zitzaizkidan bollera talde bakarrak izanagatik. Esanguratsua egin zait lau talde horiek Hego Euskal Herriko hiriburuetan dutela eragin gune politikoa eta, orokorrean, belaunaldi zehatz bat biltzen dituzten partaideak direla. Hirizentrismoarekin apurtze prozesu betean nagoen honetan, kontraesanari heldu diot ez dudalako denborarik inbertitu herrietan dagoen lesbianismo politikoaren errealitateari heltzeko. Beraz, talde horiek aukeratzearen arrazoietakoa bat haiek pertsonalki ezagutzeak eta gertutasunak eman didan erosotasuna izan da, baina baita ere belaunaldi bakoitzak militantzia esparru hau nola bizi duen jakin nahi izatea, eta lurraldez lurralde eman daitezkeen bariantzak ezagutu nahi izatea.

Talde elkarrizketak kopuruz txikiak izan dira, 3-4 pertsona artekoak, eta bakoitzak ordu bat eta erdiko iraupena izan du. Banakako elkarrizketak, ordea, 45 minutukoa. Talde elkarrizketen bitartez, elkarrizketan zehar sortu diren eztabaiden, galderen, hitz-jokoen eta konplizitatearen bitartez jaso ahal izan dut zein posiziotik lan egiten duten eta umoreak zein rol duen haien borrokan. Bestalde, desadostasun txikiek eta taldekideetako bati esatea ahaztu zaiona beste batek osatzea, edo azaltzea, haien diskurtsoa “espontaneoki” eraikitzeak aukera zabaldu didate. Izan ere, ez nizkien galderak aurretiaz pasatu. Hortaz, nahiz eta ildo ideologiko bereko taldekideek osatzen dituzten taldeak, haien artean bakoitzak zeri eman dion garrantzia gehien ikusi ahal izan dut, eta baita ere horrek dakarren militantzia bizitzeko sentsazio eta bizipenetan osilazio txikiak antzematera. Banakako elkarrizketa oso bestelakoa izan da. Talde elkarrizketetan bezala, taldekide honekin ere konplizitatea sentitu dut hizkuntza eta kode berdinetan berba egin dugulako. Kasu honetan eztabaidak zuzenean entzuteko aukera izan ez dudan arren, galderak botatzerakoan, elkarrizketatuak planteatutako gaiak taldean eztabaidarik sortu duen edo ez apuntatu dit momentu oro, taldekideen posizio desberdinak era global batean azalduz. Bestalde, galdera batzuei ez erantzutea aukeratu du berak pertsonalki gai batzuk ez dituelako landuak.

Elkarrizketetarako, taldeekin gerturatze bat egin nahi nuen ikerketarekiko nire interesa kolektibizatze eta elkarrizketa eguna horren arrotza izan ez izateko, baina bertan behera utzi behar izan dut ariketa hori bi hilabeteko itxialdia ezarri zigutelako martxoan COVID-19ak eragindako pandemia mundialaren ondorioz. Hala ere, taldekideetako asko aurretiaz ezagutzen nituen hainbat esparrutan kointziditu dugulako edota taldekideak izan ditudalako, elkarrizketatu-elkarrizketatzaile distantzia zentzu horretan horren handia izan ez dela sentitu dut. Bestalde, nire parte-hartzeari dagokionez, ez nuen argi zein rol hartu talde horietako baten partaide naizelako, eta azkenean, zalantzak zalantza, elkarrizketatzaile rola hartzea erabaki dut.

Beldurrak beldur, eroso egin ditut elkarrizketak, eta landa lanaz asko disfrutatu dut. Sentsazio oso polita eragin dit taldekideetako batek gai baten inguruko ezagutza nahikoa izan ez duenean eta beste taldekide batek bere hausnarketa planteatu dionean, lehenengoak bere diskurtsoarekin nola lotu duen eta horri zentzua hartu dionean jarri duen keinuan. Edo, planteatutako zenbait galdera interesgarriak iruditu

zaiela esan didatenean. Iruditu zait jarraitu nahi nuen bidetik gehiegi aldendu ez naizela. Eta zentzu horretan, oso babestua sentitu naiz esperientzi gutxi baitaukat honetan.

Lana amaitzean, nire asmoa da ikerketa talde bakoitzari helaraztea zerbaitek zarata egiten badie edo zerbait oker hartu baldin badut, zuzendu ahal izateko. Bestalde, gustatuko litzaidake lan honek hiru taldeen arteko gerturatze bat egiteko balio izatea, elkarrizketen bitartez haien diskurtsoetara eta praktiketara heltzeko izan dudana aukera aprobetxatuz. Izan ere, marko teorikoa eraikitzeko prozesua, landa lana eta azkenik elkarrizketetatik ateratarako informazio guztia sistematizatzeko prozesua nire kabuz soilik egitea zentzurik ez duela iruditu zait zenbaitetan; hausnarketa asko eta eztabaida asko galdu ditugula era kolektiboago batean egin ez izanagatik. Baina itxialdiak lehenengo eta denbora faltak ondoren, prozesua nahiko indibiduala bihurtu dute.

Informazioaren analisia

Behin elkarrizketak eginda, talde ezberdinetatik jasotako informazioa sistematizatzea eta erantzunak eta hausnarketak alderatzea izan da ikerketaren oinarria. Hala, marko teorikoan agertu diren ideia batzuk egungo Euskal Herriko testuingurura ekarri ahal izan ditut. Informazioaren sistematizazioa egiteko hurrengo gai nagusiak kontsideratu ditut:

- Bollera identitatea
- Feminismoarekiko posizionamendua eta harremana
- Aliantzak
- Talde barneko zaintza: Gorputza jarri, zaugarritasuna azaleratu. Ereku publiko-pribatuaren arteko tartea lausotzen
- Militantzia esparrua: neoliberalismoaren kontrako praktikak eta mugak

Elkarrizketen gidoia

Elkarrizketa hiru ataletan banatu dut, interesatzen zaidalako talde bakoitzaren ildo politikoa, militantzia eta taldeen kudeaketaren nolakotasunak aztertzea, hortik gai jakin batzuei heltzeko (ikus ERANSKINA I). Oro har, gidoia zurruna izan da, baina

galdera berberak norabide ezberdinak edo fokua objektu desberdinetara jartzea eraman naute. Elkarrizketan zehar egin diren gidoi-aldaketa apurrak taldekideen erantzunei jarraitzeko helburuaz egin ditut.

6.2. Talde elkarrizketatuak: Bollera talde lokala 1, Bollera talde lokala 2 eta Talde transfeminista lokala

Bollera talde lokala 1

Talde hau duela 7 urte sortu zen taldea dugu. Auzoko taberna bateko terrazan bildu gara taldekideetako 3 eta ni elkarrizketari ekiteko. Indar polizialak orokorrean baino zuhurrago daudenez auzotik, ezin izan ditugu plazako eskailerak hartu eta bertan elkarrizketa egin infusioak eta garagardoa eta ura edan bitartean. Pixkanaka betetzen doa plaza arratsaldeko 17:00ak pasatxo: nerabe batzuk jesarrita dauden banku batetik helarazten zaigu reggaetoia, umeak olgetan, poteo ordua, ohikoak diren sirena hotsak, anbulantziaren bat tarteka...

Egunean jarri gara. Koarentenan nahiz eta taldekideen artean kontaktua eta harremana egon den, taldea ez da bereziki aktibo egon, baina uda osterako gauzak lotzen ari dira jada. Elkarrizketarekin hasi gara, eta esan didatenez, 2013an sortu zuten taldea Jardunaldi Lesbianista batzuen ostean, bertan sortu zen *rollo ona* eta energiak aprobetxatuz. Hasieran, taldea elkarte desberdinetan parte-hartzen zuten lesbianak biltzen zituen elkartean elkarte bat bazen ere, indibidualki parte hartzen zuenik ere bazegoen. Taldekideen esanetan, *Talde honek erantzuna ematen dio feminismo lesbiko/bolleroari, diferentziatzeko egiten duten feminismoari, edo diferentziatzeko baino, feminismo ezberdin bat egiteko.*

Bollera talde lokala 2

Bi taldekideen etxean bildu gara, eta auzoa hobeto ezagutzeko egun pare bat pasatzera gonbidatu naute. Egongela batean egin dugu elkarrizketa, sofa bik eta aulki batek inguratzen duten mahaitxo baten gainean utzi ahal izan dut utzi didaten grabagailua. Taldeko lau etorri ahal izan dira gaurkoan, eta gustura batean egon gara solasean.

Taldea iaz sortu zuten, apirilaren 26an, Ikusgarritasun Lesbikoaren Nazioarteko Eguna²⁶ aitzaki hartuta. Taldea sortu baino lehen, beste kolektibo batzuetako kideak zirela esan didate, eta beste espazio batzuetatik elkar ezagutzetik lagun izatera pasa zirenez gero, ikusten zuten Mugimendu Feministan zerbait egiteko beharra zutela, *pixkat zulo hori betetzeko*. Horrela antolatu egin ziren eta sortu zuten taldea. Baina, publiko egin baino lehen, 6 hilabete igaro zituzten hausnarrean, taldeko ezaugarriak eta lanketa ildoak zehazte aldera. Egunera arte, haien hirian gauza dezente egin dituzte, bai eta Jardunaldi Feministetan parte hartu.

Talde transfeminista lokala

Duela hiru urte hirian zeuden bi bollera taldea batu ziren bakarra sortzeko. Ikusi zuten nola talde batean 2 pertsona aktibo egonda eta bestean 3, batzean, indar gehiago lortu ahal zutela. Itxialdian, online bidezko barne-hausnarketak egiteko tarteak izan zuten eta dokumentu batean dena biltzeko ardura hartu zuten. Horietako hausnarketa asko elkarrizketako galderari erantzuna ematen lagundu diote elkarrizketatu dutan taldekideari. Uda garaia dela eta, ezinezkoa izan baita talde-elkarrizketa egitea, beraz, taldekide bakarra elkarrizketatu ahal izan dut.

Parke batean bildu gara aurrez aurreko elkarrizketa egiteko, bisitan dagoen bere lagun batekin batera. Elkarrizketa amaitutakoan, solasean geratu gara hirurak, elkarrizketan zehar irten diren ideia batzuen inguruan hausnartzen eta egungo testuingurua komentatzen. Haize freskoak lekua uztera gonbidatu gaitu.

²⁶ Argentinan Ikusgarritasun Lesbikoaren Nazioarteko Eguna martxoaren 7an da, eraso lesbofobo baten ondorioz, 2010ean erail zuten Pepa Gaitán-en omenez.

7. HEGO EUSKAL HERRIKO BOLLERA TALDEEN NOLAKOTASUNAK EGUNGO

TESTUINGURUAN

7.1. Bollera identitatea

Identitatea praktika multzo bezala azaldu zigun Butlerrek (2007), zeinak Beauvoirreren (2019) teoria hartuz eta hari buelta emanaz, sexu eta generoaren arteko bereizketa irauli zuen performatibitatearen teoriaren bitartez. Lehenago aipatu bezala, matrize heterosexuala legoke jendartea kategoriatan bitarretan sailkatzearen interes horretan, horren bitartez soilik lor daitezke ordena soziala bermatzeko elkarrengandik bereizitako kategoriatan finkoak. Butlerren planteamendu posestrukturalista horretan, hortaz, sexualitatea ere praktika multzoa litzateke, performatibitatearen bidez kategoriatan bitarrekin amaitzeko eta identitate politikoak eratzeko gai litzakeena.

Feminismoen barna, oraindik ere eztabaidagai dira sexu, genero eta sexualitatearen artean eman diren hausnarketa ezberdinak; batzuek biologizismoa oinarri hartuta, sexualitatea jaiotzetik datorren desira-multzo bezala aurkezten dute, emantzipaziorako aukera izan daitekeen agentzia sexualaren existentzia ezeztatuz. Besteek, ordea, sexualitatea praktika multzo bezala ulertzen dutenez gero, aukeratu daitekeen identitate estrategiko bezala bizi dute.

Nire intereseko gai izan da Hego Euskal Herrian dauden bollera talde antolatuek lesbianismoa nola bizi duten aztertzea ikerketa honi abiapuntua emateko. Elkarrizketatu ditudan hiru kasuetan posizionamendu biologizista alboratu dute, *bollera* identitate bat dela eta bizitzeko forma normatiboa hausten duen hautu politikoa dela argudiatuz. Normatibitate horri aurre egiteko, bollera identitatea disidentzia batean kokatzen du *Bollera talde lokala 1* taldeak, betiere pentsamendu feminista baten filosofiari²⁷ jarraitzen diona. Hortaz, bollera identitatea bilakatze bat izango da, desira sexuala berreraikitzeaz gain, egunerokotasunari lotutako bizitza indibidual horri beste dimentsio bat emango diona izaera kolektibo batetik:

²⁷ Elkarrizketetan zehar ikusiko da Hego Euskal Herriko testuinguruan, transfeminismoa dutela oinarri bollera taldeek.

...ez dakit, posizionamendu politiko eta bitala... dugun bizitza sozialean, disidentzia bat bezala... ez dakit zelan esan... bizitza normatiboarekiko disidentzia bat. (Bollera talde lokala 1)

Bai, estatus politiko bat bezala... pentsamendu feminista baten barruan identitate disidente batetik politika egitea. Hori da beti egin izan duguna, identitate ez-estatiko batetik... gustatzen ez zaizkizun gauzak aldatzeko estatus politiko bat, ez duenak soilik disidentzia sexuala barnebiltzen, baizik eta hori inguratzen duen guztia... (Bollera talde lokala 1)

Uste dut bollarak garela ikuspegi feminista dugulako eta mugimendu feministak emon digulako bollera izateko bide hori. Igual ni be ulertzen dut badela mugimendu feministan kokatzeko modu bat... eta feminismoa ulertzeko modu bat ere bai. (Bollera talde lokala 2).

Hasieratik ikusi genuen, o sea, guretzat bollera izatea dela identitatea... Mundua ikustea o munduan egoteko, kokatzeko modu bat zela bollera izatea. Eta elkartu ginen zeren uste genuen identitate estrategiko eta kolektibo bat izan behar zuela, bestela ez zuela ezertarako, bueno ezertarako... ez zuela guztiz balio. Eta hori... haustura bat emateko identitate bat eta logika, eta sistema kapitalista, patriarkal eta hetero honetan... Zeren azkenean uste dugu guztia erregimen heterosexualak zeharkatzen duela. (Bollera talde lokala 2)

Bizitza normatibo horretatik irteteko halabeharrez ikusten du *Bollera talde lokala 2* taldeak erregimen heterosexualari aurre egitea, eta horren barnean sartzen du kapitalismoaren kontrako borroka. Heterosexualitatea denez kapitalismoa bizirauteko hanketako bat, ez da nahikoa praktika sexuala heterosexualakrekin amaitzea normarekin apurtzeko. Hori da, hain zuzen ere, Coll-Planasen (2008) eredu dekadentistan eta landa-ereduan agertzen den bazterren aldarrikapen horri erantzuna ematen diona, munduan egoteko beste modu batzuk asmatzea eta horiek praktikara eramatea.

Sexualitatearen orientazio-hautu gatazka horren inguruan hausnarketa egin dute *Bollera talde lokala 2*-ko kideek. Nahiz eta hasiera batean bollera orientazioa ez zela sinetsi, hitzari adiera berria emateko ariketa egin dute. Horrela, terminoari atera ahal

zitzaion kutsu esentzialista alboratuz eta bazterretako eremu horretan nahita kokatzeko modu bezala ulertuz:

—Eta orain arte gu beti azpimarratzen genuen esaldi bat zen bollera identitatea ez zela orientazio bat, baino azkeneko hausnarketetan egin duguna izan da orientazio hori birsignifikatu eta erabili orientazioa posizionamendu bat bezala, ez? Jarrera disidente bat bezala arau edo hegemonia edo erdigune baten aurrean. Nola mugimendu feministatik bizitzak erdigunera, erdigunera, pixkat erdigunearen kolapsoaren puskatze hori. Nola erdigunetik kanpo edo, nolabait, horrekiko jarrera disidente bat, margenetan egon nahi izate bat, edo aldarrikatzea margenetik apur bat politika.

—Ta orientazioa ez mugatzea zeinekin follatzen dugun, baizik eta guztiarekiko. Bizitzaren aurrean, ez? Kokapen bat... (Bollera talde lokala 2)

Esandakoagatik, heterosexualitatea ez da praktika-multzo huts bezala ulertzen, baizik eta bizitzak arautzen dituen organo gisa. Arautze horren baitan, heterosexualitateak bi gorputz eredu sortzen ditu, emakumearena eta gizonarena, bakoitzari funtzio zehatzak ezarriz. Heterosexualitatea beraz, funtzionatzeko forma bat izango da (Silvestri, 2019) eta emakume kategoria heterosexualitatearen produktu (Wittig, 2017).

7.1.1. Generoa eta identitatea: performance haragituak

Bollera identitateak dakarren performatibitateak ezbaian jartzen ditu sexu eta genero dikotomiek dakartzaten eskema zurrinak. Izan ere, norberarekiko esperimentazio gunea da, besteekin harremantzeko, baina baita ere norberarekiko duen harremana osatzeko bidea zabaltzen duena:

—Nik adibidez... bollerismoak bai eman dit nire gorputza maitatzeko eta nire sexualitate propioa garatzeko aukera. Aurretik, incluso erotismoa ere bizi izan dut bide horretatik, eta orduan bai eman dit munduan egoteko modu bat... baino baita ere zure aldarria bizitzeko beste modu bat. Eta yo sé, que si hubiera sido hetero no hubiera sido así. (Bollera talde lokala 2)

—Niri eman dit aukera berdina nire maskulinitatea garatzeko. Osea, azkenean eh... gaztetan ari zarenean zure identitatea garatzen eta mundu guztiak esaten dizunean marimacho, marimacho, azkenean sinesten duzu. Eta zer egiten duzu? Actuas como un macho y al final te das cuenta que en realid no eres un macho, eres pues otra cosa. Eta bollerismoak laguntzen dizu zure gorputzarekiko lanketa hori egiten de decir, vale sí, parezco una cosa, pero luego yo puedo generar mi forma de ser como yo quiera. Mejor parecer un tío que actuar como un tío. Eso a mí me costó bastante. (Bollera talde lokala 2)

Zentzu horretan, interesgarria suertatzen zait zelan izan daitekeen bollera identitatea jendarteak emakumea jartzen duen biktima kategoriatik askatzeko estrategia; nolabait, gorputzaren kudeaketa libreaki lotutakoa. Besteekin harremanean bizi garenez gero, iruditzen zait norberarekiko beste harreman osasuntsu horrek zerikusia izan dezakeela gizonen eta heterosexualitatearen begiradatik askatzearekin, edo Wittigek iradoki zuen bezala, emakume kategoriatik ihes egiteak dakarren askatasunaren parte dela esperimentatzeko aukera:

Eta gero, nik uste dut ere azkenean bollera izatea dela ere emakume suposatzen duen, bueno, heterosexualitateak dakarren indarkeria guzti horretatik nolabait ihes egiteko eta beste espazio paralelo bat sortzeko estrategia bat edo identitate bat, eta nik uste dut hori ere oso inportantea dela. O sea, ulertzea heterosexualitateak ez duela arautzen bakarrik norekin harremantzen zaren, baizik arautzen duela ere norberak bere buruarekin ze harreman daukan. Nola bollera izateak ere eman ahal duela zure buruarekin bestelako harreman bat izatea. Eta zure posizionamendua ere izatea bestelakoa, ez? (Bollera talde lokala 2)

Emakume kategoriatik uzteak baina, ez du esan nahi gizon bihurtzea denik askapenerako estrategia; bollera bilakatzea emakume eta gizon izateari uztea esan nahi du. Hau da, kategoriatik bitarrak iraultzen dituen posizio batean kokatzea (Wittig, 2017). Zentzu horretan, 70. hamarkadan garatutako teoria lesbianista feministek gaur egun

transfeminismoaren adar sexu-genero disidentean toki dutela esan daiteke, Hego Euskal Herrian oraindik mantendu egiten dutela erro kritiko hori.

Bollerismoa gorputzetik eramandako borroka denez, estetikak eta egunerokotasunak biltzen dituen praktikek zipriztintzen dute. Etengabeko presentzialitateak bollera erresistentziarako gorputz izatera behartzen du, eta identitatea ezin ezkutatze horrek, edo ezkutatatu nahi ez izate horrek zaugarritasun puntu batera darama subjektua. Izan ere, esperimentatzeko askatasunak ez du biolentziatik libratzen, lekuaren arabera, guztiz kontrakoa izan baitaiteke:

—Ni ez naiz bollera bakarrik. Ta badakit, ta nik badaukat nire identitate, pues lodia, edo nire identitate x edo y, ez? Baina nire modua erresistentzia konfrontatzeko da bollera naizela, ze azkenean kolektibotasun horrek ematen dizu indarra ere jarraitzeko eta nik nire bizitzan izan ditut askoz ere esperientzia okerragoak lodia izateagatik bollera izateagatik baino... azkenean nik badakit, aldarrikatzen dut pixka bat hori, Ni noa nire bizarrarekin lanera eta jendeak begiratzen nau. Eta aurre egin behar diet gauza batzuei... azkenean hori militantzia da, nik gutxienez horrela ulertzen dut. Pertsonala politikoa da eta nik hori bai aldarrikatzen dut.... ba, hori, nik bai aldarrikatzen dut pribatutasun horretan barneko militantzia. Beste modu batekoa da, ez du zerikusirik. Baina bai, eta azkenean nik hauekin hitz egiten dudanean askotan esaten diet, bale bai hemen dago militantzia oso intentsoa, baina bizitzea auzo honetan edo edukitzea lan bat que te permita siempre egotea jende berdinarekin, es alturitas, es vivir en alturitas. Gero zoaz mundu errealerara eta ostiatzen zara. Ze ni hemen egon naiteke eroso horrela eserita baina igual ez dakit nun ez. En plan ba hori, noa nire lanera, bertan egiten duela lan jende normalak, militatzen ez duena, bere familia duena, umeak, bere bizitza familia nuklearrean... zero politizatua, zero, ta orduan jende horren aurrean denbora guztian erresistentzia mantentzea edo aldarrikatzea, edo ni ikusgarri egitea, ba bai, nire militantziaren parte kontsideratzen dot.

—Nik adibidez udalekuetan sin tener que abrir la boca y dar ningún discurso... ulertzen dut egiten dudala oso politikoa nire presentzia horrela. Egoteko modua, harremantzeko modua, nire... eta hori, ahoa ireki behar izan gabe. Eta burbuilatik irtetzea..." (Bollera talde lokala 2)

Bollera identitatea presentziaren bitartez erakustea auzi politikoa da emakumeak eratzeko beharrezkoak diren arau guztiei kontra egiten dielako; emakumea izaki sexual bezala ikusgarria baldin bada, izaki sozial bezala ez du inolako ikusgarritasunik. Bollera identitateak mandatu horri aurre egiten dio feminitatearen prototipoa jarraitzen ez duelako. Ariketa horrek bollarak sozialki adiezinak izatea eragiten du, hau da, are ikusezinagoak. Ikusezintasuna, ordea, soziala da, ez bisuala, eta horrek etengabeko erresistentzian egotea eragiten die; konfrontazioa sortzen du normarekiko, zeinak azkenean, identitatearen eraketa artikulatzen duen:

Baina azkenean ere horrek sortzen du pixka bat zure identitatea... yo no soy así porque quiero, eta azkenean esa resistencia y esa, ese enfrentamiento contigo también, te cambia la forma de ser. Ni lehen nintzen oso maja mundu guztiarekin uste nuelako bestela ez nukeela lagunik izango, baina orain ez, maja naiz nire lagunekin, baina lanean naz edozein chorrada moztzen duen bordea. Y me da igual, porque ya lo he cogido como mío... Lehengoan, konfinamenduan egonda, gordafest egin zuten zuzenekoa instagramek, eta tipa batek esaten zuen ponentzian, es necesario que haya más gordas de mala hostia. Porque sino la gorda siempre es simpática, graciosa, la gorda tal, no? Eta nik hori bai aldarrikatu dut pilo bat; las gordas somos bodes porque estamos hasta la seta. Y yo juego un poco ese papel en mi vida fuera de la alturita. Alturitas no, alturitas soy otras cosas, y hago otro papel. (Bollera talde lokala 2)

Goikoetxeak (2015) esan bazala, jendarte patriarkaletan emakumeak otzanak ez izatea bada gatazka, gehituko nuke lesbianismo politikoa gatazka bihurtzen dela; erosotasun gune batetik gorputza gatazkaren lehen lerroan jartzen da, eta sexualitatea emakumeen askapenerako tresnetako bat bihur daiteke kontzientzia feministaren bitartez.

Performatzeak edo gorputza modu aldakor batean bizitzeak, ordea, desoreka dakar. Norbanakoaren zaugarritasunetako bat atxiki egin diote bizitzan zehar izan ditzakegun aldaketek suposatzen duten desorekari; ez soilik desorekek eragin ditzaketen ondorioei, baizik eta desorekan bizitzeko dugun ezaugarriari. Hori dela eta, ezin gara

egoera egonkorretan definitu eta desoreka horrek, gauza materialez gain, identitatea ere zeharka dezake:

—Eta baita ere... o sea, nik bebai lotzen dut apur bat.. orain bururatu zait... orain esan duzuna, horren falta duzunean... ai, ez dakit zelan esan, baina... oreka faltarekin ere, ez? Ezin garela ulertu egoera egonkorretan, ez identitarioak, ez fisikoak, ezebez.

—Beti garela zaugarriak?

—Beti garela zaugarriak, bai. Ze nik ulertzen dut bizitzan denbora guztian daudela aldaketak, eta aldaketa horietan batzuetan egon zaitezkeela fuerte, beste batzuetan ahulago... eta hori be da daukagun zaugarritasun bat. (Bollera talde lokala 1)

Aurreko adibide guztiek, teoria esentzialisten kontra, demostratu egiten dute identitatea aldatzea aukera bat dela; helburu zehatz batzuk lortzeko nahita egin daitekeen ekintza. Burgosek (2019) planteatutakoari jarraiki, desorekan bizitzeak, kontra egiten dio sistema heterosexualak arautzen duen sistema bitar osoari; elkarren kontrakoak diren bi sexu, genero, gaitasun edo errealtate bakarrik existitzen direla defendatzen duen ideia erortzen da, eta agerian uzten du bi mutur horietan dena sailkatzearen atzean dagoena jendartean ordena mantentzea dela; gauzak leku zehatz batean izatea, estanko, gainerako posibilitate guztiak eta errebelatzeko gaitasuna ezkutatzeko.

Bestalde, feminista materialista marxistek enuntziatu bezala, identitatea ezinbesteko tresna da borroka hori artikulatuko duen subjektu politikoa eratzeko:

Bueno, guk hitz egiten genuenean bollera izateari buruz edo lesbiana izateari buruz hitz egiten genuen identitate politiko batetaz eta baita ere subjektu politiko batetaz. Ta azpimarratzen genuen, bueno, antolatu genituen jardunaldi batzuk eta orduan egon ginen honen inguruan solasean, ta ez genuela esentzialismotik... esentzialismotik ihes egin nahi genuela... gehiago zela borroka edo mugimendua artikulatzeko hautatzen genuen subjektua. Baino handikan. Eta izan zen gure artean eztabaida bat zer zen bollera izatea, eta ea identitate bat zen, subjektu politikoa edo estrategia politikoa, ta zein litzatekeen hiru horien arteko diferentzia, ta guk, bueno, ez genekien oso ongi zein zen diferentzia baina jartzen genuen konstruktoan indarra, ta hitz egiten denean askotan

identitatearen inguruan, ba identitatea gorpuzten duzun puntu horretatik, pertsona bezala zeharkatzen zaituena eta erlazio zehatz batetik. Baina subjektu politikoa borrokatik ikusten dugu gehiago, harraminta politiko bezala. (Talde transfeminista lokala)

Emakumea klase politikoa da, baina kasu honetan, askapenerako estrategia ez da klase horren alde borrokatzea, baizik eta hartatik ihes egitea bollera gorputz batera eta bertatik borrokatzea (Wittig, 2017).

7.1.2. Egungo bollera, garai bateko lesbiana feminista: aldaera terminologikoa

Identitatearen izendapena aztertzea nire lehentasunetako bat izan ez bada ere, elkarrizketetan zehar hainbatetan atera den gaietako bat izanik hari heltzea erabaki dut. Sexu eta genero disidentzia tradizioetatik aski ezaguna da lesbiana/gay eta homosexual subjektuen arteko bereizketa egitea. Lehenago aipatu dudan Foucault (1999) ekarriz, batak normarekiko apurketa eta sexualitatearen politizazio bat dakarrelako, eta bigarrenak ez duelako zertan hori bete. Egungo Hego Euskal Herriko testuinguruan, belaunaldiaren arabera, bereizketa hori zaharkitua geratu dela esango nuke, lesbiana feminista zenak orain bollera baitu izena:

Bollera guk erabiltzen dugulako igual gure artean erreferitzeko eta igual identitate politizatu bati buruz, o sea hautu bati buruz. Ez dela hainbeste orientazio sexuala baizik eta hautu sexuala. O sea, erabakimen bat dagoela bollerismoan. Guk hitz egiten dugunean bollerak eta lesbianak, guk bolleran aurreikusten diogula feminista dela, ta lesbiana bat igual ez. O sea.. badakit hori ez dela hola eh, baina guk gure artean erabiltzen ditugula terminologia horiek nolabait ulertzeko. Eta hori, ikusten genuela zela manera bat izateko disidentzia bat jendarte heteronormatibo batean. Ez da bakarrik emakumeekaz liatzen naizela, baizik eta baditudala ere sistema hegemoniko heteropatriarkalaren kontrako praktikak. Hori zen pixkat gure zera. (Talde transfeminista lokala)

Aldaketa hau eman bada²⁸, izan daiteke homosexualitate normatiboena²⁹ garai batean baino onartuagoa dagoelako. Norbatibitateak onarpena dakarrenez, eta onarpenak ikusgarritasuna, normaren kontra egiteko estrategia gisa erabiltzen da bollera hitza gaur egun gure testuinguruan. Hau da, bazterretan dauden errealitateak aldarrikatzeko:

Ta nik uste det ere badela LGTB instituzionalizatu edo asiglatu horretatik... ihes egiteko modu bat zeren.. lesbiana nik uste dot azken urteetan normalizatu dela asko orientazio sexual gisa, ez? Guk erabiltzen dugu bollera (Bollera talde lokala 2)*

Izendapenak izendapen, gai hau atera den bi taldeetan argi dute jerga kontua dela eta adiera ez dela unibertuala. Gainera, izendapenaren erabilera ere estrategikoa izan daitekeela lekuaren arabera:

—Azkenean, nik uste bollera eta lesbiana artean dagoen joko hori dela pixkat segun zuk zerekin nahi duzun jolastu. Eta segun bebai zure ingurua zein dan. O sea, Euskal Herria mailan lesbiana zarela esatea pues igual ez da hainbeste ulertzen, o sea guk ulertzen dogu bollera identitate politiko bezala, ez? Eta lesbiana igual, jende politizatu gabekoa. Baina lesbiana bat politizatu egon daiteke, obviamente. Azkenean da jerga kontua, ez? Bollera hitza. (Bollera talde lokala 2)

—Ganera, lesbofeminismoaren borroka historikoki beharrezkoa izan da ze bestela gu orain ezingo ginatke ibili bollera identitarteari buruz hitz egiten... eta gero ere, segun non zauden. Eta norekin zauden eta zein den zure helburua. Ba herri mugimendu batean non jendeak ulertzen duen bollera zer dakarren atzetik ba erabiliko dut bollera. Baina igual, ez dakit, lanean, o ez dakit nun, ba igual lesbian.

²⁸ Ez dut Euskal Herriko izendapen lesbiko/bolleroaren genealogia bat egin. Hala ere, 80 eta 90. hamarkadetako jardunaldi lesbofeministetako aktetan eta garaiko zenbait militanteekin hitz egin eta gero, lesbiana feminista hitza erabiltzen zela jakin dut oraingo bolleraren esangura bardinarekin. Aldiz, bollera eta tortillera hitzak erabiltzen baziren ere, ez zitzairen inolako balio politikorik ematen. Lesbiana feminista zen lesbiana politikoa, feminismoan bere militantzia eta diskurtsoa kokatzen zituenak.

²⁹ Coll-Planasek Azpiazuren *Ur nahasien erraiak. LGTBI* esperientzia eta politizazioak Hego Euskal Herriko herri mugimenduetan* tesiaren defentsan apuntatu bezala, ez dago normalitate bakarra. Hainbat daude eta haien artean talka egiten dute.

—*Queda más light.*

—*Bestela, jendeak ez du ulertzen hemendik kanpo.*

—*Nik nire lagun heteroei ere esaten diet bollera naizela eta esaten didate, baina hori esaten da?(barreak). (Bollera talde lokala 2)*

Bollera talde lokala 1-ekin gai hau esplizituki irten ez bazen ere, elkarrizketan zehar bollera eta lesbianaren arteko bereizketa egin dute maiz taldekideek, eta noizbait lesbiana politikoari erreferentzia egiteko *bollera* edo *praktika politiko transfeminista* duen lesbiana erabili dute, hau da, talde honetan ere beharrezkoa ikusten dute lesbiana eta bolleraren artean dagoen aldea argitzea.

Egungo testuinguruan bereizketa hau normalizatua dagoen arren, uste dut belaunaldi desberdinetako bollera edo lesbiana feministekin elkarrizketa bat izatekotan, termino desberdinak erabiliko genituzkeela gauza bera izendatzeko. Horregatik uste dut testuingurua aintzat hartzea eta esanahiari erreparatzea terminoari berari erreparatzea baino interesgarriagoa dela. Horrek ez du baztertzen, ordea, bollera hitzaren aldarrikapena identitate estrategiko gisa, are gehiago, orokortua eta politizatua baldin badago horren erabilera antolatuta dauden subjektuen artean.

7.2. Feminismoarekiko posizionamendua eta harremana

Ikusienez, bolleraren identitatea kontzientzia feminista bati lotutako posizionamendu politiko-korporala da. Hala ere, feminismoa eremu oso zabalaenez, feminismoen barruan talde hauek transfeminismoan kokatzen direla nabarmentzekoa da; bai sexu/genero dikotomien apurketari dagokienez, bai mugen dakarten trans-migrante subjektibitatei hurbilketari dagokienez. Batez ere lehenak euskal Herriko feminismo klasikoaren barruan gertatzen ari diren zatiketetan posizionamendu bat izatea suposatzen die. Izan ere, borrokaren subjektua ez da soilik emakumea izango, baizik eta heteropatriarkatuak zapaltzen duen korporalitate oro. Aliantzen atalean ikusiko da honek duen eragina. Bestalde, transfeminismoaren barrenean subjektibitate aniztasun horretan borroka espezifikoak bolleraren identitate gorpuztutakoa litzateke:

Guk transfeminismoan lan egiten dugu eta ez dugu hainbeste hitz egiten lesbianein buruz, bai taldean gauzen guztiak bollerak garelako eta uste dugula transfeminismoan barrenean hori dela gure subjektua edo, baina bai argi daukagu gure borrokaren subjektu guztiak liratekeela gizon cis heterosexuak ez diren horiek, o sea, uste dugu handik artikulatu behar dela borroka, baino aldi berean, nola gu zeharkatzen gaituen praktika eta identitatea eta hautuaenez bollerismoa, ba lan egiten dugu bollerismotik. Baina horrek ez du esan nahi lesbianismoan ikusten dugunik ez dakit ze askapen, lesbianismoaren erromantizazio klasiko horretan edo era esentzialista batean, baizik eta heteroarauari intsumisioz eraikitzen diren beste identitate guztiak barnebiltzen ditugu. (Taldea transfeminista lokala)

Gizon eta emakume baten arteko derrigorrezko harremana sexuala den heinean, lesbiana edo emakume homosexual batek soilik bere praktika sexualagatik, ez du Patemanek (2018) izendatutako *kontratu sexuala* betetzen. Lesbiana erregimen heterosexuagatik at geratzen da uko egiten diolako bi espazioak bereizteko beharrezko baldintza den gizon batekin bizi-proiektu bat izateari, nahiz eta gero bere bizitza heteroarauaren barna garatu; ez du bere zapalkuntzaren alde egiten. Zentzu horretan, sexualitate lesbikoak egitura patriarkal bidimentsionagatik askatzen lagun diezaiotke emakumeari, Ritchek (1996) eta Wittigek (2017) teorizatu bezala. Beste zapalkuntza eta hierarkia batzuk sortuko ditu, baina ez du banaketa sexualaren birproduktzioan

parte hartuko. Hala ere, horrekin nahikoa ez, eta ordena soziala errotik apurtzeko eta iruditegi heterosexuala desiratzeari uzteko, lesbianek filosofia feminista kritikoa izatea ezinbesteko baldintza da. Hori horrela, uste dut bollera taldeetan ez dela sexualitateak duen potentzialitate hori behar bezala baloratzen, eta askoz gehiago exijitzen zaiola lesbiana bati heterosexual bati baino.

Erabat partekatzen dut lesbiana talde askok duten oinarri esentzialistak sexualitateak duen dimentsio politikoa ezabatzen duela, eta sistema heterosexualak zapaltzen dituen beste subjektibitate eta pertsonetikiko bazterketak betikitzen dituela. Lesbianismo klasikoa, ordea, ez nuke esango inondik inora adar horretatik elikatzen denik, guztiz kontrakoa; lesbiana bilakatze batean oinarritzen da. Erromantizazio bat dago, nik neuk bollera gisa dudala onartzen dudana, baina perspektiba eta kritika galdu gabe, beharrezkoa deritzodana, utopia borrokak artikulatzeko lehen pausua delako.

Feminismoaren barruko adar ideologikoekin jarraitzeko, aipatu behar da feminismoak dauden bezala, transfeminismoak ere daudela. Transfeminismoen barna egoteak ikuspuntu kritiko bat eskatzen die taldeei praktikaren konplexutasunari dagokionez:

Bai, eta egia da ideologikoki transfeminismoan kokatzen garela, baina egia da ere ez dugula transfeminista kontsideratzen den edozer egiten, edo transfeminismoaren barruan egon daitekeen edozer egiten. (Bollera talde lokala 1)

Bollera talde lokala 2 taldean ez da transfeminismoaz hitz egin, baina bai sexu-genero disidentzien espektroan bakoitzaren identitateak nola markatzen duen eta subjektibitate bakoitzaren espezifikotasunek bide estrategikoen eraikuntza zelan baldintzatzen duten:

—Genero disidentzia ere gure aliantzen...

—Espektroa

—Aliantzen espektroa, no? Zentzu batean, emakume espektroa den bezela. Baina gero hor barruan uste dut bai, como borroka feministan espezifikoki posizionamendua dugula, sexu-genero disidentzian ere bollerismoak markatzen duela espezifikoki. Marika bat sexu-genero disidentzia da, bollera bat sexu-genero disidentzia da, baina

oso diferentea da. Edo trans gorputz bat. Oso diferentea dela hor ere. Orduan, nik uste dut ere, sexu-genero disidentzia erabiltzen dugula espektroari buruz hitz egiteko edo zabalago edo bariantzen familian, baina gero markatzen duela zehazki... bueno, bizipen bat baino gehiago, estrategia bat nik esango nuke. Ze bizipenak bakoitzak oso desberdinak dauzka, ez? Bollerismoaren barruan ere. (Bollera talde lokala 2)

Sexu eta genero disidentzien barna dagoen subjektibitate aniztasunak subjektua begirada konplexuago baten bitartez aditzeko ariketa eskatzen du; bakoitzaren espezifitateek errealitate, bizipen, pribilegio eta biolentzia desberdinak dakartzatelako.

7.2.1. Bollerak haien kabuz antolatzearen garrantzia

Hiru taldeek bat egiten dute esatean bollera identitateari lotutako talde horietan jarduteko behar hori Mugimendu Feministan topatu duten errepresentazio ezaren ondorio izan dela. Izan ere, haien aldarriak historikoki bigarren mailakoak direla sentitu izan dute:

MugimenduFeministan azkenean, eta ulertzen dut eh, priorizatu dira beste hausnarketa batzuk eta beste gauza batzuk eta sistema heterosexuala utzi da pixkat alde batera, ez? Eta nik uste bollerismoak ekarpen hori egin dezakeela beste askorekin batera. Azkenean barnebiltzen dira gauza pilo bat ez? Baina bueno, sistema heterosexularekin apurketa hori guk sartu... bueno sartu... ez dakit nola esan. (Bollera talde lokala 2)

Emakume homosexualen errepresentazio eza historikoki LGBT* Mugimenduan ere ezaguna izan den arren³⁰, Mugimendu Feministak izan duen hutsunea azpimarratu izana pentsatzera eramaten nau talde guztietan oinarri feminista ezinbestekoa dela borrokak zentzu bat izan dezan. Bestalde, haien kabuz antolatu izanari esker, Mugimendu Feministan lehentasunik ez duten edo hausnarketa sakonik ez duten gaiak landu ahal izan dituzte: bollera izateari buruz, pribilegio zuriari buruz, orientazio eta desirari buruz eta gorputzen merkantilizazioari eta asimilazionismoari buruz.

³⁰ Euskal Herriko testuinguruan ere bai. ESAMeko lehenengo dossier lesbianistan hala adierazi zuten garai horretan antolatutako lesbiana feministek.

Errepresentazio eza horren atzean emakume identitatearen krisia dago. Nahiz eta pentsaera feministari egin dion ekarpenari ez zaion behar bezalako aitortpena eman, Wittigen pentsaera oraindik bizirik dago, eta lesbiana edo bollera bat emakume subjektibitate horretatik kanpo dagoen beste subjektibitate bat dela aldarrikatzen jarraitzen da. Horrek azalduko luke borroka paraleloak eramateko arrazoietako bat:

Errepresentazio gatazka edo holako zerbait da... feminismo hegemonikoak, nolabait esatearren, mmm bueno, ni pertsonalki ez naiz bat ere errerepresentatua sentitzen feminismo horretan. Orduan, da gehiago gure, ez dakit behar edo desiretatik, baina hortik inzidentzia egiteko behar hori eta gauzak egiteko modu hori. Da planteatzea zerk daukan garrantzia, zerk ez, non jartzen den fokua, eta zelan egiten diren irakurketak ere bai, ez dakit... ze azkenean, niri emakume kontzeptuak, pertsonalki, ez nau bape zeharkatzen... Asanblada orokor batean, ez dakit zenbat pertsona geunden, emakumeak eta bollerak, eta batek esan zuen "bueno hemen biltzen gaituenak..." eta atera behar genuen gu guztiok zeharkatzen gintuen gai bat, eta batek esan zuen indarkeria matxista zela gaia. Ba, niri ez dit zeharkatzen, o sea, zeharkatu ahal nau, baina nire bizitzan bigarren mailakoa da, ez da zentrala. Eta mahai gainean jartzen duzu eta zalantzan jartzen dizute, azaltzen incluso. (Bollera talde lokala 1)

Emakumea eta bollera identitate desbertinak direla partekatzen dudan arren, ez nuke esango bollera indarkeria matxistatik libratzen denik, baina egia da emakume heterosexual batek eta bollera batek jasotzen duten indarkeria matxistak oso bestelakoak direla. Bollera identitateak besteekiko eta bere buruarekiko sortu dezakeen harremanak biolentzia asko jasotzetik libra diezaioke, baina biolentzia estrukturala jasotzetik ez du askatzen. Horregatik aipatzen du bere egunerokotasunean bigarren mailakoa dela errealitate hori. Are gehiago, egunera arte, bai mugimendu sozialetatik, bai instituzioetatik emakume cis eta heterosexualen kontrako indarkeriaren kontrako lanketetan jarri direnean indar guztiak.

Errepresentazio eza horren beste arrazoi nagusietako bat feminismo heterosexualak lan-lerroak markatzerako orduan izan duen sexualitatearekiko ahanztura da. Sexualitatearekiko ahanzturak heterosexualitatearen unibertsaltasunaren ideiar

erantzuten dio, horregatik ez du aipatua izateko beharrik; kolorearekin gertatzen den bezala, neutroa da arau baten barna, *bestea* sortzeko eta markatzeko premiazkoa:

Baina es que igual talde feminista normalak dira talde hetero feministak. Eta ez diote euren buruari izen hori jartzen. Baina praktikan hori dira, ta neutrotzat dute euren burua baina ez dute hori ematen, ematen dute guk dugula bereizgarria baino iruditzen zait besteak direla neutro horren aitzakipean norma segitzen dutenak. (Taldea transfeminista lokala)

Azkenean nik uste dut feminismo tradizionalena patriarkatuaren egitura handienetako hori ahaztu duela: sexualitatearen parte. Parte biologikoa edo sexuala erabat ahaztu du, edo estankoezia izan da. Nahiz eta hasieratik izan den aldarrikapenetako bat, nik uste dut patriarkatua gailentzen den parte hori bigarren mailakoa izan dela, orduan, zu zauden edo identifikatuta sentitzen zaren edo borroka egiten duzun mugimendua bera patriarkatuaren aurka borrokatzeko hain garrantzitsua den alderdi hori bigarren mailako aldarrikapena dela eta erabat ahaztuta duela sentitzea, abortuaren, antisorgailuen eta abarren kasuan heterosexualitateaz hitz egiten den kasuak kenduta. Gainera, diskurtso hori medikuntza tradizionalari lotuta dago... baina hori, beti daudela aitorenpenik ez duten parteak, eta ez aldarrikatu edo borrokatu ez direlako, baizik eta aitortu nahi izan ez direlako. (Bollera talde lokala 1)

...ez dela gu askatzeko, ez? Gu bakarrik askatzeko borroka bat. Erregimen heterosexuala guztiontzat da indarkeria. Indarkeria suposatzen du, inkluso askotan ematen du ditugula gai konkretu batzuk zeren guri bakarrik eragiten digute, sexualitatea bezala, edo gorputzak, Mugimendu Feministan da como "sexualitatea eta gorputzak": bollerak. Ta, es como, a ver, zuk ez daukazu? (Bollera talde lokala 2)

Pentsamendu heterosexualari diferentzia antolatzeke boterea ematen zaio, eta diferentziak mahai gainean jartzen duen lehenengo auzia *diferenteak zerekiko* litzateke. Bereizketa horrek markatzen du norma (Silvestri, 2019).

Elkarrizketetan zehar irten egin da heteronormatibitatearen kontrako borroka ez dela izan mugimendu feministaren lehentasunetako bat sexualitatea ez delako eremu publikora eraman kasu zehatz batzuetan salbu, eta ondorioz, nolabait, baztertu egin

direla lesbianen eta bolleren aldarrikapenak. Aldarrikapen horiek, ordea, Mugimendu Feminista hegemonikoaren aldarrikapen historikoei irakurketa sakonagoak eman ahal dizkietela adierazi didate, eta aldarrikapen horiek ulertzeko eta horien alde borrokatzeko eszenategi zabalagoa ekarri ahal dietela:

Lesbianen ikuspuntua ez, bollarena sartzan dugunean... nik uste dut feminismoen barruan beti izango dugula pentsamendu hegemonikoarekiko postura diskordanteago bat, eta gure irakurketak izango direla erradikalagoak edo konplexuagoak zentzu askotan... Adibidez, genero indarkeriaren inguruko analisi bat egiten dugunean, ez dugu heterosexualek egiten duten analisi berbera egiten, edo abortuaren inguruan ari garenean, edo amatasunaren inguruan... eta horrek zerikusia du termino berdinetan ez dugulako hitz egiten. (Bollera talde lokala 1)

Bolleren analisisiek duten konplexutasun hori zor zaio feminismo heterosexualek erregimen heterosexualari egiten ez dioten interpelazioa gehitzen zaielako, horregatik nabarmentzen dute *Bollera talde lokala 1*-eko kideek termino desberdinetan mintzatzen direla:

...bai, da como que ez dela aitortzen heterosexualitatea dela sistema normatiboaren parte, kapitalismoaren oinarria, o sea, da borrokatzen dugun guztiaren kontrakoa eta guzti hori sostengatzen duen oinarrietako bat, eta feminismo hegemonikotik erasotzen ez dena. (Bollera talde lokala 1)

7.2.2. Sistema heterosexuala: formula bitarra betikitzen

Honezkero, agerian geratu da feminismo heterosexualetan heterosexualaren esanahira jotzen ez denez, erregimen heterosexualak sortu dituen banaketa historikoetako bat, banaketa sexuala, betikitzen jarraitzen dela, nahiz eta diskurtsiboki horren kontra egon. Borroka bolleroan edo lesbianista feministan, sexualitatea eremu pribatuko auzi izatetik maila politikora pasatzen denez, –erregimen heterosexualaren kontrako borroka da kolektiboki antolatzearen arrazoia disidentzia sexual baten baitan– dimorfismo horrekiko haustura zuzena ematen da; pribatuak ezkutuki

bizitzeari uzten dio eta publikoarekiko duen aldea lausotzen da. Geroago aztertuko dudanez, hori ikusi egingo da talde barnean ematen diren praktiketan:

Eta nik uste dut ere oso interesgarria dela pertsonala politikoa dela premisa hori ulertzeko. O sea, zer gaude esaten pertsonala politikoa dela esaten ari garenean? Eta nondikan hitz egiten dugun.... ematen diola bastante erradikaltasuna. O sea, diskurtso oso erradikal bat jotzen duelako errara, eta como erro hori hasten dela gure bizipen pertsonal horiek nolabait plano politikora eroaten... azkenean dela diskurtso bat jende batentzat igual, sin más, iruditzen zaiela oso espezifikoa, baina jotzen duela guztiz erroetara. Eta dagoela erroko analisi bat eta ganera gorpuztua. (Bollera talde lokala 2)

Ez dela gure... ez dela zerbait isolatua, ez da zerbait sektoriala... denontzat dela, da borroka uste dut transbertsal bat, ez interklasista, argi geratu daitela (barreak). Transbertsala esan nahi dut. (Bollera talde lokala 2)

Mugimendu Feministaren lehentasunek sexualitatea ez zeharkatzeaz gain, bollerismoak egin dituen proposamenak kontsideratzeko erresistentziak existitzen direla agerian utzi dute hiru taldeek, batzuek beste batzuek baino konbentzituago. Zentzu horretan, *Talde transfeminista lokala-k* eta *Bollera talde lokala 1-ek* diskurtsiboki zerbait aurreratu dela adierazi dute, orain behintzat aipamena egiten zaiolako heteroarauari, baina praktikoki ez dela ezer aurreratu:

Joe ez, mahai gainean jarri eta ikusi zan super argi Bollera Talde lokala 1-ek esan zutenean jardunaldietan “¿puedes ser feminista y heterosexual?” Hubo ahí 5 segundos de pspsps, que es como, a ver ulertu behar dugu, bueno ulertu, heterosexualitatea zer den eta heterosexualitatea esaten dugunean zer esan nahi dugun, o sea, ez gaude ari kritikatzeko que folles con x o con y. (Bollera talde lokala 2)

...ikusita zeintzuk izan diren azkeneko gauza potenteak... bat abortua. Ta hor kontuan izanda, zenbat bollera egon dira abortatzeko eskubidea aldarrikatzen ez denean gure lehentasunetako bat edo... bai.. uste dut ez direla uztartu batzutan. Ta heteroarauarena bai pentsatzen dut azkeneko urtetan sartu dela baina era diskurtsiboan, baina gero ez dela deus antolatzen, ez da manifa nazional bat heteroaraua zalantzan jartzeko edo ez

da egon jardunaldi ez dakit zer, ez da egon praktika zehatz bat horren inguruan. Igual teorikoki aurreratu da hortan baina ez zait iruditzen, pertsonalki, hau ez dugu hitz egin asanbladan, baina egin denik holako salto praktiko bat. Egia da aipatzen dela irakurketa guztietan eta politikoki zuzena dela zentzu hortan, baina ez dakit gero zein puntutaraino den hori errealitate bat eta zein puntutara arte Euskal Herriko Mugimendu Feminista osatzen dugun emakume asterisko, bollera, pertsonok, o x-ek, ez dakit nola esan, ez dakit noraino gauden heteroaraua zalantzan jartzen gure egunerokotasunean. (Talde transfeminista lokala)

Diskurtsotik praktikara daukagun gatazka eternala da. Gaitasuna daukagu intelektualetik edo diskurtsotik aldarrikapen batzuk asimilatzeke, izendatu daitezkeenak antikapitalistak, antiarrazistak, heteropatriarkatua esatea, neoliberalismoa... agian guk be egiten dugu, baina hori, feminismo hegemonikoak diskurtso bat inkorporatu du, eduki gutxi duena eta praktikatik ezer ez duena... heteropatriarkatu esaten den arren, ba ez da heterosexualitate normatiboaren kontrako alternatibarik pentsatzen... eta oztopoa da denera esaten dutela baietz, heterosexualitatea gora, heteroaraua behera, ezarritako araua dela etab, etab. Denari esaten diotela baietz, baina errealitatean ezezkoa dela. (Bollera talde lokala 1)

Beraz, egia da existitzen dela heteroarauari kritika bat, baina kritika ez dela sekula gorpuztu, nahiz eta hasieran beti dagoen horretarako prestutasuna eta Mugimendu Feministan lesbiana asko egon. Horrek esan nahi du talde feminista antolatuetan dauden lesbianetako askok ez dutela haien sexualitatea maila politikora eraman, ez dutela publiko egin. Subjektu politiko lesbikoarekin ez identifikatzea eta bertatik borrokatzeko beharizan hori ez izatea, lesbofobia barneratuak eragindako gutxiespeneztat jotzen dute *Bollera talde lokala 1*-eko kideek:

Bai, bai... baina gainera kuriooa da diskurtso bakarra gailentzea, zu joaten zinelako asanblada batera, eta ez dut esango noiz, baina bertako % 75a lesbianak ziren. Baina denbora osoa pasatzen zuten besteari buruz hitz egiten termino... ez dakit, termino oso akademikoetan, ez? Diskurtsoan gorputza jarri gabe bezala. Bai, ildo ideologikoa heterosexuala da zalantza barik. Feminismo heterosexuala... bai, nik uste dut errealitatean lesbofobia dezente dugula barneratuta gutako bakoitzak. Uste dut nahiko

lesbofobia den ez-onarpen puntu bat dagoela, beti sentitzen garela gutxiago, horren inportantea ez dela... (Bollera talde lokala 1)

Beraz, sexualitatea politiko egiteak norberaren zaugarritasuna era kontziente batean publiko egitearen ariketa eskatzen du, horrek ekar dezakeen biolentzia guztiarekin. Izan ere, literalki, gorputz propioa jartzen da diskurtsoan:

Gero, badago beste auzi bat, identitate politikoa den, ez den... bai... eta hori be bada disidentzia bastante fuertea ez? XXI. mendean egon arren, testuinguru honetan eta hau guztia. Orduan klaro, ez dakit zein puntura arte garen kontzienteak, baina izan behar duzu, ez dakit, ausardia, ez? Gorputza jartzen duzunean esponitzen zara, ez? Askoz gehiago azaleratzen zara ez dakit zein teoriari buruz hitz egiten duzunean baino, ez dakit ausardia den hitza, baina bueno, zaugarritasun hori azalaratzea. Hori egiteko prest egon behar duzu... honekin lotuz, Bollera talde lokala 1-eko kide batek noizbait komentatu du (barreak), lesbianismoa ere espazio pribatutik ateratzeko ariketa hori, ez? Eta hori da identitate politikoa ez? Pixka bat apurtzea bi espazio horiekin. (Bollera talde lokala 1)

Jardunaldi Feministetan *Bollera talde lokala 1*-ek hainbat proposamen bota zituen maila indibidualean zein kolektiboan sexualitatea politizatzeke ariketa hori sustatze asmoz. Horietako bat izan zen desira sexuala aldatzeko kontzientzia piztea. Oraingoan, gehitu dute desheterosexualizazio prozesu baten beharra, zeinak desira sexualaz gain, bizi- eta harremantze-ereduaren aldaketa bat eskatzen dituen. Azken hori baita sexualitatea politizatzeak hartzen duen zentzurik handiena. Gainera, ez duelako zentzurik eta energia galera delako haien pribilegioa era gorpuztu batean zalantzan jartzeko asmorik ez duten taldeekin momentu puntualetan elkarlanean ibiltzea, elkarlan horrek ez baitu epe luzerako helbururik. Egun, talde heterosexualek generoaren eta sexualitatearen inguruko gaiak eta problematikak inklusioaren izenean lantzen dituzte, politikoki zuzenak diren egunetako egitarauak betetzeko.

Bestalde, interesgarria egin zait sartzea Pilar Mendibilek *Berria FM* podcast-ean³¹ Mugimendu Feminista eta Mugimendu Bolleroa elkarrizketan jartzeko egindako proposamena, nire ustetan desheterosexualizazio horretan nabarmen lagunduko lukeena: Mugimendu Feministan dauden lesbianen taldeak artikulatzea mugimenduan bertan:

Distantziatik, ikusten dut lesbiana pila bat daudela mugimendu feministan, baina ez dagoela talderik, eta hori, nire arkeologiatik begiratuta, iruditzen zait zerbaiten seinale dela. Arrisku handia dugu pertsonalki ondo bizitzeko gure burbuilan. Baina diskurtso horri ez badiogu aldamiaoa jartzen, sistemak jan egingo gaitu.

Interpelazioak behin baino gehiagotan egin badituzte ere, proposamenak kontsideratzeko erresistentziak bi arrazoi nagusiren ondorioz ematen direla azpimarratu dute. Batetik, feminismo tradizionalan dagoen berrikuspen falta eta bestearen zapalkuntzatik hitz egiteko tendentzia, eta bestetik, diskurtsoak haien artean elkarrizketan eta elkarrengandik ikasten egon beharrean, boteretik egituratzen direla:

Ni heteroarauaren banago, eta inposaketa horretan nagoela onartzen badut, egin behar dudan lehen gauza nire burua errebisatzea da. Hori alde batetik: errebisio falta eta besteen inguruan hitz egitea. Eta gero, badagoela botere diskurtsiboen borroka bat, ez? Nik defendatzen baldin badut feminismo esentzialista bat, hori izango da aplikatu beharko dudana. Hor ezin daiteke inolako errebisiorik egin. Diskurtso diferenteak sortzen ditugu, eta diskurtso horiek ez dute haien artean hitz egiten, ez dute elkarrengandik ikasten... diskurtsoak gailentzen dira. Orduan, kopiatzen dugu sistemak irakasten diguna: nirea da gailentzen dena, eta nirea da feminismo tradizionala eta heterosexuala, eta hortik ez naiz irteten, eta ez naiz irteten nahi ez dudalako. Eta ez dut irten nahi ez nire diskurtsoa politena delako, baizik eta botere egiturak ditugulako gure diskurtsoan; niri deitzen dit irratiak,

³¹ Hemendik hartua: <https://www.berria.eus/paperekoa/1917/010/001/2020-06-28/ikusezin-bainazutik-eta-harro.htm>

telebistak, nik daukat txosna bat... hau da, jendartearekin harremanetan jartzen dizkiguten eta ez ditugula uste dugun botere azpiegiturak. (Bollera talde lokala 1)

Hala ere, urte batzuk atzera zegoen egoerarekin alderatuta, kolektibo bolleroak egotean aurrerapauso handiak ikusi dituzte haien hiriko testuinguruan *Bollera talde lokala 2*-ko kideek, indibidualki biltzen zirenean egitea lortzen ez zituztenak. Izan ere, erreferentziazko talde bat izatea bide ematen die mugimendu feministak agendak egiten dituenen haiek kontuan izateko:

Eta hori, zuk azaldu duzu, hasieran nola hasi ginen, eta ni oroitzen naiz ez genuenean talde hau egiten genuela, ez? Egiten ziren gauza bakoitzetik, bai Mugimendu Feministan, inklusio Maiatzaren 1ean, sartu behar dugu gure diskurtsoa... gure artean hitz egiten espazio informaletan... bestela zaila da, daude mila gauza eta era como gure espezifikotasuna, gure ikuspuntu hori sartzea, guztian, ze guztian sartu dezakegu. Baina zen hori ez, joder, daramagu urte batzuk eta lortu dugu ikusgarritasuna... nik uste dut hori dela kontua kolektibo bat sortzearena: kolektibo bat dago, orduan ya egon behar da. (Bollera talde lokala 2)

Aipatzen duten ikusgarritasun hori Mugimendu Feministan eta Herri Mugimenduan paraleloan lan egitearen ondorioztat hartzen dute:

Bai, eta nik uste dut bisibilitatea eman digula ere egoteak beti. Gu mugimendu feministan gaude, o sea, gaude aktiboki, eta edozer gauza dagoenean gaude. Eta orduan resiprositate hori pues da pixkat que nos dan visibilidad y nos preguntan todo el rato, ¿y ahora qué hacemos? Que es un poco... ¡espabilar! Baina bueno... yo qué sé, behintzat ez dago erresintentziarik, es más eso, daude itxoiten si nos parece bien, no... (Bollera talde lokala 2)

Nik uste dut badela horregatik, ez? Ez gaudelako bakarrik talde honetan, gauzela beste mila tokietan eta pues gure auzoan talde hau izatea dala instrumento bat ere gure diskurtsoa plazaratzeko eta auzoan adibidez askotan ere indibidualki, auzoko militante bezala, baina bollerak izaten jarraitzen dugu. Orduan, zentzu horretan... (Bollera talde lokala 2)

Ikusgarritasuna *ematea* eta *orain zer egingo dugu?* galderekin sentsazioa eman dit jada egituratua dagoen agenda batean integratzen direla bollerren aldarrikapen, hau da, ez dela agenda batera eraikitzen. Beraz, beste lurraldeekiko panoramarekin alderatuta, interes handiagoa dagoela nabari den arren, ez nuke esango feminismo heterosexualetik datorren interesa autokritika gorpuztu batek dakarren aldaketarako beharrianetik datorrenik.

Mugimendu Feministarekiko diskordantziak taldez talde oso aldakorrak direla antzematen da; belaunaldi nagusiagoa osatzen duen eta militantzia arlo honetan ibilbide luzeagoa duten taldeek ikuspegi kritikoagoa dute ibilbide laburragoa eta gazteenak direnek baino. Kontatu dizkidaten esperientzia eta adibideak direla eta, interpretatu dezaket ibilbide luzeena dutenek feminismo heterosexualak agertu duen agenda bateratuarekiko konpromiso falta eta bata bestearen atzetik etorri diren boikoten kumulua eraman diela jarrera kritikoagoa garatzera eta haien jarduera propioa lehenestera. Belaunaldiarena markatzea interesgarria iruditu zait, badagoelako uste orokortu bat esaten duena erradikaltasuna apaltzen doala urteekin, eta errealitate honek premisa horrekin apurtu egiten du. Bestalde, adinez nagusiagoak izatean, taldeko memoria kolektiboak urte gehiago hartzen ditu, eta diskurtsiboki erradikalagoak ziren teoriak presenteago dituzte; 70. hamarkadan garatu ziren teoria lesbianista feministak eta 90. hamarkadako transfeministak, batik bat.

7.3. Aliantzak

Oraindik ebatzi gabeko beste auzietako bat lesbiana feministek edo bollerek aliantzak edo zubiak zeinekin egiten dituzten dugu. Hiru aliantza estrategiko ezberdin identifikatu dira, bollera taldeen artekoa, Mugimendu Feministarekin eta LGTB* Mugimenduarekin:

Bai, hiru ildo estrategiko daude. Alde batetik LGTB mugimendua, igual parterik erradikalena dena, eta E28 koordinadoraren bitartez zailtasun gutxien ditugunekin. Gero daude gainontzeko lesbiana taldeak, gu bezala identifikatzen direnak. Bueno, lesbianak ez, bollerak edo praktika politiko transfeminista dituztenak, eta gero, nire ustez artikulatzen zailena dena, Mugimendu Feministarekin. Pertsonalki uste dut pentsamendu feminista tradizionalarekin zailena dela, beti dago hurbilpen handia, baina baita ere desadostasun handia. Eta da kuriooa, ze igual gizonekin, bueno gizon... dituzu desadostasun gutxiago. (Bollera talde lokala 1)*

Bollera kolektibo bat sortzea da como, berezkoa ez dot esango, baina bueno, behintzat, ez dakit, logikoena edo, zen Mugimendu Feministan alde batetik eta sexu-genero disidentzia mugimendua. Guk hasieratik esaten genuen, guk ez genituela ulertzen ere ez horien separatzea, ez genuela nahi izan baten zati bat eta bestearen zati bat, bazik eta bietan zentro, edo ez dakit nola esan, elkargunea edo. Guretzat batera dihoaztela momentu askotan eta horregatik erabaki genuen Mugimendu Feministan parte hartzea. (Bollera talde lokala 2)

Mugimendu Feministarekin etapa desberdinetan egon da taldeko norbait joate., Adibidez, martxoaren 8rako... aurten ez gara joan, ta iaz, ekainaren 28ra bai. Hemen dago komisio bat eta hortara doaz asanbladako kide batzuk. Eta martxoaren 8rako aurten ez baina beste urte batzuetan joan dira asanbladako batzuk. Baina eskualde mailan... E28 koordinadoran adibidez... nahiko ondo, igual historikoki bollerak faltatu izan dira halako plataformetan eta esanen nuke incluso kontrakoa, nola marikak dauden, marika politizatuak, eta beti kontrakoa. Besozabal eta nahi izan batera ta... ezta? (Talde transfeminista lokala)

Historikoki, LGTB* mugimenduarekin edo Mugimendu Feministarekin egitea baldin bazen eztabaidagaia, egun, aliantzen espektro hori pixka bat zabaldu dela esan daiteke, jada ezin delako ildo bakoitzeko mugimendu edo ideologia bakar baten inguruan aritu, eta horrek konplexuago egiten ditu aliantzen artikulazioa. Horren adibide da *Bollera talde lokala 1*-ek aipatu duenean ez daudela prest edozein lesbiana talderekin elkarlanean aritzeko, baizik eta ideologia transfeminista baten barruan praktika zehatz batzuk dituzten bollera edo lesbiana feministekin. LGTB* Mugimenduarekin gauza bera gertatu izan da *LGBT* plataforma* osatzen duten taldeekin. Ikusita plataforma osatzen duten taldeek oinarri ideologiko desberdinak dituztela identitateari dagokionez, erabaki dute lanketa bat egitea eta batzen diena ardatz antikapitalista dela:

LGBT plataforman sartu ginen, ikusi genuen ere kolektibo askorekin gauza asko ez genituela konpartitzen eta gure proposamena izan zen ez partekatzea gure ildo LGTB*, baizik eta elkartzen gintuena kolektibo guzti horien LGTB* plataforma barruan ba zen linea antikapitalista. Eta hortik joatea, zeren, bestela ez ginen ados jarriko zer ulertzen dugun sexu-genero disidentzia terminologia ez ezer. Ez genuen ezer konpartitzen edo oso gutxi. Historikoki egon diren LGTB* Mugimenduan... como reforma/iraultza horien arteko... o pedir matrimonio igualitario... iruditzen zaidala agian beharrezkoa garai batean eta hiesaren ondorengo testuinguru batean, baina bueno, guk ez dugu nahi ezkondu, ez? Esan nahi dut... uste genuen ez genuela LGTB* plataforma erabili nahi jartzeko ados guztiok horrelako... ez gure estrategia, ez gure oinarrietan, ez gure terminologian, baizik eta elkartzen gintuena zen oraintxe bertan gure mugimenduaren asimilazioa eta merkantilizazioaren kontra joatea. (Bollera talde lokala 2)*

Izan ere, zenbait trans talderekin izan duten ezadostasunetako bat identitatearen ulerkerari loturik dago; proposamen politikoak ez dira berberak, ez eta borrokara heltzeko bideak ere:

Ta bueno, nik uste dut hor ere trans borroka dagoela norabide zehatz batzuk hartzen zentzu batean, ez dela kontrajarria, o sea, como trans mugimenduan ere dagoela

*konflikto oso potente bat, eta gu gaude oso kokatuak konflikto horretan bollera bezela...
aliantza gehiago beharko lituzke. Faltan botatzen ditut. (Bollera talde lokala 2)*

Horren adibide izan da komunikatuetan identitateen espektroa zabaltzeko emakume*, bollera eta trans pertsonen arteko bereizketa egin dutenean, *LGTB* plataforman* parte hartzen duen beste talde batetik jaso zuten kritika; nola bereizketa hori egitean transmisoginoak izatea leporatu izan dieten. Kritika bat izatetik urrun, inongo zubirik eraikitzeko helburua duen jarrera konfrontatibo hori saihestu nahi izan zuten proposatu zutenean *LGTB* plataforman* dagoen borroka komuna genero eta sexu disidentzien kontrako merkantilizazioa zela. Jarrera hori atxiki egin diote *LGTB** Mugimenduan dagoen despolitizazioari eta antolakuntza ezari; kolektiboak baino, norbanakoen gehiketa batek osatzen duela:

—Bollera izatea guk aldarrikatzen dugu, osea como un paraguas que ampara para un montón de cosas para huir de ser una tía, y de repente te llega la crítica bollera izatea identitate zurrun bat sustatzen duela binarismoa no sé qué, y es como, kritika hau nundik dator? O sea dago como oleada bat... bai, desubikatua dela nire ustez. Eta hor bai dugu muga bat ere. Gure lagun feministek ulertzen gaituzte, ez? Baina zer gertatzen da masa guzti horrekin, ez? Eta neretzako da E28 adibide garbiena, o sea neretzat E28 eguna da inkomodoa. O sea, ez dakit, ez nago eroso oraindik.

*—Bai, eta nik uste dut bebai badela como *LGTB** Mugimenduan edo badagoela despolitizazio handi bat, nik uste dut desantolakuntza, o sea antolatua ez dagoen jendea eta hori badela muga bat. Eta pasa gara... orain ematen du indibidualki irauli daitekeela mundua, eta hori ez da egia. O sea, pertsonala politikoa da baina kolektiboki egin behar zaio aurre, bestela ba hori... (Bollera talde lokala 2)*

Bestalde, azken hamarkadan testuinguru anglosajoiar garatu diren hainbat teoria heldu dira Euskal Herriko testuingurura. Esango nuke horien eragina espainiar estatuko hainbat txokoetan baino txikiagoa izan dela Euskal Herrian Mugimendu Feministak urteetan zehar egin duen lanaren ondorioz. Hala ere, sarrera izan dute, eta kritikek ez diete erreparatzen Euskal Herriko Mugimendu Feministak eta Lesbianistak egin duen

ibilbideari; orainaldian jartzen dute begirada eta testuinguru anglosajoiaren ematen diren hausnarketan hemen ezartzen dituzte eztabaidarako tarterik eman barik.

Horrekin lotuta, gatazken kudeaketari arreta jarri nahi izan diote, arazoa ez baita gatazkaren existentzia, harreman mota guztietan daudelako gatazkak, baizik eta horien aurrean zelan jokatzeko tendentzia dugun: soluzio bat bilatzekoa, edo ihes egitekoa. Lehenengo aukeraren adibide da *Bollera talde lokala 2* taldeak lehenago aipaturiko proposamenaren ondorioz *LGTB* plataforma*-n abiarazi duten prozesua; desadostasun bat egon denez, ahalegin bat egin da harremana apurtu beharrean batzen diena adosteko. Bestetik, ihes egitea saihesteko, talde barruko loturak gatazkaren kudeaketa arintzeko ezinbesteko pieza direla azpimarratu dute, azken finean, pertsonen arteko harremanak direlako:

Uste dut binkulu pertsonalak taldearen oinarria direla... harreman horrek zelan diren baldintzatuko dute taldea modu batean edo bestean funtzionatzea... uste dut garrantzitsua dela, binkulu pertsonalen inguruan ari garenean giza harremanen inguruan ari garelako. Orduan, zaintzaz ari gara. Ematen du gure arteko harremanek izan behar direla perfektuak, oso kariñosak izan behar dugula elkarrekin, oso jatorrak... o sea, esan nahi dut, perfektioaren estatusa mantendu behar dugula nolabait, eta hori fikzioa da askotan. Adibidez, daukagu zailtasun oso larri bat gatazkaren aurrean. Gatazka beti dago, gizakien arteko harreman guztietan... zer egiten dugun horrekin... ez dakigu gatazkan gestionatzen, ihesean irteten gara, ez gara bestea entzuteko gai... orduan, talde bezala harreman osatugabeak ditugu. (Bollera talde lokala 1)

Aztertzeraz goazen hurrengo aliantza Mugimendu Feministarekin litzateke. Lurraldearen arabera, lan egiteko moduak eta zailtasunak aldakorrak direla antzematen da. Hori ondorio izan daiteke Mugimendu Feminista gauza finko eta materializatu bat ez delako; lurraldez lurralde, eta baita ere herriz herri, tokian tokiko testuingurura moldatzen da. Horrek, alde positiboak baditu ere —borroka kokatua dela—, aldi berean, zalantza sorrarazten du Mugimendua bera zer den eta erritmoen eta lehentasunen kudeaketa zehazteko. Hala adierazi du *Talde transfeminista lokala* taldeak:

Hor uste dut zalantza dela Euskal Herriko Mugimendu Feminista zer den, ze ez dago egituraketa... ta batzutan, hitz egiten da Euskal Herriko Mugimendu Feminista balitz bezala zerbait baino, ez dago gaur egun marko zehatz bat Euskal Herriko Mugimendu Feminista deitzen ahal duguna edo oso aldakorra da. Igual, jardunaldiak antolatu dituzten talde batzuk, baina horrek ez du jarraitu, edo ez dakit ze egitura... baina ez dakit zer den Euskal Herriko Mugimendu Feminista bere horretan. (Taldea transfeminista lokala)

Halaber, Mugimendu Feministaren baitan disidentzian geratzen diren taldeekin aliantzak faltan botatzen dituzte, zenbait kasutan, zapalkuntza komunak zeharkatzen dituztelako. Baina aliantza horiek mugimendu globaletan integratzea ezinezko ariketa ikusten dute, batik bat, uste dutelako zein gai landuko den erabakitzeko metodoak gehiengoari egiten dietelako mesede, gutxiengoan bazterrean utziz:

Niri batzuetan ihes egiten dit perspektibak eta ez litzateke horrela izan behar, baina, igual, feminismoa sistema global baten barna izan daiteke disidentzia bat, ez? Igual izen handiegia jartzen ari naiz, baina bueno, disidentzia bat izan ahalko litzatekeela, baina disidentzia horren barruan bebai dauz botere harreman oso fuerteak, ez? Ba, bazter horietan begiratu eta aliantzak hortik egitea... uste dut horiekin komunean gauza gehiago ditugula, egia esanda... eta gero daude ikusgarritasuna emateko estrategiak... adibidez, asanblada batean gaude, o sea, asanblada handiak egiten direnean, ez? Adibidez, oso orokorra den zerbait feminista, horrek izan dezakeen aniztasun guztiarekin... ba gai batzuk irtetzen dira eta gometxeekin bozkatzeko zeinek dituen bozka gehiago. Eta klaro, minoria bat zarenean, ba... zure aldarrikapenak ez dute sekula bozkaketa irabazten, orduan beti da... dira estrategia apur bat engainakorrak... analizatu beharko genituzke zeintzuk diren Euskal Herriko Mugimendu Feministan dauden aldarrikapenak zein estrategien bitartez aukeratzen ditugun, ez? Uste dut alderantziz izan beharko litzatekeela, zenbat eta gutxiago, ba orduan eta zapalkuntza gehiago pairatuko du. Eta egiten den irakurketa guztiz kontrakoa da. Ez dakit. Kurioso da hori. (Bollera talde lokala 1)

Bozka bidezko lan-lerro aukeraketa lehentasunak, iraultza eta borroka ulertzeko modu produktibista baten isla dira; mobilizatuko den masa zenbat eta handiagoa izan, egingo dena arrakastatsua izango delako ustea elikatzen du. Kantitatea bidezko lehentasunek are gehiago baztertzen dute jada bazterretan dagoena, borrokek artikulatzeko eremu izan beharko luketen espazioetan ere itzaletan geratzen baitira.

Honaino, Euskal Herriko Mugimendu Feministatik datozen erresistentzietako asko seinatu dira, testuingurua dena delakoa izan, haien aldarrikapenak era oso batean integratzeko tentsioak oraindik existitzen direla onartu dutelako. Hori bazter batean utzi barik, autokritika sendoa egin diete bollera eta talde transfeministek haien artean aliantza sendoak egiteko dituzten ezintasunei, eta zelan horrek eragozten dien Mugimendu Feminista bezalako mugimendu globalago batean aldarrikapenak sartzea:

Eta ez dakit, pentsatzen dut ere ez dagoela talde transfeministak... gu gara transfeministak, ez dugu talde lesbofeministatzat gure taldea, baina talde transfeministak eta lesbofeministak bateratzen dituen egituraketa komunik, orduan ere handikan ez zait iruditzen badagoenik aldarrikapen zehatz batzuen zera. O sea, igual kritika hauek egiten ditugu baina ez dugu ezta ere irakurketa publiko bat non zehazten den zer egin beharko litzatekeen. Egia da zehar lerroak izan beharko liritezkeela, baina ez dago proposamen zehatzik. Agian ez dago markorik, baina guk ere ez dugu gurea propiorik... Es que zaila da, ze batetik nahi dezu borroka zehatz bat garatu subjektu zera bati eta gero nahi dezu mugimendu zabal batek egin dezan zehar-lerro bezala heteroarauari kritika, orduan, ez dakit, uste dut hasi behar dela gure egituraketa propiotik. Bestela oso erreza besteei eskatzea, ez dutela ez dakit zer ta, gu ez bagaude egituratuta, baina aldi berean militantzia bikoitza da oso zaila, ze baldin ba nahi duzu talde bollero ez dakit zer, eta gero aparte parte hartu martxoan 8an, eta gero ez dakit nun... o sea, uste dut inportantea dela gure artikulazioa, baina aldi berean beste taldeei ere exigitu behar zaiela arrazakeriaren kontrako borroka, euskaltzetasuna,.. beste borroka asko exigibleak, edo ez dakit exigiblea den hitza,, baina beharrezkoak diren bezala, heteroarauari kritika bat izatea beraien zera, zeren ezin da beti erori arlo zehatz hori lantzen duten taldeen gain gai horren lanketa. Ez dakit, arrazakeriaren inguruko zera ez dagokionez bezala bakarrik arrazializatutako pertsoneri. Nola gure ardura den gure pribilegioa begiratzea, ba beste gauza batzuetan ere bai. Gehi gure auto egituraketa edo... (Talde transfeminista lokala)

Transfeministen eta bolleren arteko aliantzen sorrerak, ordea, feminismo klasikoak aldi berean heterosexualitatea errebisatzeko ariketarekin bat egin behar du Mugimendu Feministan nolabaiteko eragina izan dezan. Hau da, bi noranzkoetan jo behar du geziak; batetik, bollera taldeek prest egon behar dute feminismo heterosexualetatik heltzen zaien eskaerei eta parte hartzeari erantzuteko, eta bestetik, azken horiek esfortzua egin behar dute heterosexualitatea desnaturalizatzeko ariketa gorpuzteko. Egungo testuinguruan, hartu-eman hori existitzen ez dela nabari da; bollera talde batzuk erreta daude errebisiorik ez dutelako ikusi Mugimendu Feministaren baitan, eta hortaz, haien parte hartzea asko mugatu da. Eta beste batzuek, nahiz eta Mugimendu Feministarekin parte-hartze konstantea izaten jarraitzen duten, heterosexualitatearen kritikari dagokionez, ez da praktikoki ezer aurreratu. Bestalde, LGTB* Mugimenduarekin batzuek kontsideratzen duten aliantzak errazagoak direla Mugimendu Feministarekin baino, besteentzako eremu deserosoa izaten jarraitzen du identitatearen inguruan dauden diskurtsoetatik asko aldentzen direlako eta Mugimendu Feministarekin harremanik ez dutelako.

7.4. Talde barneko zaintza: gorputza jarri, zaurgarritasuna azaleratu. eremu publiko-pribatuaren arteko tartea lausotzen

Ikerketa hau egitera bultzatu nauen puntuetako bat talde feminista heterosexualetan eta bollera taldeetan jardutean zaintzarekiko bizi izan dudana aldea izan da; hau da, zergatik heterosexualetan markatuago dagoen publiko eta pribatuaren arteko tartea. Jakin nahi nuen ea nire bizipen pertsonala izan ote den, edo lehenago talde feminista heterosexualetan egon diren beste bollerek bizipen berdina izan duten. Eta horrela izanez gero, zergatik gertatzen den hori. Zalantza hori argitzera lagundu didaten hainbat gako jada irten diren arren, atal honetan gako horiek zehaztea izango dut helburu. Batetik, norberaren zapalkuntzatik eta ez *bestearen* ordeztu hitz egiteak dakarren diferentzia legoke, eta bestetik, taldearen helburuek markatzen dituzten lehentasunak.

Elkarrizketetan galdera zuzena bota nuen: *uste duzue zaintza-dinamika desberdinak ematen direla talde feminista heteroetan eta lesbianistetan?* Oro har, sorpresarekin hartu zuten galdera, baina erantzunek ez zuten horregatik mamirik galdu, guztiz kontrakoa.

Hasiera batean, hiru taldeek ez dute argi izan zaintzak berdinak diren edo ez, baina hitz egiten hastean, nabaritu dut diferentzia bat egon izan dela kasu guztietan, eta diferentzia hori afektibitatean oinarritzen dela kasu guztietan:

Hala ere... nik adibidez, klaro, bollera taldeak oso minoritarioak dira, baina adibidez hitz egingo Bollera talde lokala 3 taldeaz. Zeukaten zaintza-sistema ezin zela hobetua izan, hori ez dau inork berriro egingo. O sea, gero ez dakit beste talde feministetan zaintza mota hau egon den, baina egia da erreferente ditudan bollera talde apurretan... gogoratzen dut ere Lesbiana Kolektiboa-n sartu nintzenean, gainera ideologikoki diferentzia nahiko genituen haien lesbianismoa oso klasikoa zelako, emakume identitatearekin eta horrela, baina hala ere, etortzen zenari harrera maitasunez egiten zitzaion. Eta Asanblada feminista klasikoa-n gogoratzen dut distantetagoa zela dena, gogorragoa, ez dakit, zailagoa, eta hori, gogoratzen dut Lesbianen kolektiboa-n,

*diferentziak diferentzia... bua... hori zen... ni oso maitatua sentitzen nintzen, oso zaindua.
Bollera talde lokala 3-n bebai. (Bollera talde lokala 1)*

—Orain adibidez, Bollera talde lokala 2 taldearekin, ez da igual zuzeneko harreman bat existitzen, baina bai, harremanak horizontalak dira, un tú a tú. Badela asko...

—Eta oso afektiboak direla.

—Ui afektiboak, ikaragarria da!

—Baina egia da igual transfeminismoen barna erlazionatzen den jendearen artean, uste dut harremanak afektiboagoak direla, eta horizontalagoak. Nire ustez. (Bollera talde lokala 1)

Aipatu da bollera taldeetan harremanak horizontalagoak eta afektiboagoak direla beste taldeetan baino. Bi ezaugarri horiek, eta batez erre bigarrena, transfeminismoaren praktika inkorporatutzat jotzen dute, batik bat, kodigo desberdinetan ulertzen delako zaintza talde bolleta taldeek eta talde heterosexuaren:

*...O sea bai, baina nik uste dut ere talde gutxirekin partekatzen dudala talde honetan dagoen jendearekin partekatzen dudan afinitatea. Gara talde bat txikia, bastante harreman ona daukagu gure artean eta uste dut dela biluzteko erraztasun handia. Igual gauza guztiekin ez, baino orokorrean.. o nik behintzat ez? Biluzteko erraztasun gehiago daukat beste talde handiago batean baino, igual uste dut zaintza, uste dut dela formatu bastante diferentea, ze ez dago talde bat gurearen formatu berdina duena, o sea, egon daiteke Espazio Okupatu Feminista bat, dela ba oso afina ere bai, barre asko eta ez dakit ze, baino oso funtzio desberdinak dauzka zaintza kontzeptuari dagokionez... Nik uste dut hor hobeto ulertu gaitzkeela, ditugun kodigoak dira ezberdinak. Zaintza, baina esango nuke erosotasun bat ere badagoela, elkar ulertze handiago bat gai batzuetan eta... os ea, zentzu horretan. Zaintza horrela ulertuta.
(Bollera talde lokala 2)*

Zaintza beste kode batzuetan ulertzea uste dut erabat lotuta dagoela borrokaren eta zapalkuntzaren subjektu aktibo izatearekin, *Bollera talde lokala 1*-ek planteatu bezala:

Uau... galdera... super galdera. O sea, nik ez dakit zaintza desberdina den, baina zaintza motak bai direla desberdinak. Ze, talde feminista heterosexualetan zaintza da heterosexuala, eta bestearen ahotik hitz egiten dutenez, bestea, inork zaintzen ez duena, baina ez dute haiei buruz hitz egiten, nik uste dut zaintza pentsamendu klasiko horretan funtsean heterosexualak direla. (Bollera talde lokala 1)

Zapalkuntza propiotik identitate espezifikoko baten bitartez borrokatzean, taldekideen arteko botere-harremanak txikiagotzen direla esango nuke; *bestea* existitzeari uzten dio norbera delako *beste* hori, hesiaren beste aldean gorputza jartzen duen hori eta ondorioz, zaurgarritasunak agerian uzten dituen hori. Zaurgarritasunen berdinketa batean osatzen da kolektiboa, zeren eremu pribatuan gertatzen diren biolentzia horiek dira antolakuntzaren arazoia. Hori dela eta, bestearen lekuan jartzea, elkar-ulertzea konfiantza eta konplizitatea garatzea errazagoa egiten da:

...niri asko kostatzen zait vulnerable sentitzea eta aurkeztea nire burua, baina nik uste dut ere beharrezkoa dela zaintza baterako, beharrezkoa dela elkar-ulertze baterako... ez dakit... sentitzen dut talde hau espazio seguru bat dela nire burua zaurgarri... zaurgarritasun horren aurrean. (Bollera talde lokala 2)

Niri talde honek bai lagundu dit como ulertzen... bestea ulertzen. Bestearen lekuan kokatzen saiatzen. Ez dakit hainbeste kolektiboa zaindu, ez dakit den zaintza, baina bueno. O sea, bai. Como ikusten errealitate desberdinak daudela, bizipen desberdinak daudela eta como bakoitzari ere zer gurutzatzen dion ulertzea, ez? Eta nik uste dut hori nolabait zaintzarako ematen dizkizula klabeak, o sea, zabilta zaintzen ezagutza batetik. Ta nik uste dut ezagutza dela super printzipala, benetako zaintza baterako, ez? Eta niri talde honek bai eman dit hori. Uste dut orain gaitasun gehiago badudala como identifikatzeko jendeak ze bizipen ahal dituen izan. Hasieran bai egin genituen eztabaida saioak eta egon zen oso guapo ze bakoitzak hitz egiten zuen nola bizi zuen bere identitatea, ta bueno ya ez dago, baina gure kide batek esaten zuen gehiago kokatzen zela identitateari dagokionez pertsona migrante bezela bollera bezela baino. Eta horrek azkenean pues irekitzen dizkizu begiak nolabait gauza desberdinekin eta nik uste dut horrek gero ematen dizkizula klabe batzuk, o sea ematen dizula kontzientzia bat egiten duela be kontzienteki zaintzea bestea. (Bollera talde lokala 2)

Berdinen arteko taldea osatzeko gakoa zaurgarritasunen esposizio kontzientea da. Horrek konfiantzazko babes-eremu baten beharra du, eta babes-eremua kideen arteko harremanak horizontalak izateak ematen du. Hau da, bestea zure berdin ikusteak. Nago, talde-harreman mota horiek haien buruak espezifikotasun batean —bollera taldeetan, talde arrazializatuetan, sexu-langileen taldeetan...— ulertzen dutenen arteko taldeetan errazago ematen direla talde orokorretan baino; talde feminista kontzeptua hain zabala denez, ez dago pertsona profil zehatz bat batzen duen ardatzik, eta gaiak lantzerako orduan, —abortua, sexualitatea, arrazakeria...— *besteaz* hitz egiten da halaberrez. Bibentzia pertsonala plazaratzeko, hura politiko egiteko eta horren kontra zerbait kolektiboa artikulatzeko zailtasun gehiago eman daitezkeela esango nuke; subjektua ulertzeko forma ez denez berdina, borrokatzeko forma ere ez da berdina izango. Mistotasun horren kontra agertu nahi gabe, uste dut gure arteko diferentziak onartu eta hortik elkarrizketan hastea ariketa askoz interesgarriagoa dela, denoi dena modu berean zeharkatzen gaituela insistitzen jardutea baino.

7.4.1. Zaurgarritasuna: subjektu politikoaren eraketa eta zaintzarekiko kodeak

Aurreko ataletan, gorputzak borroka honetan zentralitate handia duela helarazi didate zuzenean eta zeharka. Horrek zaurgarritasuna bollera taldeetan nola bizi den aztertzeraz eraman nau; zer den, eta batez ere, zer zentzu duen taldeen artikulaziorako. Zentzu horretan, Butlerren filosofiarekin bat egiten dutela ikusi egin dut; nola zaurgarritasunak onartzea talde-izaera egitera bideratzen dien, eta nola den gako borrokak egituratzeko eta kolektiboki erresistentzia horretan bizitzeko. Hausnarketa hori baliagarria egin zaie subjektu politikoaren esanahia zehazteko: kolektibotik, kolektiboa ulertuz interdependentziaren ondoriozko berdinen arteko egituraketa gisa:

—Uste dut oinarria dela, osea, politikak duen garrantziaren oinarrian dago gu zaurgarriak sentitzea, ez? Bestela, ez luke zentzu handirik izango... osea, identitate politikoari buruz hitz egiten dugunean kolektibitateaz ari gara, eta beharrezkoa da... a ver, ez dakit zelan azaldu... itxaron... zaurgarriak garela onartzea, uste dut autosufizienteak garela dioen ideia horren kontra doala, eta hori uste dut dela oinarria...

—Kolektibitatearen sorrerarako?

—Bai.

—Ze interesgarria.

—Zaurgarriak eta ahulak ere... azkenean da sare horren beharra, gure artean sostengatzearen beharra... azkenean, hortik dator, ez? Ez garela pertsona independenteak, inondik inora, osea, ez gauza materialekiko, ez fisikoki, ez emozionalki, bakar batean bez...

—Eta hori ere estrategia antikapitalista litzateke. Ze, azkenean suposatzen da indibidualitatea indargune bat dela, eta gauza materialen eta bakardadetik hartzen duzu. Orduan, bakardade hori kontsumoaren bitartez arintzen duzu. Orduan, autosufiente eta indartsu beharrean, zaurgarri kontsideratzen bazara, kolektiboa beharko dozu nahi ta nahi ez. (Bollera talde lokala 1)

Zaurgarritasunen kolektibizazioak talde bolleroak eragile sozial bihurtzeaz gain, sarea eta askatasun eremu egiten ditu, eta askatasun eremu diren heinean, zaintza espezifiko bat bermatu behar dute halaberrez. Hortik aipatzen zituen Burgosek (2006b) LGTB* komunitateak edo Butlerrek (2002) talde baten dolu amankomunetik gizadia edo humanitatea eratzeko aukera. Horren adibideetako bat da aipaturiko aisialdiaren politizazioa, sare hori ekintzetatik eta bileretatik haratago baitoa, elkartasun eremu hori bizitza pribatura zabalduz eta egunerokoan gune seguruak sortuz:

Nik uste dut batetik dela askatasun espazio bat, ta gero denak gara hiri honetakoak baina hori, auzoetakoak, eta bueltatu ginen hirira eta uste dut talde honek eman dizkugula lagunak, alde batetik, oso inportantea dela, eta sare bollero bat. Konpartitu ahal izatea bibentzi batzuk, bibentzi, biolentzi, mundu ikuskera, plazergune, ez dakit, eta konbertsazio batzuk heteroarautik ateratzen direnak, seguraski bestela ez genituzkeenak izanen. Komentatzea... ez zeinekin zabiltzan, baizik eta yo qué sé, bollera pinta izateagatik zer pasa zaizun, ulermen osoa izatea, edo, edozein gauza, ari zarela ligatzen... edozein gauza bibentzial oso horrekin lotuta ulermen total batetik bizitzea. Pentsatzen dut ahalduntze tresna bat dela... pentsatzen dut hitz egite horrek eta baita ere nola mugitu. Taldean joaten bazara 10 bollerakin ez dakit zein tabernara, zein espazio okupatzen duzun, edo zure estetikaren erreferenteak izateak ahalduntze zaituela zu ere bai, edo komentatzea zure praktika sexualak, bibentzialak... horrek aberasten zaitu, askatzen zaitu puntu askotan, ta nik uste dut talde hauek ere hori eman

digutela. Ta aisialdi... o sea, ez dakit, irtetzen naiz nire lagun koadrilla betikoarekin eta ambientea bera heteroa izango da, ta honek askatzen zaitu hortaz, eta praktika, estetika, presio-estetika.. hortaz guztiaz ere bei neurri baten, eh? Baina uste dut ematen dizkizula gauza horiek. (Talde transfeminista lokala)

Sortzeko askatasuna... ze azkenean, niri pertsonalki asko kostatzen zait bestelako harremanak sortzea, ez? Eta lehen esaten genuena, hierarkia edo boterea dagoen lekuan oso zaila da horrekin apurtzea. Eta da hori, binkulu desberdinak sortzeko askatasuna. (Bollera talde lokala 1)

Uste dut ere bollerismoa azkenean, edo bollera izatera iritsi garela oso ikuspuntu edo oso posizio desberdinetatik, ta como nola izan den bizitzan jaso ditugun, o igual indarkeri desberdinak, ez? Sentipen guzti haientzako babesleku bat, como leku bat sentitzen garenak nolabait... leku bat aitortza ematen diona bollera identitateari ikuspuntu interseksional bat. (Bollera talde lokala 2)

Harritu egin nau, ordea, bollera talde batean egoteak eskaintzen diena aipatzean, eta beste talde batzuetan —printzipalki talde feminista heterosexualekin alderatzea izan da nire helburua— egon direnean izan dituzten bibentziak eta sentsazioak aipatzean, ez dioten barne-zaintzarekiko diferentzia hori zuzenean ildo politikoari atxiki. Hau da, zelan ez dagoen guztiz hedatuta ildo politikoak zaintza-dinamiken funtzionamendua baldintzatzen dituela, nahiz eta onartu harremantzeko modu desberdinak existitzen direla, batik bat, kodigo desberdinetan ulertzen dituztelako zaintzak. Badirudi, taldeak zeinek osatzen duen, pisu gehiago duela zaintzarekiko alde hori justifikatzeko, edo behintzat, zalantza sortzeko:

Zaintzari dagokionez, ez, bai hontan bai militatu dudanean beste edozein taldetan, eh... uste dut zaintzarena dela gehio segun ze pertsona dauden, ze talde-giro, ze fundamento... ez dut hainbeste lotzen klasifikazio politikoarekin. (Talde transfeminista lokala)

Badakit ez dela talde feministetan orokorrean gertatzen dena talde lesbianistekin alderatuta, nik uste izan zela pertsona espezifikoko batzuk izan zutela ba arazo espezifikoko batzuk eta horrek dinamitatu zuela beste guztia... gure gazte feminista taldean ba

zaintza ba ez zan berdina, ez zen berdina, cada una ba a su bola y ya está. Baina hori, azkenean ez dakit ze puntura arte den afinitatea... baina bai egia da guk be beste garrantzia bat ematen diogula zaintzari (Bollera talde lokala 2)

Ilido beretik, taldez talde zaintza mota ezberdinak ematearen beste arrazoitzat hartu dute taldearen helburua bera:

Niretzako oso desberdina da lana, ze auzoko taldeak iruditzen zaizkit oso beharrezkoak, baina askotan egin behar izaten dute auzoko gainontzeko taldeekin pedagogia handia edo protokoloak prestatu ere, auzoan zeozer pasatuz gero nola erantzun... eta talde bollero-transfeministak iruditzen zaizkit gehio diskurtsua sortzera edo eskaintzera askatasun espazio bat. Baina behar dira biak nire ustez. Eta zaintzari dagokionez, ez, nire ustez zeharkatzen gaituena dela ezberdina, ez? Igual auzoetako taldeetan heteroaraua ez da lehentasuna, según ze auzo, eh? Igual talde feminista ez-bolleroetan edo bere izena hola ez dutenetan, ez da lehentasun bat heteroarauari kritika egitea, ta igual ekainak 28an ez da deus egiten auzoan. Edo igual ez da lantzen ez dakit, maitasun erromantikoa lantzen da, baina lantzen da ikuspegi hetero batetik, edo lantzen dira estereotipoak... nik uste dut horrekin gu ez garela identifikatuta sentitzen batere, subjektu horrekin. Orduan, hori da gehiago zentzu diskurtsiboan. (Talde transfeminista lokala)

Guztiz zentzuzkoa egiten zait hausnarketa helburuen araberako zaintza motari buruzko hausnarketa, eta planteatzera narama ea Mugimendu Feministan, abizenik gabeko mugimendu aldakor horretan, non saretzearen beharrezkotasuna beti egon den mahai gainean, eta areagotu dena koronabirus garaian, saretze horiek zeinekin artikulatzen dituen eta zein neurritan; zein puntutara arte heltzen diren esparru pribatura eta zein den mugimenduaren helburua.

7.5. Militantzia esparrua: neoliberalismoaren kontrako praktikak, mugak eta erronkak

Taldeak aukeratzeko orduan bururatu zitzaizkidanak eta azkenean aukeratu nituenak hirian barreneko militantzian kokatzen dira. Datu hau ez da oharkabe igaro eta zenbait elkarrizketetan irten egin da gaia, azaltzerakoan nola gai batean espezifikoagoak diren taldeetan aritzeko hirietara jo behar duten, auzoetan eta herrietan horien gabezia dagoelako. Horrekin batera, bolleren militantziarekiko ibilbideaz aritu zaizkit; nola hasieran talde mistoetan eragitea izaten den ohitura, gero feministetan eta handik bollera taldeetan edo talde transfeministetan antolatzen amaitzeko. Joera horrek laburtu egiten du *feministak garelako gara bollarak* premisa; bollera bihurtzeko prozesua kontzientzia feministak eta feminismoarekiko jarrera kritikoak ematen duela, eta bizi-ereduetara daramala subjektua. Horren barna sartuko litzateke bestelako militantzia ereduak bilatzea:

Bai, oro har, gure taldeko guztiak gatoz militantzia mistoetatik. Hori bai iruditzen zaitela inportantea, denok gara eskualde honetako ingurukoak, edo hemen bizi gara, eta denok gatoz auzoko militante esparrutik. Nire kasuan gazte asanbladatik eta auzoko talde feministatik. Eta esanen nuke taldeko asko ere direla tipiko gazte asanbladatik datozenak, baina gero bilatu dugunean zerbait konkretuagoa politikoki etorri gara hirira. O sea, ez dakit, auzoko taldean lantzen da igual auzoko dinamika eta ez dago talde bollero transfeministarik. Eta bai, denok gatoz beste militantzietatik, hasieran militantzia mistoetatik, gero igual militantzia feministatik eta azkenean militantzia bollero transfeministara pasa gara. Eta ez zait iruditzen kasualitatea denik.
(Talde transfeminista lokala)

Taldeek duten inzidentzia mailarekin sistema kapitalista osoa iraultzea ezinezkoa dela badakiten arren, baina kolektibitatearen ideia bollera identitatean errotzen denez, norbanakotik kolektiboa sortzearen aldarria eta kapitalismoaren kontrako praktika eta asmoa hiru taldeetan presente dagoela argi utzi didate. Izan modu teorikoago batean kontzientziak pizten, ideologiaren monetarizazioaren kontra egiten, baliabide

materialak kolektibizatzeke sare bat sortzen edo familia nuklearraren eskemetatik irteten diren bizi-ereduak eraikitzen:

Nik uste dut ere bai proposatzen ditugun bizitza eta harreman ereduak badirela neoliberalismoaren aurrean estrategia bat... nik uste dot nolabait ere pues eredu neoliberalari como amen egingo ez dioten beste harreman eredu batzuk sortzea, gure artean zaintzea eta nolabait, sare horiek sortzea izan daitezkeela sustentu emozional, ekonomiko edo beharrezkoa dena. Azkenean badela, zure bizitza-harremanak eraikitzea, babes pertsonala eta yo qué sé. Norberaren behar, ez dakit nola esan, baina bai, norberaren kontsumoaren beharrea ez dagoena. Ta nik uste dut hori badela behar individual eta kolektiboan egiten dugun zerbait, eta gainera garraiatzen dugun zerbait, nik uste dut. (Bollera talde lokala 2)

Politikoki egiten duguna gure bizitzaren oinarria da, edo eraman nahi dugun bizitza-eredua, orduan, horren inguruan funtzionatzen dugu... aisialdiarekin zerikusia duen guztia, eta egoteko eta bizitzeko zerikusia duen guztia, ideologia politikoarekin erabat loturik daude. Nik uste dut hortik irtetzen garela familia bisitatzen dugunean edo lanera goazenean... Azkenean, ez bazara bizi pentsatzen duzun bezala, pentsamendua aldatzen duzu. (Bollera talde lokala 1)

Egiten ditugun ekintza guztiak autogestionatuak dira eta hori badugu nahiko oinarritzat. Guk geuk egiten dugu egin beharreko guztia eta bilatzen dugunean geure jardunaldietan parte-hartzen duen jendea, saiatzen gara filosofia bera daukan jendea ekartzen. O sea, ez dugu monetarizatzen eta egiten ditugun ekintzak beti egin izan ditugu espazio liberatuetan. Gero, gauza zehatzak, ez dakit, guk egiten ditugu hitzaldiak interesatzen zaizkigun gaiei buruz, lotuta transfeminismoarekin eta antikapitalismoarekin, baina igual gehiago dihoa diskurtsiboki. Ez dakit, ez daukagu espazio okupatu bat. Esan nahi dut, ez daukagu ekintza bat hola. (Taldea transfeminista lokala)

Gaur egun ez dira sistema politikoak existitzen, politikaren gain dago sistema ekonomikoa. Existitzen dena kapitalismoa da, eta dena barnebiltzen du horrek, erabat sartuta gaude... nik uste dut erabat sartuta gaudela sisteman, eta alternatiba errealik ez dagoela hori iraultzeko, eta errealtatean beharrezkoa dena dela sare bat. Hori da alternatiba... azkenean kapitalismotik irteteko alternatibarik sortzen ez badugu, haren

barruan jarraituko dugu. Hau da, erabili beharko ditugu eskaintzen dizkigun tresna berdinak; bizi beharko zara etxe batean, alokairu bat ordaindu beharko duzu, hipoteka bat... gauza batzuetaz ezin gara libratu. eta Bollopop-a da ahalegin bat ditugun errekurtsio guzti horien biltzeko era gure artean elkarbanatzeko. (Bollera talde lokala 1)

Okupazioa bizitza duin baterako baliabide minimoak bermatzen ez dituen sistema baten aurrean erresistentziarako forma bat da, taldeek eta taldekideek haien militantzian integratu izan dutena modu batean edo bestean; espazio liberatuetan bilerak eta ekintzak antolatzen edo okupatzen. Okupazioaren aldeko apustua proiektu kolektibo baten barna artikulatzen denean, bizi-eredu normatibo batean eratu ezin diren harremanak sortzeko askatasuna emateaz gain, bestelako ardurak eskatzen ditu:

Auzo honetako bezalako proiektu batek... o sea, azkenean ematen dizula aukera zure identitatea beti proposatzen duzun bizi eredu hori aurrera eramateko. Como aukera ematen dizula beste bizitza eredu bat eta beste harreman eta beste familia eredu bat sortzeko. (Bollera talde lokala 2)

Okupazioaren bitartez, publiko eta pribatuaren arteko muga apurtzen da espazio materialak eta bizitzeko formak ekintza politikoak bihurtzen direlako. Lehenago, talde bolleroetan zaurgarritasunen azaleratzeak publiko eta pribatuaren arteko muga lausotu egiten duela ikusi da, militantzia-taldeak izateaz gain, militanteentzako askatasun sareak direlako. Taldekideen artean, duten bizi-proiektuaren arabera, desberdintasun bat aurkitu dut bi espazio horiei dagokienez; nola proiektu komunitarioetan norbanakoak publiko eta pribatuaren arteko bereizketa kontzientea egiteko beharra duen, norberaren eta bestearen artean dagoen marra markatzeko, eta normatibitate baten baitan bizi direnek halabeharrez egin behar duten zatiketa hori:

—Publiko eta pribatuaren artean nik oraindik bai somatzen dudala, nik, nire baitan egiten dudala publikoaren eta intimoaren artean muga bat. O sea, ez dakit ere ez deuseztatu behar den, baina bueno, behintzat zentzu batean militantzia ereduak igual berrikusten ari garela.

—Egia da auzo hau dela oso intensoa zentzu horretan. Eta nik ez dakit oso ondo ze puntutara arte dagoen benetan, o sea zure bizitza denean orokorrean, esaten dut

gehiago auzotik eh, pero, o sea ez dakit ze puntura arte gauzen deseraikitzen publiko eta pribatuaren muga hori, edo ze puntutara arte gauden intimo edo pribatu hori publikora... o sea, bueno, o sea ez dakit ze punturarte dan hori, edo ze puntura arte den ez jakitea ya nun dagoen muga zu eta bestearen artean. Batzuetan uste dut nahasten zaizkidala bi gauza horiek, no? O sea, da hain integrala eta hain intensoa que ya no es que lo público sea pribau, es que tú ya no eres ni tú. Ulertzen da? Jakin behar dela ere pribatu hori mantentzen pribatu hori publiko egiteko zentzu batean. Edo bueno, pribatu hori publiko egiteko baino, o sea, pribatu horretatik borroka egiteko eta bi espazio horien inguruko irakurketa bat eta inkluso apurketa bat emateko. O sea, beharrezkoa dela ere apur bat horrelako esto integraletan, militancia 24 horas-etan, distantzia pixka bat hartzea. Ez dakit ulertzen den.

—Nire kasuan adibidez oso ezberdina da porque ni gurasoekin bizi naiz eta ni etxean naiz haien alaba, haien princesita oraindik... Astean zehar kanpoan bizi naizenez, oso desberdina da. Nire kasuan, publiko eta pribatua oso oso markatuta dago. (Bollera talde lokala 2)

Eremu pribatua publiko egitearekin ez dut esan nahi intimitateari lekua utzi behar ez zaionik, baizik eta eremu pribatuan geratzen diren betebeharrak, ardurak eta bibentziak plano politikora eta militantzia esparrura eramatea ezinbestekoa dela ordena soziala irauli ahal izateko. Hortaz, interesgarria egin zait integralak diren proiektu kolektiboetan espazio pribatua mantentzeko beharrizan hori azaleratu izana, norberaren eta bestearen arteko muga bereizteko beharra; pribatua publiko egin ahal izateko, pribatua existitu behar dela, alegia.

Espazioa bizi-proiektu bat garatzeko garrantzitsua izateaz gain, taldeek haien ekintzak, bilerak, hausnarketak eta militantziari loturiko zaintzak aurrera eramateko beharrezko elementu ikusten dute:

Ez dakigula oraindik non, baina toki batean biltzea, zorrotzagoak izatea ordutegiarekin, nolabait militantziari begirako zaintza lehenestea eta militantziari begirako zaintza lehenesten bada, pertsoneri begirako zaintza ere lehenetsiko da, baina ez hainbeste ba nola lagunak garen berdin du, baizik eta ez, talde hotjinek behar du ordu hontan eta hemen. (Talde transfeminista lokala)

Bestalde, espazio fisiko batek taldearen ikusgarritasunean lagun dezake, eta horrek konplexutasuna kendu ahal dio aliantza berrien artikulazioari, bai eta jende berriaren gerturatzeari, badutelako nora jo:

Dugun beharretako bat espazio propioa da... ez dakit bollerena bakarrik... espazio fisiko espezifikoa bat ez duzunean, oso zaila da gauza asko sortzea, ez? O sea, espazio bat duzunean, izan ditzakegun bilerez gain, leku bat baduzu, hor biltzen zara, eta askatasun espazio bat da, ez soilik sortzen doguzan harremanak... uste dut errazten dituela aliantzen sorrera, ekintza gehiago... gaur egun behar eta ahuldade hori daukagu espazio bat ez izateagatik. (Bollera talde lokala 1)

Espazioak liberatuak direnean, esfortzu gehigarria eskatzen du militantziari dagokionez, izan asanbladetan parte hartzea edo gunearen mantentzean. Kasu horretan, antolaketa konplexuagotu egiten da eta denbora falta izaten da eragozpen handia izaten da:

Baita ere exigitzen dizu horko asanbladetara joatea eta hori beste karga bat da, eta gaztetxeetan biltzean ere exigitzen du, eta hor bai kostatu izan digula aurkitzea ze toki guztiek exigitzen dizute kudeaketa bat, baina gehi beste mila asanbladetara joan nahi baduzu, azkenean da, ez dakit nola esan, azkenean bikoiztu egiten da, ez dakit zenbatkoiztu egiten zaizu... (Talde transfeminista lokala)

Hala ere, talde hauek hainbat espazio desberdinetan bildu izan dira, kalean, zentro zibikoetan, gaztetxeetan, tabernetan eta etxeetan, batik bat. Leku batean edo bestean biltzearen arrazoiak anitzak izan dira: beharra, segurtasun espazio bat ez edukitzeari alternatiba, zaintza, erreferentziazko lekua izatea, gune publikoa okupatzeko ariketa kontzientea egitea edota espazio liberatuetan denbora ezin eskaintzea:

—Bai, baina adibidez bildu izan gara taberna batean, super txungoa, super arrotza... bueno, pues gure kolektiboan dago pertsona bat depende ze egunetan ez dekola gaitasuna zentrorra joateko oinez, ta geratzen gara bere etxe ondoko tabernan.

—Oso gracioso da jende guztia dagoenen hor zerbait hartzen eta gu bileran... todas las bolleras ahí.

—Gu ere gaude oso ohituak espazio zehatz batzuetan elkartzera, baina lehenesten dugu momentu zehatz batzuetan guk parte hartzea eta ez ze espazioetan egiten dugun, edo igual beste kolektibo batzuetan ez da hori planteatzen.

—Eta mobida bat dela horrelako pertsona bat egon behar izatea gauza batzuen gaineko kontzientzia hartzeko

—Lehenesten dogu biltzea guztiak egon ahal izan garen espazio batean... hemen biltzeak pixkat zalantzan jar dezake, o beldur bat sor dezake... orduan, uste taldearen dinamika beste bat denez eta taldearen helburuak beste batzuk direnez, que te da tiempo a fijarte en cosas que no te fijas normalmente. (Bollera talde lokala 2)

Talde barneko zaintzan biltzen da ere taldekide guztiek parte har dezatela, horretarako espazio, denbora eta eginkizun edo rolen aldetik malgutasuna izanez. Egiteko moduak adostasun batetik abiatzen dira, militantzia karga bat bezala ez hartzeko eta gozamenetik eragiteko:

Adibidez, ez dugu uste denok ardurak berberak hartu behar ditugunik, uste dugu norberak egokitu behar diola duen denborari... hori asko egiten dugu. Ez dakit, niri igual gustatzen zait itzultzea gauzak, edo kartelak egitea, edo beste bati ez zaio gustatzen ez dakit zer, edo beste batek ez du hitz egiten jendearen aurrean inoiz, eta ez du egin behar. O sea, uste dut zaintza dela ulertzea ze ardurak dauden eta hori mugatzea. Hortaz aparte, denborak ere hartzen ditugu zaintzatzat, puntual iristea, asanbladari eskeintzea... batez be hitz egin dugu zaintza dela norberarena baino, kolektiboaren zaintza eginda eta hola ere norbera zainduko da. Ta gero hor egon daitezkeela espazioak espresatzeko, baina zer punturaino ere politikoa galtzen ahal den norberak bere mina beti erdigunean jartzen... nola konbinatu eta egin lan politikoa eta tartean ere norbanakoari kasoa egin. Baina ez dugu egiten izen rondarik zer moduz zauden kontatzeko... bai, nahi duenak esaten duela asanbladan: jo, gaur baju etorri naiz ez dut parte hartuko. Eta hitz egin dugu gure artean nahi dugula hola izatea. Edo ez dakit, dedikatzen diogu denbora gure gauzei buruz hitz egiteko, hori be bada zaintza, baina ez forma egituratu batean. Eta hori, iruditzen zait bai azkenaldian zorrotz jarri garela toki bat, ordu bat, zaindu zenbat irauten duten asanbladak, osea, igual ez da sosteniblea irautea asanbladek hiru ordu, adibidez. (Taldea transfeminista lokala)

Ezartzen dizkiguten bizi erritmo azkarrek, produktibitatearen ideiak, harremantze-eredu zurrunez norbanakoaren osasun mentalean eragina izan dezakete, gorputza izanik horien ondorioak jasotzen adierazle printzipala. Hortaz, ezinegon horiek militantzia-eremura pasatzea norbanakoa bakarrik ez uzteko, zaintzaren parte dela deritzot, bollera taldeen beste roletako bat sarea sortzea den heinean, eta bizitzak erdigunean jartzea denean helburua. Zeren, Butlerrek (2014) adierazi bezala, erresistentzia zaugarritasunen mobilizazioa baldin bada, eta doluak humanitatea pizteko giltza ematen baldin badu, erresistentziaren kudeaketa hori kolektiboan egin beharreko ariketa dela uste dut. Bestela, inguratzen gaituen dena zalantzan jartzea geure buruen kontrako biolentzian buka dezake, eta superbibentziarako jarrera indibidualak sustatzen.

Adostasun horiek militantzia eredu tradizionalari aurre egiten diote produktibitatea ez delako lehentasuna; hau da, 24 orduko militantzia ekiditeko bitartekariak era kontziente batean jartzen dira, zaintzak bere lekua izan dezan. Horrek ez du esan nahi eskema egituratuak jarraitzen direnik taldekide bakoitza nola dagoen adieraz dezan; horrek zenbait kasutan baldintzatu dezake taldearen funtzionamendua, edo momentuan bertan talde bezala ixteko gaitasunik ez duten auzi pertsonalak irekitzea galaraz dezake. Horregatik, espazio informaletan alde afektibo hori konfiantzak ematen duen erraztasunaren bitartez ematen da, jakinda espazio formaletan horretarako lekua dagoela. Bestalde, parte hartze handia eta txikia duten norbanakoak eragin ditzake, eta horrek bi arazo ekarri ahal ditu. Batetik, asko ematen dutenek besteengandik buelta bat jasotzen ez duten sentazioa, eta bestetik, botere-harremanak talde barnean, zenbat eta gehiago parte hartu, orduan era erabakiak hartzeko tendentzia edo zilegitasun handia eragin dezakeelako. Erronka egoera horien arteko puntua bilatzea litzateke:

Inplikazio mailei dagokienez ez dago inongo exigentziarik. Horrek zailagoa egiten du dena, botere-harremanak sor ditzakeelako. Batzutan egon daitekeela sentazioa esfortzu bat egiten zaudela, eta dagoela energia kumulo bat, zuk igortzen duzuna eta ez duzunik ezer edo ia ezer jasotzen... klaro, zuk zelan jasotzen duzu inplikazio hori? Ba,

bestea ere inplikutzen denean, baina ez duzunean jasotzen, azkenean... ondo dago prozesu osasuntsuak direlako, baina errealitatean prozesu garestiak dira, eta arriskutsuak. Ze, gehien inplikutzen denak, azkenean, gehiago erabakitzen du, orduan, galdera da zelan orekatzen dituzun indar horiek, ez direnak inondik inora horizontalak izango, ze hori gizakien arteko harremanetan ez da existitzen, gezurra da. Baina bai, existitu beharko litzateke hartu eta emanaren arteko oszilazio bat, zentzu guztietan. Inplikazioa eskatzeko eta jasotzeko orduan, boterea ematean eta kudeaketan, ez? Eta gutxienez nik uste dut hori gertatzeko esfortzuak egin izan direla.... Baina egia da ikusgarritasun gutxiago dituzten prozesuak existitzen direla, eta hori egoera hori bizi duenaren bitartez orekatu behar da, ez? (Bollera talde lokala 1)

Bestalde, belaunaldi nagusikoagoek baieztatzen dutenez, haien borrokak artikulatzeko formak heterosexuaren formatatik asko urruntzen dira, batik bat, haien beharrizan propioetatik abiarazten direlako *bestearen* izenean hitz egin behar izan gabe:

Guk adibidez, egiten duguna gure beharrizan propioetatik ateratzen da. Ez dugu inoren izenean hitz egiten... diskurtsoa eta ekintzak sortzen ditugu gure errealitatearen, testuinguruaren eta beharren arabera. Horrek dakarren zailtasuna da kanpotik mugimendu sozialen eskaerei erantzun behar diegula... feministaren barne, panfletoan agertzeko. Orduan, zatitu behar ditugu indarrak non dauden jakiteko, baina nik uste dut normalean lehenesten ditugula gure beharrizanak. (Bollera talde lokala 1)

Esan daiteke feminismo klasikotik aldentzearen beste arrazoietakoa bat bestelako antolakuntza eredu bilatzea izan dela: *bestea* ez erreproduzitzea eta gorputzetik eta sormenetik gehiago duen militantzia ereduaren alde egitea. Ildo beretik, norberaren beharrizanak lehenestea kanpotik datozen eskaerak bigarren maila batean uzteko, feminismoa eta militantzia ulertzeko modua zein den ulertzeko gakoak ematen dituzte; feminismoa ez da ulertzen hainbeste kanpora begirako lanketa pedagogiko bezala, baizik eta subjektuaren askapenean lagunduko duen tresna gisa.

Jadanik, proposamen politikoa nahi bezala aurrera ateratzea galarazten dizkien hainbat muga aipatu dituzte: aliantzak egiteko orduan dauden konplexutasunak eta denboraren muga eta militantzia anizkoitza, besteak beste. Hala ere, badago aipatu

duten beste muga bat iruditu zaidana gako aliantzak egiterako orduan konplexutasunak areagotu dituena: beste bollera belaunaldien arteko transmisio txarra. Uste dut belaunaldi ezberdineko bollera guztiak ados egongo direla puntu honetan, orokorrean, desmemoria bat sortzen dela belaunaldiz belaunaldi, orain irteten diren ideiak, nola izan daitezkeen bitzta komunitarioen beharra, sexualitatea politiko egitea, emakume kategoriatik irtetea... berriak izango balira legez. Zentzu horretan, garrantzitsua deritzot nondik gatozen analizatzea memoria historiko hori eraikitzeko eta bertatik erabakitzeko zein identitate estrategiko hartu nahi dugun borrokarako, eta zergatik.

Aipatu ez den beste mugetako bat, baina elkarrizketetan zehar jasotako erantzunak direla medio helarazi egin didatena, disidentzietan geratzen diren errealitateak izendatzeko zailtasuna da. *Bollera* hitzarekin esfortzua egin behar da emakumearen sinonimo ez dela azaltzeko, eta zenbaitetan, hedatua dagoen *lesbiana* hitzaren erabilera egin behar dutela haien bibentziak nolabaiteko inpaktua izan dezan jendartean. Wittigek eta gerago Butlerrek hizkuntzak errealitateak sortzeko duen gaitasunaz mintzo ziren, esanez hizkuntzak helburu preskriptiboa duela, eta ez deskriptiboa. Helburu preskriptibo hori, ordea, sistema heterosexualak markatzen du masa antolatzeko, hori dela eta, jendartearekin hitz egiteko sistemak baliatzen duen hizkuntza berbera erabiltzera behartuta gaude. Izan ere, bolleraren kasuan, ez da ulertzen gizon edo emakume ez den beste identitate bat izatea posible dela sexualitate baten baitan; hau da, ez da ulertzen heterosexualitatearen eskemak jarraitzen ez dituen bizi-eredua jarrai daitekeenik, heterosexualitateak lege eta kontzeptu orokorrak sortzen dituelako edozein garaiko eta edozein testuinguruko errealitateak deskribatzeko (Silvestri, 2019). Gauza bera gertatzen normatiboak ez diren beste harremanen inguruan hitz egitean; ez da ulertzen, adibidez, sarea ez dela familia nuklearraren edo kuadrillaren sinonimo, harremantzeko beste mota batzuen ondoriozko egiturak direla. Hitzak existitzen dira, baina hedatuta ez daudenez, ezin dira nonahi erabili, eta horrek kategoria eta errealitate berrien sorrera galarazten ditu, eta adigarriak ez direnez, ikusezin geratzen dira.

8. ONDORIOAK

...eta otutzen zait, hobe dela malgu izatea

zurruna hautsi egiten dela...

Eta beldurra gose denean, libre dabilenean,

edozer jaten du: ametsak, gorputzak, begiak,

gezurak edo egiak,

orain ni, gero zu.

Eskerrak ahulak garen,

erantzi eta jaten uzten garen,

bestela, bakoitza bere desertuan,

bere harkaitzaren barruan zain,

denborak laztan nazan, harea egin dezan,

Anari, Ihia, 2009

8.1. Ikerketaren emaitzak

Heterosexualitatea bizitzak arautzen dituen sistema normatiboa da, zeinak biolentziaren erabilpenaren bitartez, emakumeen eta gizonen gorputzak sortzen dituen, bakoitzari funtzio zehatzak ezarriz. Kategoriatar horren ondorioz justifikatzen dira gainontzeko kategoriatarrak: eremu publiko eta pribatuaren, arrazoiaren eta emozioaren eta normalaren eta bestearen arteko bereizketak, besteak beste. Eta, bien artean hierarkiak sortzea denez banaketaren helburua, emakumeak zapalduen eta gizonak zapaltzaileen tokia okupatuko dute.

Sistema heterosexualak dakarren zapalkuntzarekin hausteko, lesbianismo politikoaren inguruan teorizatzen hasi zen Europan 70. hamarkadan, gaur egunera arte hainbat lurraldetara zabaldu dena.

Ibilbide teoriko baten bitartez, sistema heterosexualak barnebiltzen duen biolentziari kontra egiteko agertu diren proposamen lesbianista feministak aurkeztu eta gero, asmoa izan da Hego Euskal Herrian gaur egun antolatuta dauden bollera taldeen diskurtsoak, antolaketaerako moduak eta estrategia politikoak aztertzea. Errealitate horietara hurbilpen bat egiteko, bollera identitateetik subjektu politikoa nola ulertzen den ezagutzea izan da hartu dudana bidea, eta noski, adiera horrek zein inplikazio dituen aztertzea. Horrekin alderatu nahi izan dut talde feminista heterosexualek funtzionatzeko duten formarekin, betiere bolleren ahotsetik. Konparatiba horretatik abiatuta, aliantzak egituratzeko orduan sortzen diren talkak, erresistentziak eta proposamen zein ekarpenak bildu ahal izan ditut.

Horiek horrela, ikerketa hasieran planteatu nituen helburuei erantzuten dieten ideia klabeak azpimarratu nahi izan ditut hurrengo lerroetan.

Lesbianismo politikoa Hego Euskal Herriko testuinguruan, *bollera* identitatearen bitartez egituratzen da. Bollera identitateak ezbaian jartzen du sexu-genero sistema osoa; xedea ez du soilik praktika sexual normatiboa deseraikitzea, praktika sexual heterosexualari lotutako bizi-eredu normatiboa deseraikitzea ere badute helburu elkarriketatuta ditudan bollera taldeek. Hortaz, gorputzarekin eta desirarekin esperimentatzeko eta norberarekin eta besteekin bestelako harremanak sortzeko

askatasun gunea da bollera identitatea. Filosofia transfeminista oinarri hartuz, emakume izateari uzten dio bollarak, eta haien borroka biktima kategoriatik at artikulatzen da.

Bollera identitatea gorputzetik eramandako borroka dela helarazi didate elkarrizketatutako taldeek, eta gorputza esperimentaziorako gune den neurrian, etengabekoa dela bollaren presentzia. Identitatea agerikoa izanik, esperimentatzeko askatasun eremua ez da biolentziatik libratzen, eta horrek erresistentziarako gorputz bihurtzen du subjektua. Izan ere, *emakumea* eratzeko behar diren arau guztien kontra egiten du; fisikoki eta sisteman duten posizioari dagokionez. Sozialki adiezinak eta ikusezinak baldin badira haien identitatea esanahi heterosexualagatik at egonagatik, haien presentzia ez da oharkabe pasatzen; guztiz kontrakoa, horregatik biolentzia jasotzeko aukerak handiagoak dira.

Artikulazioari dagokionez, elkarrizketatutako hiru bollera taldeek hiru aliantza mota bereizi dituzte: bolleren artekoa, LGTB* Mugimenduarekin eta Mugimendu Feministarekin. Hiru kasuetan mugak aurkitu dituzte. Bolleren eta transfeministen arteko aliantzan, haien artean antolatzeko beharra eta ezintasunak nabarmendu dituzte. Beste bi aliantzetan ordea, posizio desberdinak topatu ditut taldeen artean. Ibilbide luzeena dutenak nekatuta daude Mugimendu Feministak haren pribilegioarekiko duen errebisio faltaz, eta hortaz, haien parte hartzea txikiagoa da haien ekintzei ematen dietelako lehentasuna; feminismoa ulertzeko duten modua ez da kanpora begirako pedagogian oinarritzen, bolleren askapenerako beharrizan propioak lehenesten dituzte. Ibilbide laburragoa dutenek Mugimendu Feministarekin paraleloan eragiten jarraitzen dute, nahiz eta modu global batean praktikoki ez den inolako aldaketarik eman heterosexualitatearen kontrako posizionamenduari dagokionez. Bestalde, LGTB* Mugimenduarekin aliantzak egitea deseroso suertatzen zaie taldeei neurri desberdinetan. Arrazoi nagusi bi detektatu ditut. Alde batetik, LGTB* talde batzuetan identitatearen inguruan dituzten diskurtsoetatik asko aldentzen direlako; talde horiek despoltizatuak eta kokatutako ikuspegi feministarik ez dutela atxiki diete. Bestetik, talde horiekin gailentzen den komunikatzeko forma konfrontatiboa delako.

Aliantzen ataletik gehien interesatzen zitzaidana, bollera taldeek Mugimendu Feministarekin duten harremana izan da. Hori dela eta, sakontasun handiagoz aztertu dut parte hau.

Bollerak haien aldetik antolatzeke bi arrazoi nagusi aurkitu ditut: Mugimendu Feministak haien aldarrikapenak bigarren mailakoak direla sentitzea, eta bestelako egituraketa formak bilatzea. Lehenengo arrazoiari dagokionez, proposamen bolleroak kontsideratzeko erresistentziak existitzen direla uste dute. Elkarrizketatutako taldeen ustetan, feminismo heterosexualetatik hererosexualitateari ez zaionez zuzeneko interpelazioa egiten, eremu publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa historikoa betikotzen jarraiz da; asko jota, modu oso azalekoan inkorporatu dute haien diskurtsoetan, baina praktika aldetik ezer ez. Heterosexualitatea unibertsala izaten jarraitzen du, ez da izendatzen, eta horrek *normalaren* eta *bestearen* arteko bereizketa sortzen du. Bolleraren borrokaren bidez, erregimen heterosexualaren kontrako borroka artikulatzen da era zuzen batean, kolektiboki antolatzearen arrazoia disidentzia sexualaren aldarrikapena delako; sexualitatea eremu pribatutik maila politikora pasatzen da. Hortaz, bolleraren borroka ez da soilik bollerentzako, taldeek nabarmendu duten bezala, borroka transbertsala da. Zentzu horretan, feminismo heterosexualari egin diezaiokeen ekarpenen artean, publiko eta pribatuaren arteko muga lausotzea eta bestelako irakurketak zabaltzea lirateke.

Errebisio eza hori kontraesankorra suerta daiteke Euskal Herriko Mugimendu Feministan lesbiana kopuru handia dagoelako. Horren arrazoia atxiki egin diote lesbianek duten lesbofobia barneratuari; ez dira subjektu politiko lesbianarekin identifikatzen, eta ondorioz, sexualitatea ez da maila politikora eramaten haien bizipena garrantzitsua ez dela uste dutelako, eta gorputza diskurtsoan jartzea zaurgarritasunaren esposizio kontzientea eskatzen duelako.

Zentzu horretan, sexualitatea politiko egitea zaurgarritasuna era kontziente batean kolektibizatzeke ariketa da. Era horretan, feminismo heterosexualetan ez bezala, *besteari* buruz hitz egiteari uzten zaio. Izan ere, zaurgarritasunen esposizioak besteekin berdintzen die eta horrek harreman horizontalagoak izatera bultzatzen du. Hortaz, subjektu politikoaren ulerkera bera aldatu egiten da; interdependentziaren ideia modu

literalean ulertzen da, eta horrek erresistentziak eta borroak artikulatzeko forma desberdinak ekartzen ditu.

Bollerak haien aldetik artikulatzeko beharraren bigarren arrazoia antolakuntzarako formei dagokie, hain zuzen ere. Bollera taldeak eragile sozialak izateaz gain, zaintza sareak ere badira. Talde feminista heterosexualekin alderatuz gero, subjektua ulertzeko forma desberdina den heinean —zaurgarritasun kolektibotik— zaintza ere desberdina da, kodeak desberdinak direlako. Subjektu berdinen arteko elkar ulertze bat dago, espazio seguruen sorrera militantzia formaleko esparruetatik at ere ematen da, gertuko erreferente positiboen sorrera egituratzen du, aisialdiaren politizazioa bere gain hartzen du, edota bestelako harremantze-ereduak garatzeko espazioen sorrera ahalbidetzen du.

Amaitzeko, publikoaren eta pribatuaren arteko eremuen muga lausotzearen praktikan bi errealitate aurkitu ditut. Bizi-proiektu integraletan daudenak era kontziente batean egiten dute publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa, norberaren eta bestearen arteko muga bereizi ahal izateko. Bizi-proiektu indibidualakoetan barna daudenek, ordea, halabeharrez egin behar dute zatiketa hori, inguruak hala agintzen dielako.

8.2. Prozesuak sortu dizkidan gogoetak, ikerketaren mugak eta aurrera begirako ildo posibleak

Ikerketa honek aspaldi buruan nituen galderei erantzunetarako bideak topatzen lagundu dizkit. Zaurgarritasuna eta ahuldadea nigan zeuden, baina nahi ez nituen bi ezaugarri negatibo bezala neuzkan nire baitarako; are zaurgarriago bihurtzen ninduten egoeren kontra borrokatzera kondenatzen nindutenak, inobilismora.

Gogoratzen ditut egunak eta gauak ohetik irten ezinik, Anariren *Ihia* abestia entzuten: *eskerrak ahulak garen / erantzi eta jaten uzten garen*. Ez nuen ulertzen zelan eman ziezazkiokeen eskerrak paralisi egoera horretara eramaten ninduela kontsideratzen nuen ahuldadeari. Duela urte bat pasatxo, inflexio puntu bat egon zen nigan, eta bi kontzeptu horiei bestelako adiera ematen ikasi nuen. Orain, erresistentzi kolektiborako beharrezkoak ditudala, ozen abesten du *eskerrak ahulak garen*.

Ikerketari hasiera eman nionean detektatu nuen mugetako bat izan zen feminismo heterosexualen ahotsa bilduko ez nuela, eta ondorioz, haien antolatze moduak eta argudioak ez nituela jasoko. Lasaitu egin ninduen pentsatzeak ni talde feminista heterosexualetako kide izan naizela urte luzez, eta horrek bien arteko konparaketa egiteko nolabaiteko oinarria eskaintzen zidala.

Ikerketan barna murgilduta egonda, konturatu naiz lan honek duen beste mugetako bat izan dela Euskal Herriko Mugimendu Lesbianista Feministaren bilakaera historia batzeko tarterik hartu ez dudala. Lanketa hori ezinbestekoa deritzot gaur egun dauden tentsioak nondik datozen ulertu ahal izateko, eta aurrerapenik edo atzera pausorik eman den aztertu ahal izateko.

Beste mugetako bat prozesuan zehar nabarmendu den lanketa indibiduala izan da. Uste dut era kolektiboago batean egin izan banitu hausnarketa teorikoak eta elkarrizketen analisiak, hausnarketa kritikoagoak eta konplexuagoak garatzeaz gain, ikerketan irten ez diren hainbat gai aipatu izango zirela, eta etorkizunean haiek garatzeko bide emango zutela. Gainera, uste dut estraktibismo akademikoarekiko distantziak laburtzen lagunduko lukeela, ikerketa arlo akademikoan garatzeko probabilitatea txikiagotuz eta talde lokaletan arteko artikulaziorako aukera gehiago zabalduz.

Aipatzera noan azken muga taldeen aukeraketa bera izan da; hirietako errealitateetara mugatu naiz ezagunak izan ditudalako eta horrek elkarrizketatuak bilatzeko prozesua azkartu egin dit. Beraz, aurrera begirako ikerketa ildo posibleen artean, azken muga hau abiapuntu egokia izan daitekeela uste dut. Lesbiana antolatuak hirietan bizi diren edo antolatze gogoan duten lesbianak hirietara mugitzen diren, hiriburuetatik at talderik ba al dagoen, eta baldin badago, haien eskualdetako, herrietako edo auzoerako talde feministekin zer nolako harremana duten aztertze.

9. BIBLIOGRAFIA

- Althusser, Louis [1970] (1997). *Ideología y aparatos ideológicos de Estado*. Mexiko: Siglo XX.
- Araneta, Aitzole eta Fenández-Garrido, Sandra. (2017). "Transfeminismo". In R. Lucas Platero et al. (eds.), *Barbarismos queer y otras esdrújulas* (416-424 or.). Bartzelona: Edicions Bellaterra.
- Austin, John Langshaw [1994] (1998). *Cómo hacer cosas con palabras: palabras y acciones*. Paidós: Bartzelona.
- Azpiazu, Jokin eta Latorre, Enrique (2017). "Homonormatividad ". In R. Lucas Platero et al. (eds.), *Barbarismos queer y otras esdrújulas* (254-261 or.). Bartzelona: Edicions Bellaterra.
- Berger, Jonh (1995). *Páginas de la herida*. Visor Libros S.L.: Madril.
- Suárez, Beatriz (2013). Introducción. In Beatriz Suárez (ed.), *Las lesbianas (no) somos mujeres* (7-14 or.). Bartzelona: Icaria.
- Beauvoir, Simone [1969] (2019). *Bigarren sexua*. Donostia: Eskafandra.
- Bunch, Charlotte (1972). Lesbianas en rebelión. In R. Jimenez, *Manifiestos gays, lesbianos y queer. Testimonios de una lucha (1969-1994)* (97-104 or.). Bartzelona: Icaria.
- Burgos, Elvira (2009). Parentesco aberrante. *Cuadernos del Ateneo*, 26, 67-74. or.
- Burgos, Elvira (2010): El deseo lesbiano como potencia feminista. In *Granada, treinta años después: aquí y ahora* (465-472 or.). Madril: Coordinadora Estatal de Organizaciones Feministas.
- Burgos, Elvira (2019). Cuerpos performativos. Prácticas corporales subversivas: Judith Butler. In Silvia López eta R. Lucas Platero (eds.), *Cuerpos marcados. Vidas que cuentan y políticas públicas* (27-50). Bartzelona: Edicions Bellaterra.
- Butler, Judith (2006a). ¿El parentesco es siempre heterosexual de antemano? *Deshacer el género* (149-187 or.). Bartzelona: Paidós.
- Butler, Judith (2006b). *Vida precaria. El poder del duelo y la violencia*. Buenos Aires:Paidós.
- Butler, Judith (2007). *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*. Bartzelona: Paidós.
- Butler, Judith (2009). *Lenguaje, poder e identidad*. Madril: Editoril Síntesis.

- Butler, Judith (2010a). *Cuerpos que importan. Sobre los límites materiales y discursivos del sexo*. Buenos Aires: Paidós.
- Butler, Judith (2010b). *Marcos de Guerra. Las vidas lloradas*. Buenos Aires: Paidós.
- Butler, Judith (2014, ekaina). Repensar la vulnerabilidad desde la resistencia. *Alcalako Unibertsitateko XV. Nazioarteko Filosofoen Elkarteko Sinposioan aurkeztako ponentzia*, Madril. Hemendik hartuta: <http://paroledequeer.blogspot.com/2014/06/repensar-la-vulnerabilidad-por-judith.html>
- Butler, Judith (2014). In Begonya Saez (ed.), *Cuerpo, memoria y representación. Adriana Cavarero y Judith Butler en diálogo*. Bartzelona: Ikaria.
- Coll-Planas, Gerard (2008). Homosexuals, bolleres i rarets: posicions polítiques en el moviment lèsbic i gai. *Athenea Digital*, (14): 41-61 or.
- Deleuze, Gilles eta Guattari, Félix (1975). *El anti-Edipo. Capitalismo y esquizofrenia*. Bartzelona: Paidós.
- Eribon, Didier (1999). *Reflexiones sobre la cuestión gay*. Bartzelona: Anagrama
- ESAM (1979). *Dossier lesbianismo*.
- Esteban, Mari Luz (2009). Identidades de género, feminismo, sexualidad y amor: Los cuerpos como agentes. *Política y Sociedad*, 46 (1-2), 27-41or.
- Esteban, Mari Luz (2011). *Crítica del pensamiento amoroso*. Bartzelona: Bellaterra.
- Esteban, Mari Luz (2017): Gorputzez gorputz iraun. Mugimendua elkarrekon-egote gisara. *Feminismoa eta politikaren eraldaketak* (101-108 or.). Zarautz: Susa (Lisipe).
- Euskal Herriko Mugimendu Feminista (2019). *Kapitalismo heteropatriarkalari planto. Bizitzak erdigunera. Greba feministaren hausnarketa, antolakuntza eta komunikaziorako dossierra*. Hemendik hartua <https://grebafeminista.wordpress.com/dossierra/>
- Euskal Herriko Bilgune Feminista (2019, azaroa). *Mugimendu feministaren erraiei begira: eraldaketarako boterea eraiki dezagun*. Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan aurkeztutako ponentzia, Durango.
- Foucault, Michael (1976). *Historia de la sexualidad I: La voluntad de saber*. Madril: Siglo XXI.
- Foucault, Michel (1998). *Vigilar y Castigar. Nacimiento de la prisión*. México: Siglo XXI.

- Foucault, Michel (1981). *Las Mallas del Poder*. París: Barbárie.
- Galtung, Johan (1969). Violence, Peace, and Peace Research. *Journal of Peace Research* 6(3), 167-191or.
- García, Nagore (2017). *Difracciones amorosas: deseo, poder y resistencias en las narrativas de mujeres feministas*. Universitat Autònoma de Barcelona, Herrialde Katalanak.
- Genet, Jean (1999). *Diari del lladre*. Bartzelona: Edicions 62.
- Goikoetxea, Jule (2015, uztaila). Bakea ez da existitzen, feminismoa bai. *Iruñeako Udako Ikastaroan* aurkeztutako ponentzia, Iruñea. Hemendik hartua: <https://www.youtube.com/watch?v=9v5-BwzRMJo>
- Koyama, Emi (2001). The transfeminist manifesto. Hemendik hartua: <https://eminism.org/readings/pdf-rdg/tfmanifesto.pdf>
- Hernandez, Juan (2018, urria). *Nazioarteko Elkartasuna*. Garapena, Lankidetzeta eta Giza Garapenerako Teknologia mintegian aurkeztutako ponentzia, Bilbo.
- Jeffreys, Sheila (1996). *La herejía lesbiana. Una perspectiva feminista de la revolución sexual lesbiana*. Madril: Cátedra.
- Joxemi Zumalabe Fundazioa (2014). *Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantziaz eta horizontaltasunaz hausnartzen*. Gipuzkoa Joxemi Zumalabe Fundazioa.
- Joxemi Zumalabe Fundazioa (2013, ekaina). Ez obedientziaren alde. *Desobeditzen ikasten: esperientzia desobedienteak eta horien ezaugarriak Euskal Herrian azken hamarkadetan* aurkeztutako ponentzia.
- Kristeva, Julia (1988). *Poderes de la perversión. Ensayo sobre Louis-Ferdinand Céline*. Madril: Siglo XXI.
- Medeak (2019, azaroa). Gorputza mintzaile politiko gisa. *Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan* aurkeztutako ponentzia. Durango.
- Mira, Alberto (2004). *De Sodoma a Chueca. Una historia de la homosexualidad en España en el siglo XX*. Madril: Egales.
- Muelas, Laura (2015). *El placer como proceso creativo en la transformación feminista*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Herria.
- Muelas, Laura (2020). Kontua ez da iraultza egitea ala dantzatzea, dantzatzea bera da iraultzailea. *Argia*, 15-18 or. Hemendik hartua: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2689/laura-muelas-de-ayala>

- Pateman, Carole [1988](2018). *Kontratu sexuala*. Donostia: Elkar (Eskafandra).
- Reed, Evelyn (1987). *Sexo contra sexo o clase contra clase*. Mexiko: Fontamara
- Reychler, Luc (2001). Conceptual framework. In Luc Reychler eta Thania Paffenholz (eds.), *Peacebuilding. A Field Guide*, 3-15 or.
- Rich, Adrienne (1996). Heterosexualidad obligatoria y existencia lesbiana. *Duoda* 10, 15-45 or.
- Rousseau, Jean-Jacques [1762](2012). *El contrato social: o los principios del derecho político*. Madril: Taurus.
- Rubin, Gayle (1985). Reflexionando sobre el sexo: notas para una teoría radical de la sexualidad. In Carole Vance, *Placer y peligro* (113-190 or). Madril: Talasa
- Rubin, Gayle (1986). El tráfico de mujeres: notas sobre la “economía política” del sexo. *Nueva Atropología* (30), 95-145 or.
- Salas, Bernat (2004). La humillació del debat sobre matrimoni gay. *Infogai*, 139, 3.
- San Pedro, Constanza (2018). De precarizaciones y resistencias: Los feminismos ante el neoliberalismo. Apuntes para reflexiones urgentes y necesarias. *Revista de conflictos sociales latinoamericanos*, 155-160 or.
- Sare Lesbianista (2019, azaroa). Lesbianismoaren garaia da. *Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan* aurkeztutako ponentzia. Durango.
- Scheper-Hughes, Nancy eta Lock, Margaret (1987). The mindful body. A prolegomenon to future work in medical anthropology. *Medical Anthropology Quaterly*, 1, 6-41 or.
- Silvestri, Leonor (2019). *Primavera con Monique Wittig. El devenir lesbiano con el dildo en la mano de Spinoza transfeminista*. Buenos Aires: Ludwig.
- Firestone, Shulamith (1976) [1970]. *Dialectica del sexo. En defensa de la revolución feminista*. Bartzelona: Kairós.
- Suárez, Beatriz (ed.) (2014). *Feminismos lesbianos y queer. Representación, visibilidad y políticas*. Madril: Plaza y Valdés.
- Velasco, Honorio eta Díaz De Rada, Ángel (1997). El trabajo de campo. *La lógica de la investigación etnográfica. Un modelo de trabajo para etnógrafos de la escuela*. Madril: Trotta.
- Wittig, Monique (1977). *El cuerpo lesbiano*. Balentzia: Pre-textos.

- Wittig, Monique (2017). Emakume ez da jaiotzen. *Pentsamendu heterozuzena* (27-40 or.). Zarautz: Susa.
- Zabala, Idoie et al (2009). Otras maneras de participar: recuperando la experiencia feminista. In Idoie Zabala eta Marta Luxan *Propuesta de selección y construcción de un sistema de indicadores de igualdad y no androcéntricos para el municipio de Bilbao* (41-45or.). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

10. ERANSKINAK

10.1. ERANSKINA I: Elkarrizketetarako gidoia

Orokorrak

- Ikerketa pixka bat azaldu eta elkarrizketaren zergatia (zergatik zuek)
- Ibilbide luzea/laburra duen taldea zarete, egin ahalko zenidakete aurkezpen labur bat zuen ibilbidea, ezaugarriak eta taldeak zer eskaintzen dizuen azalduz?

Ildo politikoa

- Zer da zuentzat lesbiana/bollera/disidente sexuala izatea?
- Beraz, zerk eroan zaituzte talde feminista-lesbianista batean militatzera, lesbiana izateak, ala feminismoen barruan eta kanpoan subjektu politiko lesbiko giza identifikatu izanak?
- Pertsonala politikoa dela aski entzun dugu feminismoen barruan, zein zentzutan da garrantzitsua feminismoen barruan zein kanpoan subjektu politiko lesbikoarekin identifikatzea? Zein ekarpen egin diezaioke horrek feminismoari?
- Talde feministetan espazio ez-mistoen garrantzia azpimarratu da, zein zentzutan da garrantzitsua bollarak bere aldetik biltzea?
- Euskal Herriko Mugimendu feministan proposamen lesbofeministak kontsideratzeko erresistentziak daudela esango zenukete? Adibideren bat jar dezakezue?
- Hortaz, zein leku aldarrikatzen duzue feminismoan? Zergatik uste duzue gertatzen dela hori? (erantzunaren arabera modu batean edo bestean planteatu).
- Zein estrategia proposatuko zenituzkete lesbianismoa feminismoen barruan beste lan ardatzek beste lehentasuna izan dezaten bultzatzeko? Zein aliantza mota iruditzen zaizkizue estrategikoki interesgarri?

Militantzia

- Zein beharrek bultzatu zintuzten talde lesbofeminista bat osatzera edo taldera sartzera?

- Feministak eta bollerak zaretenez gero, zeinekin egin dituzue egunera arte aliantzak? Zergatik? Egon izan da gatazkarik parte zaiten talde edo plataformaren batean desadostasunak direla medio? Zeintzuk izan dira desadostasun horiek, eta zelan kudeatu dituzue?
- X taldean egoteaz gain, militatu izan duzue beste talde feministaren batean? Lesbianena? Uste duzue zaintza-dinamika desberdinak ematen direla talde feminista heteroetan eta lesbianistetan? Hala bada, zein zentzutan? Zergatik uste duzue aldaketa hori ematen dela talde baten eta bestearen artean?
- Ze erresistentzia edo estrategia indibidual eta kolektibo erabili izan dituzue zuen kapitalismoari aurre egiteko? Eta egunerokotasunean? Pentsatu dituzuen guztiak izan dira posible aurrera eramatea? Zeintzuk izan dira mugak?
- Zein tresna eman dizkizue talde honek lesbiana gisa?

Kudeaketa eta erronkak

- Zein espazioetan biltzen zarete? Horrek gatazkarik sortu al du taldean?
- Zeintzuk dira zuen lehentasunak, edo zein gai landu dituzue? Nolako izaten dira zuen enkontruak (zenbatero, zertarako, aurretik prestatzen dituzue...)?
- Zer da zuentzako zaintza? Talde barneko zaintzari zer nolako lekua eskaintzen diozue?
- Nola integratu duzue militantzia zuen egunerokotasunean? Bereizketa kontzientea egiten duzue militantziaren eta bizitza intimoagoaren artean?
- Zein zentralitate du gorputzak zuen borrokan?
- Zaurgarritasunaren inguruan hainbat gogoeta egin dira azken urteetan, zein zentzu du zuentzat gorputza zaurgarritasunetik ulertzea? Zelan eragiten dio horrek taldearen funtzionamenduari?
- Talde barruan, uste duzue binkulu pertsonalak egitea beharrezkoa dela?